

Goienkaria

2006ko ekainaren 2a > Egubakoitza > VI. urtea > 246. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net

"Legez ere
apartheida
gaindi daiteke,
baina
borondatea
falta da"

Marijo Altube
Herri plataforma
> 09



G2a

Gobernuz
kanpoko
erakundeak > 43

BERGARAKO UDALA
PSE-EEK "nahigabe" bozkatu du
alderdien legearen aurka > 06

ARETXABALETA
Adimen urrikoek zazpi igeriketa
domina irabazi dituzte > 31

ANTZUOLA
Maristen eraikinaren tokian
irailean egingo dituzte 20 etxe > 36

KOMUNIKABIDEAK > AUDIENTZIA NEURKETAK

GOIENKARIAK lau mila irakurle gehiago ditu

GOIENKARIA

Debagoieneko
aldizkari irakurriena
da, eta 4.000 irakurle
gehiago ditu aurten,
6,4 puntu gehiago

BERRITUA

Otsailean
aurkeztu zen
GOIENKARIA berritua,
eta epe honetakoak
dira bere audientzia
datu onenak > 02-03

BERGARA > HIRIGINTZA

Oraingoz ez da kanpoko igerilekurik izango

Datozen urteotan ez da kanpoko igerilekurik egongo Bergarako Agorrosin kirolgunean. Udalak proiektua eginda dauka, baina, oraingoz, Agorrosingo bestelako instalazioak bukatzeko eta prest uzteko erabili behar du dirua. Hori bai, eguzkia hartzeko berdegunea, dutsak eta barruko igerilekura sartzeko pasabidea egongo dira kanpoan.

Igerilekuak eta gimnasioa irailean inauguratzea da Udalaren asmoa. > 15

KIROLA > 5. TRIATLOIA

Berrehun atleta espero dituzte Urkulun

Bihar egingo dute, Urkulun hasita, Debagoieneko V. triatloia. Kirolariek 16:00etan hasiko dute erronka, distantzia olimpikoa duen triatloia-ri aurre egitea. Berritasunei dagokienez, bizikletako ibilbidean aldaketak egin behar izan dituzte, Kanpanzartik Muxibarrera doan bidea itxita dagoelako. Faboritoei dagokienez, Hector Llanosek korritu duen bakoitzean irabazi egin du; gasteiztarra Urkulun izango da bihar. > 40



DENAK GERTU Oñatiko herri eskolako ikasleak gertu daude jaian parte hartzeko.

LEIRE KORTABARRIA

Oñatin ospatuko da Euskal Eskola Publikoaren jaia etzi, domekan

Euskadiko eskola publikoak Oñatin egingo du bere jaialdia etzi, domeka. Goieskolak, Debagoieneko euskal eskola publikoak, 30.000 euskaltzale inguru espero ditu. Zazpi gunere presatu dituzte Oñatin, bakoitza kultura eta aisialdi eskaintza propioarekin. Zortzi orrialdeko gehigarrian jaso dugu jaieren inguruko informazio guztia.



BARRUAN, GEHIGARRIA

AURKIBIDEA

Debagoiena > 02-08
Elkarrizketa > 09
Iritzia > 10-11
Gutunak > 12
Herriak > 15-39
Kirola > 40-41
Kultura > 45
Sailkatuak > 46
Eskelak > 47
Denbora-pasa > 48
Gazteak > 50
Telebista-Irratia > 51
Komunikazioa > 52
Non-zer > 54-55

C-MAX 30 urtemuga
16.800€-gatik

Ford Focus C-MAX

MUGARRI AUTOAK Araba Etorbidea, z/g ARRASATE

ARKAUZ
GRUPO
ARETXABALETA 1950-2006 ARRASATE

ARKAUZ
ELECTRODOMESTICOS
Andramari auzunea
Tel./Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALETA

ETXE MOBEL
ALTZARIARI
Araba etorbidea 5
Tel./Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE

ARKAUZ
COCINA INTEGRAL
Mitarate 3
Tel./Faxa: 943 77 04 55
ARETXABALETA

ARKAUZ
MUEBLARI
Araba etorbidea 20
Tel./Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETA

Lagunen aurrean ederto gelditu nahian?
Har ezazu lasaitasun!
Arkauz etxeak eskaintakoarekin txundituta geldituko dira.

Arkauz zure etxea da.

KOMUNIKABIDEAK > CIES ERAKUNDEAK AUDIENTZIA NEURKETA EGIN DU

GOIENKARIAK eta GOITBK, inoiz baino hartzaile gehiago

BERRITUA Berritu den epean izan ditu GOIENKARIAK datu onenak: 38.500 irakurle, azaroan baino %6,4 gehiago

IRAKURRIENA Debagoieneko aldizkari irakurriena izaten jarraitzen du GOIENKARIAK, alde handiarekin

GOITB Erdarazko lekuko kate batzuek baino ikusle gehiago ditu: 6.000 ikus-entzule egunero

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA

GOIENKARIA da, alde handiarekin, aldizkari irakurriena Debagoienean, eta bere irakurle kopurua igo egin da azken hiruhilabetean. Hala baieztatzen dute CIES erakundearen datuak oraintsu kaleratutako Euskadiko Komunitate Autonomoko Komunikabideetako Entzulegoaren Ikerketan.

Martxoaren 15etik apirilaren 4ra arte egindako neurketa horretan, galdeketa egin eta aurreko astean, 37.000 lagunek irakurri zuten Debagoienean (Aramaio

kontatu barik), galdetutakoan %67,3k. Goienaren datuen arabera, Aramaioko audientzia 1.500 irakurlekoa da, hortaz, Debagoienean 38.500 irakurle inguru ditu GOIENKARIAK. Gipuzkoa osoan 41.000 irakurle ditu astero, hau ere CIESen arabera.

GOIENKARIA berritu den epeko datuak dira horiek, eta deigarria da epe horretakoak aldizkariak inoiz izan dituen datu onenak direla. Izan ere, 2005eko martxoaren ezkeron neurtzen du CIESek GOIENKARIAren audientzia, eta datuek etengabe egin

dute gora: 2005eko azaroan, galdetutakoan %60,9k irakurri zuten azkeneko astean, 2005eko martxoan, %61,9, eta 2006ko martxoan, %67,3.

Alde handia du GOIENKARIAK beste aldizkarietako: hala, bigarrenak, *El Diario Vasco*-k, 21.000 irakurle ditu astean Debagoienean, galdetutakoan %37,3; hirugarrenak, *Gara*-k, 6.000 irakurle, galdetutakoan %10,2.


GOITBren datuak ere ematen ditu CIESek. Horien arabera, egunero 6.000 ikusle ditu Debagoienean, eta aste osoan, 42.000

ikusle. Kopuruak gora egin du, izan ere, 2004. urteko azaroan galdetutakoan %9,4 ikusten zuten; 2005. urteko azaroan, %8,5ek; eta aurtengo martxoan, %10,7k. Teledonosti edo Localiak ez dituzte portzentaje horiek lortu Donostialdean.

Inazio Arregik, Goienako zuzendari nagusiak, hauxe dio ibarreko telebistaren emaitzak ikusita: "Gure datuek askoz balorazio hobea merezi dute, kontuan izanik baliabide gutxiagorekin eta euskara hutsean egiten dugula guk lan".



GOITB Albistegia da saio arrakastatsuenetako bat.



'Goiena.net', euskara hutseko seigarren webgunea

Goiena.net webgunearen neurketa Goienak berak egiten du, eta datu guztiek baieztatzen dute webgunearen arrakasta: 5.800 orritik gora ikusten dira egunero, eta gorako joera du. Kanpoko datuek berretsi egiten dute arrakasta hori: hala, *Erabili.com*-ek Euskal Herri osoko webguneen zerrenda egin zuen, eta *Goiena.net* da euskara hutsean gehien bisitatzen den seigarren webgunea. Lehengo *Sustatu.com* da, eta *Goiena* da horren sortzaileetako bat. *Erabili.com*-ek dio euskarazko webguneek gora egin dutela.

Goiena.net Debagoieneko ataria

Antzuola Aramaio Aretxabaleta Arrasate Bergara Elgeta Eskoriatza Gatzaga Oñati Debagoien

Babeslea
arteman komunikazioa

Honi buruz
Zer da goiena.net?
Blog komunitatea
Laguntza
Arauk
Jaso e-postaz
XML, XML feed-ak
Publizitatea
Zerbitzu orokorrak
Publizitatea

nolako ikasketak halako etorkizuna
smsoinu

Trekitako artabidak
Leintz Gatzaga: Zerk kezkatzen zaitu herrian? Zer eskatzen duzu?
Karpelarra, 2006/05/30-12:15
Prestatu dituzu udako oporrak?
Zantzar, 2006/05/29-13:39
Dopinga erabiltzen

Gaur albiste
BERGARA
Jaietako gehigarri berezia banatuko du Goienkariak
Oihana Elortza, 2006-05-30 | 16:07
Aurtengo Pazko Jaien berri ekarriko du, 40 orri ditu eta doan banatuko dute etxek etxe eguaztanean.

Balaran albiste
Etterako laguntzaren araudi berria onartu du Udalak
ARRASATE N.Z., 2006-05-30 | 09:59
Hileko ohiko Osoko Bilkura izan zen atzo. Onartu zituzten gaien artean, hurrengoak: Etxeko laguntzaren araudi berria, Osoko Bilkuraren eskuduntza edo kompetentziaren zati bat Tokiko Gobernu Batzarrari pasatzea kirol esparruko proiektua egiteko, eta, azkenik, Eusko Jaurlaritzarekin eta Diputazioarekin Erregistro Bateratuak jartzea Arrasaten.

Boluntarioak behar dituzte gobernuz kanpoko erakundeek
DEBAGOIENA A.G., 2006-05-30 | 08:22
Debagoieneko enberruz kanoako erakundeek euren

Goiena.net webgunearen ataria.

ETA gainera...
blog PERTSONALAK
MERKATUA

Gaur GOITBn
Gaur Arrasate Irratian
Lantutako gaiak
Jaso e-postaz!
Asteleheneko Goienkaria

Zure herriko albisteak
Ez dakigu zein den zure herria
Aukeratu bat!
Debagoiena

Balarako agenda GAUR
ARETXABALETAK. KZgune: Bat-bateko mezularitza
ARRASATE. Hitzaldia: "Sexologia eta teknologia berriak" (19:00etan)

GOIENKARIA

Ez dugu gauza handirik egin hiru hariko minuegatik, baina bai zure autoaren finantzaketagatik

LACETTI 1.4 SE 16 V
Aire girotua eta 5 urteko bermea
SARRERARIK GABE

60€/hilean – LEHEN URTEAN
140€/hilean – HURRENGO 107 KUOTAK
GASOLINA PREVER PLANA BARNE. %6,03KO UTB



Giauto 902 345 225

Otaola Etorbidea, 27 · EIBAR · Tel.: 943 70 08 41
Karobi Industriaidea z/g · OLABERRIA · Tel. 943 88 51 50

www.chevrolet.es



Lacetti 1.4 SE 16 V modelo (ez da inudiko modelo). Salneurria: 11.974€ (Gasolina Prever Plana eta promozioa barne). Kuotak: 1etik 12ra 60€-koak eta 13tik 107ra 140€-koak. Guztira finantzatzeko kopurua: 15.999,35€. TIN: % 5,35. UTB: % 6,03. Irekizte komisioa: % 2,5 (299,35€). Beste promozioetarako eskaintza ez da metatzen. 2006/06/30era arte baliagarria Penintsulan eta Balear Uharteetan. Finantzaketa: Banco de Credito Sak, RBE 1514/06. Kontsumo mistoa (l/100 km): 7,1-8,8. CO2 emisioa (g/km): 160-173. Hiru urteko bermea edo 100.000 km: bermeen legea aplikatzeko kalterik gabeko: 23/2003, gehi bi urte Chevroleten Servicio 5 kontratuaren arabera.



ANGEL ARGAZKIA

'Goiena.net' webgunearen ia 6.000 web orri ikusten dira egunero, eta gorako joera du audientziak

GOIENKARIAren tirada eta difusioa neurtzen ditu OJD erakundeak; lekuko aldizkari gutxirekin egiten du hori

DATU SOZIO-EKONOMIKOAK
CIESek, metodo estatistikoak jarraituz, populazioaren lagin bat hartzen du galdeketa egiteko, eta Debagoieneko hiru herri hartzen dituzte: Arrasate, handiena delako, eta zorian hartutako beste bi: oraingoan, Eskoriatza eta Bergara.

Irakurleei galdetu diete pasa den astean komunikabide bakoitza irakurri duten, eta inoiz irakurri duten. GOIENKARIAren kasuan, inoiz irakurri dutenen kopurua 44.000 da Debagoienean, eta 53.000 Gipuzkoan. Gauza bera

egin dute GOITBrekin. Era berean, hedabideon kontsumitzaileen gainera datu sozio-ekonomiko batzuk jakin ditzakegu: horien arabera, GOITBren ikuslea gizonezkoa da batik bat (ikusleen %57,5), 26-45 urte bitartekoa, eta 14-20 urte bitarteko ikusleek ere pisu handia dute; ikusleen %45,5 klase ertain-altukoak dira; %81,6 euskaraz hitz egin, irakurtzeko eta idazteko gai da... Ikusteko uneari dagokionez, igo egin da zapatuko ikus-entzuleria.

GOIENKARIAko irakurleei dagokionez, ia parekatuta daude emakumezko eta gizonezko irakurleen datuak, erdi bana. Adin araberako datuak ere oso antzekoak dira 26-35, 36-45, 56-65 eta 65 urtetik gorakoen tartean, denak %17-%18 inguruan. Gehienak klase ertain-altukoak dira (%29) eta asko dira unibertsitate ikasketak dituztenak (GOITBrekin ere berdin gertatzen da).

GOIENA.NET ETA IRRATIA

Goiena.net webgunearen audientzia Goienak berak ikertu du, eta webgune horretako 5.844 bat orri ikusten dira egunero. 3.700 bisita izatera iritsi da, beste horrenbeste ordenagailutik. Bisitari finkoak ditu Mexikon, Venezuelan, Espainian, Frantzian... Blogak, batez ere, arrakasta izugarria izan dute.

Bestetik, Arrasate Irratia, Goienak kudeatuta, oraingoz ez dago CIESen neurketetan, baina Goienak horren entzuleria neurtzeko asmoa du, eta CIESeko neurketetan sartuko du horretarako.

HEDABIDEAK, DATUTAN

> GIPUZKOAN

41.000 irakurle ditu GOIENKARIAk Gipuzkoan, aurtengo martxoko neurketaren arabera.

> DEBAGOIENEAN

37.000 lagunek irakurtzen dute astero GOIENKARIA Debagoienean (Aramaioko datuak kontuan izan gabe).

> 4.000 IRAKURLE GEHIAGO

lazaroko neurketarekiko, 4.000 irakurle gehiago ditu GOIENKARIAk Debagoienean (2005eko azaroan, 33.000 irakurle Debagoienean).

> 6,4 PUNTU GORAGO

Portzentajeetan, CIESek Debagoienean galdetutako lagunetatik %67,3k irakurri du astean GOIENKARIA, 2005eko azaroko datua baino 6,4 puntu altuagoa.

> GOITB ERE, GORA

GOITBren ikus-entzule kopurua ere igo egin da. 2006ko martxoan, galdetutako 100 lagunetik 10,7k ikusten du GOITB, inoizko daturik altuena, eta 2005eko azarokoak baino 2,2 puntu altuagoa.

> GOITB-REN 'SHARE'-A

GOITBren *share*-a (telebista ikusten ari direnen artean kate jakin bat ikusten ari direnak) 6,5 da (Cuatro katearena 5,7 da, eta ETB1ena, 10,8).

> GOIENA.NET

Goiena.net-eko ia 6.000 orri ikusten dira egunero.

Audientzia datuak, CIESen arabera

GOIENKARIA

	AURREKO ASTEAN IRAKURRI DU	INOIZ IRAKURRI DU
2005.03	%61,9	%80,3
2005.11	%60,9	%82,2
2006.03	%67,3	%78,9

GOITB

	IKUSLEAK
2004.11	%9,4
2005.03	
2005.11	%8,5
2006.03	%10,7

Inazio Arregi > Goienako zuzendari nagusia

"GOIENKARIA berrituaren gainean galdeketa egingo da"

L.K. > ARRASATE

Inazio Arregi da Goiena kooperatibako zuzendari nagusia, eta audientzia datuak komentatzeaz gain, galdeketa baten berri eman digu.

Zelan baloratzen dituzu CIESen datuak?

GOIENKARIAren eta GOITBren datuak onak dira, eta pozik gaude. Hala ere, kontuz hartu behar dira, izan ere, laginak oso txikiak dira. Hala ere, joera batzuk ikusten dira: esaterako, GOIENKARIAren audientzia zazpi puntu igo da, eta GOITBrena, puntu bat baino gehiago.

Guretako garrantzitsua da ikustea ea hurrengo ikerketak joera hori konfirmatzen duen.

Goienak galdeketa egingo die ikus-entzuleei eta irakurleei, ezta?

Bai. Goienatik kanpoko pertsona batek egingo du galdeketa, ekain edo uztail inguruan. Telefonoz dei egingo die hainbat pertsonari eta 10-15 bat galdera egingo dizkie. Asebetetasun maila eta gure hedabideen gainera iritzia jakin nahi ditugu.

Zein galdera mota egingo dira?

Batez ere, GOIENKARIA berrituaren gainera iritziaz galdetuko dugu. Banaketaren, edukien... gainean ere galdetuko diogu jendeari. *Asteleheneko Goienkaria*-z ere bai. GOITBren gainera galdera batzuk ere izango dira.

Zer egin beharko dute deia jasotzen dutenek?

Bost minutuko galdeketa izango da, eta eskatzen diegu, mesedez, erantzun dezatela, guretako oso garrantzitsua delako. Anonimotasuna gordeko da.



GOIENKARIA

Erantzun web orrian eta eramán iPodá!

"Zein da negutegi efektua sortzeari gehien eragiten dion gasa?"

informazio gehiago: www.arizmendi.ikastola.net

Arizmendi Ikastolako Lanbide Heziketa

Arizmendi
ikastola

POLITIKA > ASKATASUNAREN DEIA

Mobilizazioak izango dira gaur iluntzean ibarrean, "errepresio politikoaren" aurka

Kontzentrazioak eta manifestazioak izango dira Debagoiengan, "politika errepresiboa salatzeko eta baldintza demokratikoen aldarrikapena egiteko"

IRATI AGIRREAZALDEGI > ARRASATE
Askatasunak deialdia egin du gaurko, ekainak 2, "politika errepresiboa salatzeko eta baldintza demokratikoen aldarrikapena egiteko". Horretarako antolatu dituzte, hain zuzen ere, hainbat mobilizazio.

Aretxabaletan manifestazioak izango da, 19:00etan, plazatik abiatuta; ordu berean Aramaio-ko plazan kontzentrazioa izango da; Arrasaten Seber Altubetik 19:30ean abiatuko da manifestazioa; Bergaran, berriz, kontzentrazioa egingo dute plazan 20:00etan. Oñatin eta Eskoriatzan ere izango da mobilizaziorik errepresioaren aurka.

Askatasunak esan du bi hilabete igaro direla ETak su-etena iragarri zuenetik, eta "hainbat politikaririk konponbiderako behar dugun egoera demokratikoa lortze aldera ahalegin handirik egin dutenik ezin dugu esan. Alderantziz, egoera zenbait kasutan okertu egin da".

Bestalde, Askatasunak salatu du "indar polizialak errepide eta kaleetan hedatuta daudela, debeku politikoak eta zitazio judizialak biderkatu egin direla, kartzela politikarekin bukatu beharrean euskal preso politikoaren aurkako neurri errepresiboak areagotu egin dituztela eta euskal iheslari politikoaren kontrako jazarpenak bere horretan dirauela".

BALDINTZAK

Gaineratu du "baldintza demokratiko batzuk bermatzea ezinbestekoa dela prozesu demokratikoa emango bada, eta ez dugu horretarako borondaterik ikusten ez estatu espainiarraren eta frantsesaren aldetik".

Baldintza demokratikorik ez dagoela esateko zenbait datu kaleratu dituzte: 18/98 epaiketa; 14



ASKATASUNA Ibarreko Askatasuneko ordezkariak mobilizazioetan parte hartzeko dei egin diete herritarrei.

DEIANE ARRIETA

ekitaldi politiko debekatzea; 18 epaiketa pankartak eta pintaketak egiteagatik; 180 errepide kontrol; milioi bat euro fidantzatan; euskal presoak Euskal Herrira ez

ekartzea, zazpi euskal herritarren estradizioa, bi tortura salaketa eta lau inkomunikazio egoera; eta 16 atxilotu gai politikoengatik baldintza horiek sortzearen ardura

euskal herritar guztiona da, ez eragileena soilik".

Horregatik, gaurko mobilizazioetan parte hartzeko dei egin du Askatasunak.

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- ◆ Administrazio eta Finantzak (EGUNEZ eta GAUEZ)
- ◆ Nazioarteko Merkataritza
- ◆ Gorputz eta Kirol-ekintzen Sustatzea

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- ◆ Administrazio Kudeaketa
- ◆ Merkataritza

Uni

EIBAR

Otaola Hiribidea, 29 - 20600 EIBAR
Tel. 943 20 84 44
Faxa. 943 20 31 96
E-maila. uni@iesunibhi.com
www.iesunibhi.com



GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- ◆ Telekomunikabide eta Informatika-Sistemak
- ◆ Informatika Aplikazioen Garapena
- ◆ Informatika sistemen administrazioa

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- ◆ Informatika Sistemen Ustiapena

Uni

ERMUA

Ongarai Auzoa - 48260 ERMUA
Tel. 943 17 62 57
Faxa. 943 17 64 50
E-maila. uni@iesunibhi.com
www.iesunibhi.com



Aurrematrikula: ekainaren 1etik 7ra

Ikastetxeak bisitatzeko eguna: ekainak 3, 11:00etan

> ENPRESA

Fagor Arrasatek prentsa linea bat saldu dio Ford etxeari

Fagor Arrasatek prentsa linea bat saldu dio Ford Motor Company enpresari 13 milioi euroko balioarekin. Fordek Australiar duen lantegirako egin dute pieza hori. Eragin-kortasun handiko prentsa linea robotduna da. Buruko prentsak minutuan 20 pieza ekoizteko gaitasuna du eta oso pieza konplexuak egin ditzake. Fagor Arrasatek joan den urtean 118 milioi euro pasa fakturatu zuen, %67 nazioarteko salmentetan.

> ERAKUSKETA

Zabalik dago 36ko gerra gurean jasotzen duen erakusketa

Gerra zibila eta errepresioa Debagoiengan izena duen erakusketa zabalduta dute Arrasateko Monterron kultura etxean. Bi zati nagusi ditu: bate-tik, orain lau urte egindako lana aurkezten dute sei paneletan, Fusilatuen batzordeak egindakoa; beste seitan, batutako azken datuekin, eskualdean frankisten errepresalia izan zuten guztien izenak eta aurpegiak jartzeko proiektua aurkezten dute.

> INGURUMENA

Zaborrari lotutako datuak itsatsiko dituzte ontzietan

Zaborrekin zerikusia duten hainbat datu interesgarri itsatsiko dituzte zaborrontzietan datorren astean. Ingurumenaren nazioarteko eguna da ekainaren 5ean eta Mankomunitateak eta Arizmendi ikastolako Lanbide Heziketako ikasleek elkarlanean egindako proiektu baten ondorioz jarriko dituzte datu horiek zabor bilguneetan. Ekintza horrekin ingurumenaren gaineko sentsibilizazioa sustatu nahi dute.

> NAZIOTASUN EGUNA

EHNA erabiltzeko aldarrikatuko dute naziotasun egunean

Euskal Herriko Naziotasun Aitormena, EHNA, erabiltzeko aldarrikatuko dute aurten naziotasun egunean. Ekainaren 11n, domeka, ospatuko dute Balmasedan, Bizkaia, eta EHNA erabiliaz Euskal Herria eraiki leloa izango du egunak. Egun horretarako egitarau ere prestatu dute dagoeneko: herri kirolak, haurrendako txokoa, herri bazkaria, erromeria eta herri poteoa egongo dira, besteak beste.

Erramun Beltza > Agifes-eko kidea

"Gaixo psikikoak profesionalizatzea da gure eskaera, baztertu ordez"

OIHANA ELORTZA > BERGARA
Gipuzkoako gaixo psikikoen senideen elkarte da Agifes eta bertako kide da Erramun Beltza legazpiarra. Buruko gaitza duten pertsonen lanerako duten beharra azpimarratu nahi izan du Bergaran aste honetan eman duen hitzaldian. Instituzioen aldetik laguntza gutxi jasotzen dutela salatu du.

Ze onura dakarkie gaixo psikikoei lanean hasteak?

Izugarria. Guk ikusten genuen gure semea ez zela etetik ateratzen eta ez zuela harremanik kanpoko jendearekin. Senideek pentsatu genuen motorrak konpontzeko tailer txiki bat jartzea. Handik gutxira gure semea kalera ateratzen hasi zen eta kapaz zen bizilagunei bere eguneroko martxari buruz hitz egiteko. Aurrerapauso ikaragarria izan zen hori. Lanean hasi zenetik, ez dugu berriro erietxean ingratsatu behar izan.

Orain 16 langileko enpresa duzue, ezta?

Autoetako bateriak birziklatzeko enpresa jarri genuen gero. Hasieran bi bateria baino ez genituen hartzen arratsalde baten, eta egun 25 tona jasotzen ditugu hileror. Orain, Debagoieneko tailer batzuk bisitatzen ari gara, gure

zerbitzuen berri emateko eta bezeroak lortzeko. Errauntsontziak ere egiten ditugu.


Instituzioen aldetik laguntza gutxi jasotzen dituzuela diozu.

Egia da hori. Gurekin jokiera egokia duen erakunde bakarra INEM da. Gizarte Segurantzza ordaintzen digu eta langile horiek erretiroa izango dutela bermatzen digu. Instituzioek komunikabideetan letra handiz jartzeko baino ez dituzte laguntzak agintzen, baina ez dira iristen. Ez laguntza ekonomikoak ezta gizarteratzeko laguntzak ere.

Oraindik ezkutatu egiten duten gaitza da?

Lehen baino gutxiago, baina bai, oraindik ere askok ezkutatu egiten dute etxeko edo senide batek buruko gaitza duela. Etxekoek onartzea ere kostatu egiten da eta batzuek ez dute ulertu nahi izaten. Baina denok sinetsi behar dugu gaixo psikikoak ez direla ezinduek, gauza bat edo

"Autoen bateriak birziklatzen ditugu eta eskualdeko tailerrak ikusten gabiltza"



Donostian bizi da egun Erramun Beltza.

O.E.

beste egiteko gai direla, eta hori indartu behar dugu

Estigmak daude oraindik?

Bai. Jendeak lehenengo sinismenekin jarraitzen du oraindik: erak direla, arriskutsuak... Baina

"Gutxiagok, baina oraindik askok ezkutatu egiten dute etxean gaixo psikikoa dutela"

inork ez du galdetzen nola lagun diezaiekegun pertsona horiei.

Zein da zuen eskaera?

Guk nahi duguna da langile horiek ere profesionalizatzea. Oso zaila zaie lana aurkitzea enpresetan, aukerarik ere ez zaie ematen eta langile onak dira. Enpresek dirulaguntzak jasotzen dituzte gutxitiak lanean hartzeko, baina denek ez dute betetzen, eta gainera, zerrendako azkenak gara gu. Erabat baztertuta dagoen sektorea da eta ez da justua.

eteo
ETEO, KOOP. E.

GOI MAILAKO LANBIDE HEZIKETA ZIKLOAK

ESKAINITAKO TITULUAK

IDAZKARITZA
ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK
NAZIOARTEKO MERKATARITZA
MERKATARITZA KUDEAKETA ETA MARKETINGA

AURREINSKRIPZIO EPEA:
ekainaren 1etik 7ra

AUTOBUS LINEA BERRIA (2 ibilbide):

- Azpeitia-Azkoitia-Elgoibar-Eibar-Oñati
- Zornotza-Durango-Elorrio-Oñati

MONDRAGON COOPERACION COOPERATIVA
HETEL Elkarte Kidea
CAJA LABORAL EUSKADIKO KUTXA

Larraña auzoa, 16 • 20560 OÑATI (Gipuzkoa)
Telefonoa: 943 71 80 09 • Fax: 943 71 81 62

informacion@eteo.mondragon.edu • www.eteo.mondragon.edu

Arizmendi Ikastolako LANBIDE HEZIKETA

Laborategiko teknikaria bihurtu

ANALISIA ETA KONTROLA eta INGURUMEN KIMIKA

Goi Mailako Heziketa Zikloak

- Analisi Fisiko eta Kimikoak
- Analisi Mikrobiologikoak
- Laborategiko saio anitzak
- Inguruko enpresetan praktikak

ESPEZIALITATE BERRIA

- Lur zoro kutsatuen trataera
- Ingurumen naturalaren birgaitze planak

902 11 20 25
Informa zaituz!

www.arizmendi.ikastola.net

Arizmendi ikastola
geurea, zeurea

BERGARA > ALDERDIEN LEGEA INDARGABETZEAREN ALDEKO MOZIOA

PSE-EEko zinegotziak mozioaren alde "nahigabe" bozkatu du

Mozioa EAJ-EAren, Aralarren, Ezker Batuaren eta PSE-EEren aldeko botoekin onartu zen

Gipuzkoako PSE-EEK dio Alderdien Legea ezinbesteko tresna dela

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA
Bergarako udaletxean osoko bilkura egin zuten astelehenean eta EAJk aurkeztutako mozio batek hautsak harrotu ditu.

EAJk adierazpen instituzionala aurkeztu zuen: Estatuko Gorteei eta Gobernuari eskatuz Alderdi Politikoen Legea indargabetzeko tramiteak hastea.

Adierazpen instituzionalak zera dio: "Batasuna eta ezker abertzaleko gainontzeko zerren-

dak legez kanpo lagatzeaz gain, legearen esku geratu dira bilera eta manifestazio batzuk egiteko baimenari buruz erabakitze legimitate eta eskumena"; gainera, milaka eta milaka lagun oinarritzko eskubiderik gabe dueda ere gogoratzen du.

Mozioa EAJ-EA, Aralar, Ezker Batua eta PSE-EEren aldeko botoekin onartu zen. PPko zinegotziak, berriz, aurkako botoa eman zuen.

AKATSA

PPko zinegotziaren erreakzioa ekarri zuen Francisco Javier Garai PSE-EEko zinegotziaren baieztokitoak. PPko Angel Santano zinegotziaren esanetan, "ez da ulergarria zinegotzi sozialista batek legea bertan behera uzteko eskatzea, bere alderdia denean Gorte Nagusietan lege hori bera indarrean sartzeko eskatu zutenetako bat".

Gipuzkoako PSE-EEko Udaltzikari Jose Morcillok gai horren inguruan esan du "Gipuzkoako PSE-EE Alderdien Legearen aldekoa dela, demokraziaren etsaien aurka borroka egiteko ezinbesteko tresna delako".

Alkatetari, bestalde, zera adierazi dio: "PSE-EEK Pablo Ibarren kasuari buruz aurkeztutako

mozioa onartzeko ahalegina egin behar zen osoko bilkuran. Ez gaitzertatik kanpoko mozio politiko bat aurkeztu".

Bergarako PSE-EEko egoitzatik argitu dute osoko bilkuran gertatua akats baten ondorioz izan zela; eta garbi utzi nahi dute nahigabe eman zuela mozio horren aldeko botoa Garaik.

EZKER ABERTZALEAREKIN BILERA

Gai horrek hautsak harrotu dituen bitartean, PSE-EEko idazkari nagusi Patxi Lopezek iragarri du ezker abertzalearekin bilera egingo duela, "beharrezko solaskidea delako aro politiko berria irekitzeko egindako apustuaren ostean". Gainera, beharrezkotzat jo du harremanetatik negoziatziora pasatzea.



Egueneko kontzentrazioa. A.L.

AITA MENNI

Eskariak bete arte jarraituko dute greban

Gaur arratsalderako manifestazioa deitu dute Arrasaten Aita Menniko langileek

I. A. > ARRASATE

Arrasateko Aita Menni ospitaleko langileak greban dira, maiatzaren 2az geroztik, lan baldintzak eta soldata hobek eskatzeko. Eguenean agerraldia egin zuten ospitale aurrean.

Langileen esanetan, "Aita Menniko langileen gehiengoak arlo publikoan lan bera egiten dutenek baino soldata baxuagoa jasotzen du: %23,5, hain zuzen ere".

Zuzendaritzak eskainitako lanaldi murrizketa zazpi ordukoa dela diote eta hori oso urrun dagoela 35 orduko lan astetik.

BALDINTZA DUINAK

Langileek zera diote: "Osasuna eskubide unibertsala denez, administrazioak bermatu behar ditu diru kontuak ez ezik, zerbitzua bera ere. Lantalde finko eta profesionalak nahi izanez gero, lan baldintza duinak izatea ezinbestekoa da".

Gaur, egubakoitza, manifestazioa egingo dute Arrasaten, 18:15ean, ELAko egoitzatik abiatuta.

Fagor Etxetresnak atalaren historia liburu batean jaso dute

Bilboko Fernando Molina historiagileak idatzitako *Fagor Electrodomesticos (1956-2006): Historia de una experiencia cooperativa* aurkeztu dute asteon. 50. urterreneko ekitaldien barruan egin zuten aurkezpena, eta bide batez *Aurrera Beti* ikus-entzuzkoa ere erakutsi zuten Amaia antzokian. DVD horretan, irudi historikoen eta lekukotasunen bidez enpresaren ibilbidearen berri ematen da. Egileaz gain, Fagorreko Errektore Kontseiluko presidente Javier Gantxegik eta Fagor Etxetresnak ataleko zuzendari Txema Gisasolak hartu zuten parte ekitaldian, besteak beste. Sinbolikoki, fundatzaile eta senideei liburu eta DVDa eman zizkieten.



DEIANE ARRIETA

ITYRRIETA

Sagardotegia – Erretegia



Ostegunetik igandera zabalik
(gainerako egunetan aurrez deituta)

- Sagardotegiko menu ezberdinak
- Karta
- Kazuelatxoak

Arraga auzoa
605 70 64 51 / 945 44 53 85

Zotz jatetxea

- Eguneko menua
- Ogitarakoak
- Hamarretakoak
- Menu bereziak egubakoitz eta zapatuetan

Igandeetan itxita



Zubillaga auzoa 1 / OÑATI 943 78 35 45



Garbiketetan profesionalak gara

www.hemen-garbiketak.com

Intxaurtxueta 16 behe
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 48 45
Faxa: 943 71 30 58

EKONOMIA > ARCELOR

Zenbait akziodunek ez dute onartu Severstalekin bat-egitea

Bergarako Labegarietako plantak badu plan industrialia, baina datozen bi urteotarako da bakarrik

UBANE MADERA > BERGARA
Egunotan Arcelorrek iragarri du Severstal konpainia errusiarraren fusioatzeko asmoa duela; atzo (eguna), aldiz, jakinarazi

zuten Arcelorreko akziodunen %20 ez daudela konforme fusioarekin eta eskatu dutela ezohiko batzarra egitea, ekainaren 28an; hain justu, Mittal Steelek eginiko EEP (OPA) onartu edo ez erabakitze azkenaurreko egunean.

BERGARAKO KASUA
Edozelan ere, ELAren esanetan, Arcelor eta Severstalen arteko operazioa "finantzarioa besterik ez da izango eta ez du zerikusirik izango langileen interesekin".
Labegarietara etorritik, ELAko ordezkari Jabier Garitanok

zera eman digu aditzera: "Legez, Mittalen EEPk aurrera segitzen du; guk hari eskatzen diogun gauza bakarra da plan industrialia izatea". Horren harira, kontatu digu Bergarako lantegian datozen bi urteotarako hitzarmena sinatuta dutela Arcelorrekin, "inbertsioak egiteko, gure lantegia lehiakorra izateko".

Dena den, gaineratu digu horrekin bakarrik ez dela salbatzen Bergarako lantegia. Hark aurrera egin dezan inbertsio gehiago beharko lukeela bi urteok bukatzen direnean.

kontsumoa




Urtean 55.000 lagun hiltzen dira Espainian tabakoarengatik. GOIENKARIA

Tabako lege berriarekin 500.000 erretzailek utziko diote erretzeari


IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

Asteon izan da Tabakorik Gabeko Munduko Eguna. Adituen esanetan, urtean 55.000 lagun hiltzen dira Espainian erretzearen bizioa dela eta. Osasunerako Mundu Erakundearen iritziz, kontsumo ohiturak bere horretan jarraituz gero, tabakoarengatik hildakoen kopurua bikoiztu egingo da munduan, 2020rako 10 milioi lagun izateraino. Baina Osasun Ministerioak uste du kopuru horrek behera egingo duela tabakoaren aurkako legearekin. Ministerioak iturriek diote 2006an 500.000 erretzailek lagako diotela erretzeari eta 60.000 nerabe ez dira erretzen hasiko. Ondorioz, tabakoarekin lotutako gaitzek jota hilko direnen kopuruak ere behera egingo du. Bestalde, jakinarazi dute erretzea debekatu duten lantoki eta taberna edo jatetxeetan partikulen %95 jaitsi dela eta nikotinaren %90. Legea indarrean ipini dutenetik 4.000 ikuskapen egin dituzte Espainian, legea betetzen den ala ez egiaztatzeko.



MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

nolako ikasketak,
halako etorkizuna



GOI ESKOLA POLITEKNIKOA	Arrasate	Goierri	
Lehen zikloa	ikasmaila	ikasmaila	ate irekiak:
- Mekanika Industri Ingeniaritza Teknikoa	1., 2. eta 3.	1., 2. eta 3.	ARRASATE:
- Industri Diseinuan Ingeniaritza Teknikoa	1., 2. eta 3.	1.	> ekainak 10,
- Industri Elektronika Ingeniaritza Teknikoa	1., 2. eta 3.	1.	Biteri Ikastetxe Nagusia
- Sistemen Informatika Ingeniaritza Teknikoa	1., 2. eta 3.	1.	
- Kudeaketa Informatika Ingeniaritza Teknikoa	1., 2. eta 3.	1.	
- Telekomunikazio Sistemetan Ingeniaritza Teknikoa	1., 2. eta 3.	1.	
- Telematika Ingeniaritza Teknikoa	1., 2. eta 3.	1.	
bigarren zikloa			
- Industri Ingeniaritza	4. eta 5.	-	
- Industri Antolakuntzan Ingeniaritza	1. eta 2.	-	
- Automatika eta Industri Elektronika Ingeniaritza	1. eta 2.	-	
- Informatika Ingeniaritza	4. eta 5.	-	
- Telekomunikazioetan Ingeniaritza	4. eta 5.	-	
ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA	Oñati	Bidasoa	
Lehen zikloa	ikasmaila	ikasmaila	
- Zuzendari Idazkaritza	1., 2. eta 3.		
- Enpresa Zientzietan Diplomatura. Ibilbideak:		1., 2. eta 3.	
- Nazioarteko Merkataritza			
- Enpresa Logistika eta Garraioa			
ziklo luzea			
- Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan Lizentziatura. Ibilbideak:	1., 2., 3., 4. eta 5.		
- Finantza Zuzendaritza			
- Merkataritza Zuzendaritza			
- Erakundeen Kudeaketa			
bigarren zikloa			
- Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan Lizentziatura. Ibilbideak:	3., 4. eta 5.		
- Finantza Zuzendaritza			
- Merkataritza Zuzendaritza			
- Erakundeen Kudeaketa			
- Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan Lizentziatura. Ibilbidea:		1. eta 2.	
- Enpresa Proiektuen Garapena			
HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA	Eskoriatza		
Lehen zikloa			
- Irakaslea. Haur Hezkuntza Espezialitatea			
- Irakaslea. Hezkuntza Berezia Espezialitatea			
- Irakaslea. Atzerriko Hizkuntza Espezialitatea			
- Irakaslea. Heziketa Fisikoa Espezialitatea			
- Irakaslea. Entzumen eta Mintzaira Espezialitatea (2. diplomatura soilik)			
- Irakaslea. Lehen Hezkuntza Espezialitatea (2. diplomatura soilik)			
ziklo luzea			
- Ikus-Entzunezko Komunikazioan Lizentziatura			
bigarren zikloa			
- Psikopedagogian Lizentziatura. Ibilbideak:			
- Hizkuntzen Psikopedagogia. On line eta aldika bertaratzekoa			
- Esku-Hartzeko Psikopedagogia. On line eta aldika bertaratzekoa			
- Giza Zientziak Lizentziatura. Ibilbideak:			
- Giza Zientziak Enpresari Aplikatuta			
- Giza Zientziak Informazio eta Komunikazioari Aplikatuta			

inskripzio epea
zabalik

943 71 21 85

www.mondragon.edu



Pantaila lauuko telebista gehiago saltzen dira

Aurten, pantaila lauuko bi milioi telebista aparailu salduko dituzte; eta ohiko telebista, berriz, 1,6 milioi. 1982ko Munduko Futbol Txapelketak bideo aparailuak erabiliak izan nahi du jendeak telebista aparailuak berriro eta, bide batez, lurreko telebista digitalerako deskodetzaileak ipin ditzan. Oraingoz Espainian gehien erosten den telebista aparailua, luzexka eta 32 hazbetekoa da.



Pila alkalinoen %1 baino ez da birziklatzen

Espainian urtean mila milioi pila alkalino kontsumitzen dira Pila Biltzaileen Elkartearen arabera. Horietatik %15 botatzen dira gaitako zabor ontzietara eta %1 besterik ez da birziklatzen. Gainontzeko pilak zaborte-gietara, hondakindegietara edo estoldetara botatzen dira. Kontuan hartu behar da oso kutsakorrek direla pila horiek. Izan ere, pila alkalino batek 175.000 litro ur kutsa ditzake, sei pertsonak bizitza guztian kontsumituko luketen kopurua, hain zuzen ere.

gure artekoak

IKUS-ENTZUN KOOPERATIBA > Urte askotako esperientziak eta akustikak eta ikus-entzunezkoen teknologiak bat egiten dute Arrasateko enpresa horretan. Hitzaren ulermen zehatza lortzea dute helburu.

Jose Antonio Villar

"Teknologia berria dugu akustika arazoetarako"

IRATI AGIRREAZALDEGI > ARRASATE
Hitzaren ulermen zehatza funtsezko den tokietako megafonia berezia instalatzean trebatu dira Ikus-Entzun kooperatiba osatzen duten hiru lagunak. Horretarako, erabakigarria den teknologia berria erabiltzen dute.

Nola sortu zenuten enpresa?

Lehen, megafonia kontuetan genbiltzan, eta teknologia berri bat sortu zen megafoniak zituen arazoak konpontzen dituen. Eta gure esparrua jaten zuenez, teknologia berriari heldu genion.

Zertan datza teknologia hori?

Akustika beti izan da gainditu gabeko irakasgaia. Egiten dira arkitektura aldetik eraikin ikusgarriak eta barruan ez da garbi entzuten. Teknologia horrek zutabe akustiko bakarrarekin megafonia aparailuak ordezkatzeko ditu; era digitalean soinuaren norabidea aukeratzeko da, entzulearengana zuzendu eta hitzaren ulergarritasuna bermatuta.

Non aplikatu duzue?

Batez ere elizetan: Bergaran, Santa Marinaran; Arrasaten, San Juan Bataiatzailean; Arantzazun; Eskoriatzan, San Pedron; Araban, Elosun; Derion; eta Algortan, Hirukoiztarretan (Tri-



Jose Villar, Jose Mari Garcia eta Jose Antonio Villar, lantegian.

IKUS-ENTZUN

FITXA TEKNIKOAK

> DENBORA

Eraikinaren eta konplexutasunaren arabera aldatzen da instalazio denbora; bi egun edo bi aste. Frogarako egun erdia nahikoa da.

> LEHIAKETA

Garapen Agentzien Euskal Elkartearen ideia berrien lehiaketan zortzi finalistetako bat izan da.

> INTERNET

www.ikus-entzun.com helbidean aurki daiteke enpresaren gaineko informazioa.

nitarioak). Elgetan Espaloian egin dugu instalazioa eta Bilboko metroan dihardugu.

Nondik ekartzen dituzue aparailuak?

Hollandan egin zen ikerketa eta baita aparailua ere. Gure ardura da instalatzea eta zutabea dagokion tokira egokitzea.

Etorkizunerako erronkak?

Tokiak aurrez egokitu behar dira akustikara eta proiektuak egitean kontuan har dezaten kontzientziaztea da erronka; bestela, guk konponduko dugu arazoa.

etxeke leihotik



Aitziber Aranburuzabla > Arrasate Irratiko arduraduna

Debagoiena, mundura zabaltzeko prestatuta?

Aurreko asteburuan Mundumira jaialdia izan zen bizi naizen herrian, Oñatin. Gustura ibili nintzen kalean, goizean, arratsaldean, zein gauean. Lagun batek esan zidan ez zitzaiola gustatu herriko txokorik politena karpa handi batekin estaltzea; herriko plaza dela-eta, bere ustez, herriaren erakusleihoa.

Praktikotasunetik begiratuta, ordea, nire ustez, dena gertu izatea ondo dago. Han zegoen-eta, non jan, non edan, non erosi... eta nire sorpresarako, KOMUN PUBLIKOAK!

Ez nabil, ez, komun berde eta mugikorren gainean, garai bateko ertzainen eraikina zeneko horretan jarritako komun publikoek baizik!

Mundumira jaialdiak Debagoiena mundura zabaltzea badu helburu, benetan eskertu nuen mundu guztiarentzako beharrezkoa den zerbitzua behingogatik kontuan hartzea. Ez dakit Mundumirak behartu dituen herriko arduradunak horretaz jabetzera; baina egia esan, bazen ordua!

Orain, gainontzeko udalei eskatuko nieke ereduari jarraitzeko eta txikiak badira ere, behar guztiei erreparatzeko, hauxe da eta gure bailara saltzeko modurik onena!

> **Portugal** herri azpigaratuzat nuen, behin han oporretan izan nintzen-ara arte. Bai, zera! Askodugu beraiengandik ikasteko! Komun publikoak, adibidez, herri txiki guztietan, dohainik eta GARBIAK, gainera!

> **Mundumira** aipatuta, BOLUNTARIO asko, gobernuz kanpoko erakunde eta gainontzeko elkartekoak lanean gogor eta gogoz dabiltzala ikusteko aukera izan genuen: bejondeiela!

"Bazen ordua behar txikiei erreparatzeko; komun publikoei, esaterako"

begi-bistan



Lehen jaunartzea (Elgeta) 2006/05/28

Argazkia: Eduardo Zubiaurre.
Testua: Irati Agirreazaldegia.

Adin bereko zortzi neska-mutil daude Elgetan eta seik egin dute aurten jaunartzea: Josu Mañari-kuak, Jon Ugarteburuk, Nahia Otxoak, Ibane Zubiaurrek, Maria Sarasuak eta Maialen Zubiaurrek.

Har ezazu parte:

Argazkia eta azalpentxoak bidali honako helbidera: goienkaria@goiena.com

izen propioak



Jose Luis Elkoro

ALKATE OHIA



Bingen de Pedro

PINTOREA



Pruden Gartzia

EUSKALTZAIN
URGAZLEA

Alkateak borrokan. Bergarako taldea trantsizioan 1975-1979 liburua kalera-
tu berri du Txema Urrutiak. Franco hiltzear zela biltzen hasi ziren hautetsi abertzaleen testigantza jaso du Urrutiak, tartean Jose Luis Elkoro garai hartako Bergarako alkatearena.

Dulces ojos izenburupean Bingen de Pedro margolari bergararrak erakusketa ipini du Gasteizko Felisa Navarro galerian (Zerkabarren 2). Hala, 20 margolan ikusi ahal izango dira, iaz eta aurten margotutakoak. Hilaren 22 arte egongo dira ikusgai.

Euskaltzaindiak 35 euskaltzain urgazle berri izendatu ditu. Horien artean Pruden Gartzia, Euskaltzaindiaren Azkue Liburutegi-ko zuzendari oñatiarra; eta Eneko Oregi Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen Itzulpen Zerbitzuko buru bergararra.

Maiatzaren 25ean pasa dira hiru urte azken udal eta foru hauteskundeak egin zituztela. 225 herri plataforma legez kanporatu zituzten eta 472 hauteskondeak egin zituztela. horietako 21 Debagoiengan. Hiru urte hauetako balantzeaz, egungo egoeraz eta datozen hilabetei buruz galdetu diogu Marijo Altuberi, Oñatiko Ereitten herri plataformako kideari.

Marijo Altube > Ereitten herri plataforma

"Legez ere posible da apartheid egoera gainditzea, borondatea da falta dena"

OIHANA ELORTZA > OÑATI

Azken hiru urteetako balorazio ezkorra egiten du Marijo Altube Oñatiko Ereitten herri plataformako ordezkariak, "gainerako alderdi politikoak euren etekin pertsonal zein alderdikoak aurrera eramaten saiatu direlako eta hitzez soilik agertu direlako Alderdien Legearen aurka".

Zeintzuk dira balorazio ezkor horren adibideak eskualdean?

AHTren inposaketa, hiltegiarekin Mankomunitateak izan duen jokaera, zergen igoera, Udalatx harrobiaren inguruko jarraera hertsia, Bergarako kirol eta kultura azpiegitura falta, Lourdes Idoiaga izendatzea Oñatiko alkate, Elgetako alkatearen arduragabekeria batzordeetara ez delako joaten eta Eskoriatzan autobidearen inguruan sortutako afera, besteak beste.

Zeren falta ikusi duzue hiru urte hauetan udal politikan eta nazio politikan?

Defizit demokratikoa. Gainera, konpondu beharreko defizita da, alderdi guztiek baldintza bere-tan jokatzeko.

Horrez gain, kolore bakarreko gobernuak jasan beharra. Eta horren ondorioa da etorkizunari begira instituzio gaixoak ditugula, normalizazioa lortzeko zailtasunak bizi izango dituztenak.

Zuen karguak hartu zituztenen dimisioak eskatzen duzue; batzuek dimititu egin dute eta beste batzuek uko egin diete kargu horiei.

Orokorrean 100 hautetsi baino gehiagok egin diete uko ez zegozkien karguei. Gu gure oinarriko eskubidea aldarrikatzen ari gara, horixe bakarrik. Eta hori posible da, baita legea aplikatuta ere. Ekimen praktikoak eskatzen ditugu guk, hitzak haizeak eramaten dituelako. Azken udal zein foru hauteskundeetan 200 herri plataforma utzi zituzten legez kanpo, 170.000 euskaldunon hitza bahitu zuten, eta hori onartezina da. Eta egoera honek ezin du gehiago itxaron, ez da datozen hauteskundeetan konpontzeko gaia.

Jendearen eta gainerako alderdien aldetik ze erantzun jaso duzue? Egoerara ohitu dira edo ezagutzen dute zein den benetako egoera?

Herritar askok barneratuta dute egoera, beste batzuk gai kon-



Legez kanpo gelditu ziren Oñatiko lau hautsietako bat da Marijo Altube.

O.E.

ONDORIOA

"Defizit demokratikoa egon da eta instituzioek zaila izango dute normalizazioa lortzea"

PARTE-HARTZEA UDALETAN

"Gure programetako proposamenak planteatzen jarraitzen dugu udal gobernuetan"

ILEGALIZAZIOAZ

"Denok dakigu PSOEk presioak dituela, baina ausart jokatzeko obligazioa dauka"

Ze iritzi duzue parte-hartze horri buruz? Beste zein formula eskatzen duzue?

Partxe bat baino ez da, joko horrekin dabilta, herriaren aurrean erakusten duten jokiera justifikatzea oso zaila egiten zaielako. Beste formula da legea betez, 182.2 artikulua aplikatzea. Baina hemen falta dena da borondate politikoa apartheid eta ilegalizazio egoera antidemokratiko hau konpontzeko.

Nola ikusten duzu egungo egoera politikoa?

Ilusio handiz bizi dut, baina eguneroko errealitatea oztopoz eta trabaz beteta dagoela ere ikusten dut: Ertzaintzaren errepresioa, ezker abertzalearen kideen aurkako fidantza eskandalagarriak, 18/98 epaiketa eta preso politikoei daramaten politika, esaterako. Eta eraso horiek orain gelditu behar dute prozesuak aurrera egitea gura badugu. Horrela bada, prozesuak etorkizun baikorra duela uste dut.

Zein da hurrengo pausoa?

Lehen urratsak egitea alderdien mahaiaren osaketan.

Noiz arte jarraituko du ilegalizazioak PSOErekin?

Laster amaitzea gura dut, euskal gizartearen gehiengoak bezala. Denok dakigu PSOEk presioak dituela, baina ausart jokatzeko obligazioa du. Ez da guztiz *kafkianoa* PSOE prest egotea ETArekin hitz egitera esertzeko eta Batasunarekin hitz egitea ukatzea eta horren ordez Auzitegi Nazionalera deitzea agerraldi publiko bategatik?

Urtebete barru, udal hauteskundeak. Hasi da kanpaina?

Batzuk hasi dira dagoeneko, kanpainak ez dute etenik horien dako eta. Baina egoera guztiek amaiera izaten dute eta orain ere gure herriak bakoitza merezi dugun lekuan jarriko gaitu. Ziur izan datozen udal eta foru hauteskundeetan ezker abertzalea egongo dela.



zabalik

Mikel Lizarralde

Bob Dylan eta bake prozesua

Tripako mina ematen dute politikariek, bereak ez diren uretan sartzen direnean. Tripako mina, botatzen dituzten esaldi askok eta askok. Are tripako min handiagoa ezjakintasunetik topikoak bata bestearen atzetik pilatzen dituztenean. Hori gertatzen da, esaterako, ikono bihurtu diren musikariren gainean hizketan hasten direnean. Topiko horien arabera, John Lennon jenio bakezale bat izan zen, Jim Morrison espiritu autosuntsiztaile bat, eta Janis Joplin mugimendu hippyaren ikur nagusia. Besterik ez. Horien atzean zer dagoen nekez asmatuko dugu alferrikako hitz horien artean.

Azkena aurreko astean bota zuten. Bob Dylan dator Euskal Herri-
ra, zer eta "bake prozesua blindatu-
ko duen kontzertua" ematera. *Blowing in the wind*, *The times they are a-changing* eta beste hainbat himnoren egilea, "bakearen aldeko kontzertuan" izango da. 600.000 euroko kostua omen duen bakearen aldeko kontzertuan. Jakinda Dylanek nola gorrotatzen duen bere izena interes politikoen arabera erabiltzea —argigarriak dira berak idatzitako kronikak—, jakin nahiko nuke nola kontzertuaren parte hartzeko.

Iritsiko da uztailearen 11 eta Dylan azken urteotan behin baino gehiagotan Euskal Herriratu dela ahaztuta —oharkabean pasa dira kontzertu horiek orain kantaria aldareetara igo nahi dutenentzat—, mila-lagun joango da Zurriolara. Batzuk bakearen aldeko kontzertua dela sinistuta; beste batzuk su artifizialak ikustera joaten diren bezala, eta gutxi batzuk kontzertuaz gozatzera. Eta jakina, batzuk "prozesua blindatzen". Eskerrak Bob Dylanek ez dituen bere kontzertuak blindatzen. Eta eszenatokian nahi duena egiten duen. Inork ezagutzen ez dituen kantuak jo, adibidez. Edota abesti hiperfamatuak desitxuratu. Eskerrak ez den topikoaren atzean ezkututzen.

"Tripako mina ematen dute politikariek, bereak ez diren uretan sartzen direnean"

"Jakin nahiko nuke nola kontzertuaren parte hartzeko"

MUNDIMIRA ETA
ERDI AROKO AZOKA

Arrasateko irakurle batek, Joxemari Muxikak, zera galdetu digu: "Azken aste hauetan Erdi Aroko Azoka Arrasaten eta Mundumira Oñatin ospatu berriak ditugu. Herritarrak galdezka sailean irakurleoi ematen zaigun aukeraz baliatu nahi nuke zenbateko diru kostua izan duten bai Erdi Aroko Azokak eta baita Mundumira ekitaldiak ere jakiteko?"

Mundumiraren gaineko erantzunaren bila Ernesto Murgiondo Oñatiko Kultura zinegotzi eta Debagoieneko Mankomunitatean kultura kontuek arduratzen denarengana jo dugu. Hark esan digunez aurtengo Mundumira jaiaren aurrekontua izan da 150.000 eurokoa. Horietatik, erakunde publikoek, hau da, Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta ibarreko udalek, ipini dute bi heren. Zati horretatik, %60-edo, hau da 61.000 euro Debagoieneko Mankomunitateak ipini du. Horixe da hemengooi Mundumira jaiak kostatu zaiguna. Gainerakoa (%33), ibarreko eta ibarretik kanpoko

herritarrak galdezka

enpresa babesleen artean bete da. Jaiaren beste antolatzaileak, *Euskal Herria* aldizkariak, ez du dirurik ipini, zuzenean, eta arduratu da batez ere komunikazio kontuaz, iragarkiez, promozioaz... Mundumira jaiak batik bat asteburuan, egubakoitzetik domekara bitartean, egin bada ere, aurreko asteetan ere hainbat ekitaldi (erakusketak-eta) egin dituzte ibarreko herrietan barrena. Ernesto Murgiondok

esan digunez oso gustura daude aurtengo emaitzarekin, bigarren urtea izanda jaiak finkatu egin delako eta iazko akatsetatik ikasi eta gauzak hobeto egiteko astia hartu dutelako. Debagoieneko kultura arduradunak esan digu datorren urtean ere egiteko asmoa dutela, baina oraindik erabaki barik dutela non egingo duten.

Bestalde, Arrasaten orain dela bi aste egin zen Erdi Aroko Azokaren kostuaren gaineko erantzuna jakiteko antolatzailearengana, Arrasateko Udalarengana, jo dugu. Hango Kultura Sailean esan digute aurtengo Erdi Aroko Azoka antolatzeko 23.000 euro ordaindu dizkiotela Kataluniako Pegasus enpresari. Horrez gain, publizitate, jantzien alokairu, kartel, inprenta eta bestelakoetan, beste 15.000 euro gastatu dituztela. Guztira, 38.000 euroko aurrekontua izan du Erdi Aroko Feriak. Aurtengo iazkoa baino 5.000 euro gehiago kostatu zaio Arrasateko Udalari. Oraindik ez dute esan datorren urtean antolatu-ko duten edo ez; hala ere, litekeena da berriro antolatzea.

Galdera egiteko:

Zerbaitetaz arduratuta bazaude eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, bidaliguz galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagoionarekin. Galdera egiteko bideak:

- Telefonoz: 943 25 05 01
- Faxez: 943 25 05 13
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

marraskiz

Alex Ugalde



Goienkaria

Argiriratzaila Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteak • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
Lehendakaria Estepan Plazaola Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate Erredaktore burua Leire Kortabarría Saiiletako arduradunak Ubane Madera (Herriak), Edu Mendibil (G2a), Iñaki Iturbe (Diseinua), Gotzon Arzelus (Publizitatea) Erredakzioa Iker Barandiaran, Mirari Altube, Xabi Urtzelai, Oihana Elortza, Aintzane Irizar, Irati Agirreazaldgi Oinarriko diseinua Goio Arana Maketazioa Alex Azkarate Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundinano, Natali Martínez, Ziortza Martín, Imanol Elortza, Itxaso Berezibar Testuen zuzenketa Sergio Azkarate Harpidetza eta banaketa Marta Leturia Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA

BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • 132 posta-kutxatila • Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABALETA 20550 Durana 11 • 151 posta-kutxatila • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000 • ISSN: 1577-1210 • Tirada: 19.155 ale • Difusioa: 18.629 ale.



OID erakundeak
ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK



Eusko
Jaurlaritzak



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Bergarako
Udala



Oñatiko
Udala



Aretxabaleto
Udala



Eskoriatzako
Udala



Antzuolako
Udala



Aramaioko
Udala



Elgetako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala

Errepideko arriskuak

Gorka Bikuña

www.goiena.net/blogak/gorka

Gaur bizikletan buelta bat ematera irten dut, egiten zuen eguraldi bikaina aprobetxatuz. Oñatitik Maltzagara joan etorria egin dut.

Plaentxiko saihesbidean gora nindoala, justu 3 karriletik 2ra pasatzen den puntuan 2 kotxe ziztu bizian pasatu dira bata bestearen atzetik, lasterketa bat egiten ari zirela ematen zuen. Hartu dudana

sustoa galanta izan da, bide ertzetik nindoan, eta ez da ezer gertatu, baina edozer gauza gerta zitekeen. Nik beti eramaten dut kaskoa, baina halakoetan zertarako balioko luke?

Gero Maltzagako biribile-
ra heltzean 2 ertzain auto, eta beraien jabeak ikusi ditut, lasai asko autoen kanpoan barriketan. Maltzagan ere halako bizkor pasatu ote dira?

Ea ikasten dugun autoa eramaten dugun guztiok abiadura zaintzen, batez ere txirrindulariak dabiltzanean errepidetan.

Redondo Terreros ez da mileurista

Mikel Iturria

www.eibar.org/blogak/iturri

Bloglines.com biltzaileari esker, jakin dut Redondo Terreros politikari ohia fitxatu duela Esther Koplowitz dirudunak kontrolatu berri duen enpresa bateko kontseilari gisa. Eta nondik jaso dut berria? EAJko senatari den Anasagastiren blogetik. (...) Anasagastik dio 100 milioi

plazara

Ondo aukeratu zuen abertzaleen gehiengoak diktadura ondorengo lehen urteetan aukeratu zuen bidea? Galdera horri erantzuten dio EAko ordezkariak: "Erabakia hartu zuten abertzaleek, erantzukizunez betetako erabaki historikoa hartu zuten, oztopoak oztopo, erasoak eraso, gabeziak gabezi eta akatsak akats, bere fruituak eman dituen eta nazio eraikuntzan izugarri lagungarri izan dena".

Iñaki Galdos *

Iraganeko ikasgaiak denbora berrietarako

Bakearen bidean murgiltzen ari garen neurrian eta, besteak beste, biktimen, preso, su-etenaren egiaztapenen gaiak konponbidean jartzten ditugun bitartean, badirudi bestelako interferentziarik gabeko politikaren garaia iritsi zaigula azkenean.

Eta normalizazio politikoa lor dezagun lagungarri izan daite(z)keen mahaia(k) osatzen d(ir)en bitartean, gero eta nabariago geratzen ari da bi direla alderdien eta gainerako eragileen artean eztabaidatuko diren gai nagusiak. Lehenengoa, erabakitzeko eskubidea eta eskubide honen gauzatzea izango da, inolako zalantzarik gabe.

Bigarrena, azken asteetan berrindartzen ari den gaia da, abertzaleen arteko aspaldiko dialektikan berriz murgilduko gaituena. Laburbilduz, galdera bati erantzun behar zaio eztabaida honen muinera jo nahi badugu: ondo aukeratu ote zuen abertzaleen gehiengoak diktadura ondorengo lehen urteetan aukeratu zuen bidea?

Su-etena iragarri zenetik, ezker abertzaleko ordezkariak etengabe ari dira aldarrikatzen porrota izan dela ordutik honako ibilbidea Euskal Herrian, izugarriko lardaskeria egin zela orduan, nazio eraikuntzan ezer lagundu ez duena.

Oso bestelakoa da nire iritzia. Niri iritiz, aurreko mendeko 70. hamarkadako bukaeran bide hura jorrazteko erabakia hartu zuten abertzaleek, erantzukizunez betetako erabaki historikoa hartu zuten, oztopoak oztopo, erasoak eraso, gabeziak gabezi



MIKEL ARROIABE

eta akatsak akats, bere fruituak eman dituen eta nazio eraikuntzan izugarri lagungarri izan dena.

Gogora dezagun nola zeuden gure herriak, gure errepideak, gure hizkuntza, gure ekonomia, gure gizartea... garai haietan. Gogora dezagun garai hartako espainiar militarren jarrera... Zuhurtziaz, errealismoz jokatu behar zen, premiazkoena zer zen kontuan hartuta. Eta hala izan zen. Horrela ekin zitzaion hiru hamarkada inguru iraun dituen ibilbideari.

Bide hura aukeratu zutenek garbi adierazi zuten, abertzale gisa, ez zela hura azken geltokia, ez zituela eredu hark guztiz ase-

"Ibilbide honen fruituak ukatzen dituen norberaren estrategiaren porrota ezkututzen saiatzen ari da"

"Gehiengoak arnasa lasai hartzen dugu orain hamarkada batzuk gutxiengo batek hartu nahi zuen bidea, hartu ez genuelako"

betetzen, jabetzen zirela gabeziez. Horregatik esaten zuten beti jarraituko zutela lanean burujabetasuna eta lurraldetasuna lortu arte. Baina nazioa borroka armatuaren bidez, Europa osoan porrotaren bidean zihoazen eredu marxista-leninisten bidez... eraiki nahi zuten haien parean, bazegoela nazioa eraikitzeke beste modu bat, eguneroko herrigintzaren bidez euskal erakundeak berreskuratuz, euskal komunikabideak sortuz, euskal unibertsitatea sortuz...

Ibilbide honen fruituak ukatzen dituen norberaren strategiaren porrota ezkututzen saiatzen ari dela iruditzen zait niri. Garai berri eta itxaropentsuetan sartu garen honetan, duela hogeita hamar urte ez bezala, denok bide berdina hartzea nahi nuke nik, baina beldur naiz orduko bidegurutze berdintsuan jarri nahiko gaituztela zenbaitzuek.

Horregatik uste dut garrantzitsua dela, noizean behin bada ere, historia berrikustea, hementekak irakurtzea, esperientziekin ikastea. Eta uste dut, gehiengo zabalak ondo baino hobeto ikasi duela. Gehiengo zabalak, urrats berriak eman nahi dituela nazio eraikuntzan, benetako herri batu eta askea lortu arte, baina harro dagoela egindako ibilbidearekin. Eta arnasa lasai hartzen duela orain hamarkada batzuk gutxiengo batek hartu nahi zuen bide hura, zuzenean amildegira generamatzana, hartu ez genuelako.

* Gipuzkoako Eusko Alkartasuneko presidentea

zer deritzozu?

www.goiena.net

Dopinik erabiltzen da ziklismoan?

BAI	%100
EZ	%0

> BETI EGON DA DOPINGA
Dopinga betidanik egon da kirol guztietan, ez bakarrik txirrindularitzan. Gertatzen dena da txirrindularitza erresistentzi kirol bat dela eta dopinga baliagarriagoa izan daitekeela lasterketetan emaitza hobekoak lortzeko.
Basobaltz

> AMATEURRAK ERE BAI
Aspaldi esan zidan gazteen mailan ez zirela txirrindulari batek makarroiak janda bakarrik ezin zirela mendiko portuak igo. Eta orain jakin dut afizionatu askok hartzen duela hau eta hori, Quebrantahuesos proba egiteko adibidez. Ni, badaezpada, ez noa bizikleta gainean jartzera, irabazteko grina sartuko zait igual eta.
Oinezkoa

> DOPATZEN EZ DENIK EZ
Txirrindulari gutxi izango dira dopatzen ez direnak. Ez bakarrik txirrindulariak, beste kirol batzuetan ere bai, batez ere bakarkako kirolekoak.
Merx

HURRENGO GALDERA: Borondaterik badago euskal gatazka konpontzeko?

Eman zure iritzia www.goiena.net atarian. Datorren astean argitaratuko ditugu hemen erantzun interesgarrienak.

- top

pezeta jasoko dituela hilean. Akatsa izango dela uste dut eta soldata hori urtekoa izango da. Sindikalista baten seme izateko ez dago txarto.

Lerro hauek idatzi ondoren mileurista kontzeptua etorri zait burura. Hau da, 30 urte inguruko unibertsitario prestatuak, hilean 1000 euro jasotzeko larri dabilzanak.

Kalkulagailua zabaldu dut ordenagailuaren pantailan: 600.000 euro zati 365 egun berdin 1643,83 euro gordin.

Beraz, Nicolasin-ek eguneroko gazte askok bi hilabetetan jasoko ez duten dirua eramango du etxera.

Blogak eta esklusibak

Imanol Murua Uria
www.berria.info/blogak/imanol

Blogetan peskizan jardunez jabetu ginen, atzo, EAJ bart gauean Aberri Batzarra egitekoa zela, alderdi jeltzaleak ez baitu aurrez batzar orokor hauen berririk ematen.

Eta arrasto horri jarraituta jakin genuen Montenegro zorientzeko ebazpena onartu zuela batzarrak (bide tradizionalagoen bidez, ez blogen

bitartez). Gaur prentsari errepassoa egin, eta beste inork batzar horren berririk ez duela eman ohartu naiz. Ezta *Deia*-k ere!

Huskeria bat da, badakit, baina interesgarria akaso, blogintzaren aztertzaileontzat.

Adierazpenaren mami osoaren berri gaur izan dugu, prentsa oharra bidali baitigute. "Autodeterminazio eskubidea ez da negoziagarria", dio EAJren batzarrak aho batez onartutako testuak.

Arabako ordezkariak proposatu zuten. Zeinek sartu dio gola zeini?

koplak

Juan Mari Narbaiza

Jaiak, denondako egun alaiak

Urtean zehar izaten dira une latz eta estuak baina lasaitu gaitzen jada iritxi dira Pazkuak.

Bitorianatxo jaitsi ondoren herriko festa egunak aldi berean ahaztu gabe bertan falta zaizkigunak.

Zertan ta zertaz goza daitekeen bakoitzak berak pentsatu eta aukeran dagoenetik oraintxe aprobeztatu.

Kantu ta kontu, salto nahiz dantza hainbat jira herriari umore ona degularikan festazaleen gidari.

Lau-bost egunez izango gara juergasmoaren bezero une honetaz goza dezagun eta gerokoak gero.

Atal hontako irakurlea zuri nahi dizut igorri ondo pasatu nahia baduzu Bergararaino etorri.

Selektibitatea ez!

Ane Mendikute (Ikasle Abertzaleak)
Bergara

Ekainaren 7, 8 eta 9an arrotza bezain krudela den selektibitatea egiten aurkituko dira ikasle asko. Froga bortitz hau euskal ikasleon eskubideen zapaltzaile zuzena du. Kurtsoan zehar errepikatzen den zapalkuntza-aren gailurra, irakasleentzako aitzakia paregabea. Euskal ikasleok gure borondatearen aurka pasa beharreko froga.

Euskal ikasleon desnazionalizazio prozesuan, selektibitateak berebiziko papera jokatu du. Finean, espainiar hezkuntza bere betekizuna bete duen frogatzeko azken aukera da. Espainiar hizkuntza eta literatura, espainiar historia... ongi ikasi ditugun frogatzen dute hezkuntza agintariek selektibitatearen bidez, eta jakin ezean unibertsitateara joateko ateak ixten dizkigute. Selektibitatea, beraz, espainiar curriculumaren bitartekoa da; espainiar curriculumaren inspektzio zorrotza, hain zuzen ere.

Ikuspegi pedagogiko batetik aztertuz gero, selektibitatea azterketa sistemaren adibiderik larriena da: batxilergo osoan ikasitakoa hiru egunetan frogatzea exijitzen baitigute, eta hori ezinezkoa da. Urte osoko lana kontuan izan beharrean, azken eguneko memorizatzeko gaitasuna hartzen dute aintzakotzat, klaseko parte-hartzea, ikasleon kritikotasuna edota sormena bezalako gaitasunak erabat alboratuz. Eta honek traba selektibo bat dakar berarekin, unibertsitateko ikasketak burutzeko ikasleentzako sailkapena egiten baitu. Hiru egunetan burututako 8 azterketetan ateratzen dugun notaren arabera sailkatuko gaituzte, eta

Kolore guztiak

Carmelo Perez (Ezker Batua-Berdeak Udal Taldea) > Oñati

Euskal eskola publikoa da edonori hezkuntzarako eskubidea bermatzen dion eskola-eskaintza bakarra. Euskal eskola publiko horretan, gainera, kolore guztiak, ideia, erlijio eta kultura guztiak dute euren lekua. Era berean, gure herrialdea benetan lotzen duen eskola bakarra da, bai eta bazterketarik onartzen ez duen bakarra eta familien jatorriari zein aukera ekonomikoei garrantzirik ematen ez dien bakarra ere. Beraz, familia-errenta apalenak euskal eskola publikoan daude, hezkuntzaren doakotasuna bermatzen dien bakarra da-eta.

Itunpeko eskola pribatuaren ereduaren ondorioz, administrazio publikoak guztiok ordaintzen ditugun baliabide ekonomiko asko eta asko erabili behar ditu. Horiek horrela, itunpeko hezkuntza pribatua diruz lagunduta dago ehuneko ehuneko, biztanle guztientzako izan ez arren. Eskola pribatuari emandako baliabide publikoen zati bat eskola publikoan erabiliko balitz, eskola publiko ikaragarri hobetuko litzateke eta kalitate hobekoa izango litzateke.

Kalitateko eskola publikoaren aldeko apustua egiten dugu eta azpimarratunahi dugueuskal eskola publikoa euskalduna dela. Beraz, tresna onena da, euskarak bizirik eta aberastuta irauteko eta euskara guztion eskura egoteko.

Hori guztiori dela eta, igandean elkartzeko gara Oñatin.

honen arabera karrera bat edo beste ikasteko aukera izango dugu. Hiru eguneko azterketa baten ondorioz ikasle andana goi mailako hezkuntzatik at gelditzen da.

Hau da ikasle eta abertzaleok selektibitateari egiten dizkiogun kritikak: selektibitatea euskal ikasleok eduki arrotzak barnaritzen ditugula ziurtatzeko bitartekoa da. Selektibitatea azterketa sistema basatiaren adierazpide gorena da. Selektibitatearen bidez, euskal ikasleon sailkapen injustua gauzatzen da. Selektibitatea traba administratibo eta politikoa bilakatzen da Euskal Herri osoan zehar ikasi ahal izateko. Unibertsitateetara sartzeko hautaprobak desagerrarazi behar dira.

Lau ikuspegi desberdinetatik aztertuta, beraz, selektibitatea espainiar hezkuntza sistema arrotz, inposatu, ez demokratiko eta autoritarioaren froga garbiena da. Hau guztiagatik, euskal ikasleok ezin gaitzake geldi geratu.

Euskal curriculumaren eraikuntzan une historikoa bizi dugun honetan, inoiz baino ozenago euskal curriculumaren beharra aldarrikatu behar dugu euskal ikasleok. Ze aukera aproposagorik espainiar curriculumaren inspektzio zorrotza burutzen denean baino? Euskal ikasleria euskal curriculum baten alde, traba selektiborik gabeko hezkuntza baten alde, balore aurrerakoietan eta ikasleentzako parte-hartzean oinarri-

tutako hezkuntza baten alde atera behar da kalera. Finean gureak diren eta salgai ez dauden eskubideen alde!

Gure borondatearen aurka egitera derrigortzen gaituzten azterketa honi ez garbi bat esaten diogu. Krudela, atzerakoia eta arrotza delako, gure eskubideak era zuzen batean zapaltzen dituelako, selektibitateari ez! Ikasleon eskubideak era zuzen batean zanpatzen dituelako, selektibitateari ez!

Kudeaketa desegokia

Francisco Javier Garai
(Bergarako Udal Talde Sozialista)
Bergara

Azkeneko hamarkadan (1996-2006) eraiki dira Bergaran 1.332 etxebizitza. Etxe berri horietatik %8 ere ez da Babes Ofizialekoa. Hirigintzako arautegiak %25ean ezartzen du kopurua. Argi dagoenez, oso urrun gaude. Azkeneko hamar urteetan gure herria eraikuntza enpresa pribatuaren esku egon da batez ere. Hori dela-eta, bizilagun askok ezin dituzte ordaindu etxeengatik eskatzen dituzten prezioak. Adibide argi bat dugu Ibargarai eta Martzial Agirre kalean eraiki diren 90 etxeak. Edota Ibargarai-Zurraderon egin diren 141ak. Edota Oxiron-doko 86 etxeak, Santa Marina aldean. Kale hauetan ez dira eraiki babes ofizialeko etxe bat bera ere. Argi dago, hortaz, zein den oraingo gobernu kideek duten konpromisoa babes ofizialeko etxeekin: bat ere ez.

Bergarako Udaleko hiruko gobernuak birkalifikazio guratsuen aldeko apustua egin du, landako lurra hiri lurzoru edo lurzoru urbanizagarri

bihurtu nahirik. Honela, hiriaren erdian luxuzko etxeak eraikitzea bultzatu nahi dute eta, aldi berean, babestutako etxebizitzekiko asmo eskasak erakusten dihardute, etxe hauek landa lurretan egin nahi dituztelako.

Oraingo Udaleko gobernu taldeari esker, gure herri industrialia herri logela baten bihurtu da. Ez dute saiakerarik egin industriak gure herritik kanpo joan ez daitezen. Saltoki txikiak, auzoetako batez ere, merkataritza gune handien presioa ezin izan dute gaituzte. Hiriburuekin eta Euskadiko beste herri batzuekin lotzeko garraio publiko eskasa da benetan. Kultur ekintzak ez daude, ez gazteentzako eta ez helduentzako ere. Urte eta erdi igaro da Novedades zinea itxi zutenetik. Kultur eta astialdi jarduerak, etorkizuneko asmoak baino ez dira. Oraindik ez dakigu noizko izango ditugun Zabalotegiko aretoa edo Seminarioko auditorioa. Eta, bien bitartean, herriko taldeen proposamenak ez dituzte aintzat hartzen.

Bertan ditugu Mendekoste jaiak eta aurten ere festetako egitarauak ez du inolako erakargarritasunik Bergarako herritarrendako. Gobernu taldeak ez du beste ideiarik ez badira txarangak, txistularien kalejirak, Bideberri aldean gauean sortuko den zaratak, pilota partiduak eta txikiendako jolas batzuk. Gainera, oraingo urtean ere, eta badaramagu urte bi, ez da zezen jairik izango, gure herrira horrenbeste jende erakarri duen ekitaldia izan arren. Hauxe da, hortaz, jai egitarauaren berrikuntza nagusi eta bakarrenetakoa. Osterantzean, originaltasunik ez duen jai egitaraua egin digute, bergararrak erakartzen ez duena.

IRAKURLEAREN GUTUNAK Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Barrenkalea 33
20570 BERGARA



Telefonoa:
943 25 05 01



Faxa:
943 25 05 13



Posta elektronikoa:
goienkaria@goiena.com

Ekainaren 5a:
089 zozketa

ASTELEHENEN GOIENKARIA
Harpidedunen

txokoa

Sariak astero!

Astelehenean, ekainak 5, sari hauek izen-abizenak izango dituzte.
Zeu izan zaitezke sari hauen irabazle eta bat!

088 zozketako saridunak



Juan Jose Regodesebes
Arrasate
SARIA:
ecron mikro-kate bat

ELGETAKO ESPALDIA KAFE ANTZOKIAN izango den moda desfileko bi gonbidapen (Eskola Publikoaren Festaren alde)

- Andoni Retes Bardegi (Bergara)

Sei gonbidapen **EIBAR-LEVANTE futbol partidurako (bakoitzari bi)**.

- Iñaki Narbaiza Aldai (Bergara)
- Juan Ignacio Alkorta Gorosabel (Oñati)
- Alfonso Billar Biteri (Arrasate)
- Begoña Arenaza Bengoa (Aretxabaleta)
- Alejandro Cristobal Sanchez (Elgeta)
- Rosa Urreta Iza (Gatzaga)

089 zozketako sariak

- Bi gonbidapen **FLORIDA-GURIDI** zinemetara joateko eta beste bi gonbidapen Gasteizko San Prudentzio kaleko **BOCATTAN** bi menu jateko (saridun bakoitzari bina emango zaizkio).

- Bi gonbidapen **Donostiako AQUARIUMa** bisitatzeko.

(Saridun bakoitzari bi emango zaizkio).



Baldintzak

- Asteleheneko Goienkaria-ko harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidedun saila jarriko da harremanetan.




Harpidedun egiteko:

902 36 38 51
09:00etatik 18:30era.

Harpidedun kuota:

24 euro
2006 bukaera arte

Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa



ARIZMENDI IKASTOLAKO LANBIDE HEZIKETA Lan egiteko benetako aukera

aurrematrikula zaitez ekainaren 1etik 7ra

ERDI MAILAKO ZIKLOAK

- Erizaintzarako Laguntza Osagarriak
- Arreta Soziosanitarioa

GOI MAILAKO ZIKLOAK

- Ingurumen Kimika
- Analisia eta Kontrola
- Eraikuntzako Proiektuen Garapena eta Aplikazioa
- Kirolaren eta Ekintza Fisikoaren Animazioa

Informa zaitez!
902 11 20 25

A
Arizmendi ikastola
geurea, zeurea

www.arizmendi.ikastola.net

ALMACENES ARRASATE



FAGOR, ASPES, EDESA eta SANYO etxetresnetan sekulako eskaintzak!
Orain erosi, eta ordaindu sei hilabeteetan interes barik.



BERMEA
2 URTE

1.460 X
550 X
590 mm

B

HOZKAILUA 2FA255

282 €46.914 pta



BERMEA
2 URTE

1.850 X
598 X
590 mm

B

HOZKAILUA COMBI 4FAC495

400 €66.545 pta



BERMEA
2 URTE

ONTZI-GARBIGAILUA LEE-11

270 €44.917 pta



BERMEA
2 URTE

1.000 b/min
6 kgr.

A+A

GARBIGAILUA 4L104

300 €49.908 pta




BERMEA
2 URTE

LABEA
H21410
BITROZERAMIKA
VAP1400

B

LABEA eta BITROZERAMIKA
INSTALATUTA

355 €59.067 pta



BERMEA
2 URTE

AIRE EGOKITUA
HOTZA ETA BEROA
3000 KCL/orduko

230 €38.268 pta



BERMEA
2 URTE

AIRE EGOKITU PORTATILA
ADR73 HOTZA ETA BEROA
3000 KCL/orduko

405 €67.387 pta



BERMEA
2 URTE

TELEBISTA SHARP
LCD 32" LC-32P55

1275 €212.143 pta



BERMEA
2 URTE

TELEBISTA THOMSON
LCD 32" 32LB-125B5

1199 €199.497 pta




BERMEA
2 URTE

TELEBISTA SANYO
LCD 29" CE-29FF32

290 €48.252 pta

ETIKETA ENERGETIKOA



Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. Kooperatibistendako prezio bereziak.

Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.

Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3, Roneo ondoan.

AURREMATRIKULAZIO EPEA

ekainaren 1etik 7ra

LANBIDE HEZIKETA

heziketa zikloak

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Ibilgailuen elektromekanika
- Kontsumorako ekipo elektronikoak
- Soldadura eta galdaragintza
- Mekanizazioa
- Erizaintzako zaintza osagarriak

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Fundizioa eta pulbimetalurgia bidezko produkzioa
- Metal eraikuntzak

zure etorkizunerako
biderik onena



Etxebarri auzoa z/g
Tel.: 943 79 79 00
Faxa: 943 77 09 55
20550 ARETXABALETA
ia@iaretxabaleta.com
www.iaaretxabaleta.com



FERIXIE

Eskoriatza

Ekainak 3, Larunbata

Arratsaldean
txahal-okela
errea plazan!



www.arizmendi.ikastola.net



Arizmendi ikastola
geurea, zeurea

Herriak

Arrasate > 18-23 Bergara > 24-29 Aretxabaleta > 31-33 Eskoriatza > 34-35 Antzuola > 36 Elgeta > 37 Aramaio > 38 Leintz Gatzaga > 39



> **ARRASATE**
Argibiderik ez
Gelmako etxeekin
lotutako salaketen
aurrean > 19



> **BERGARA**
Txotxongiloen
Mostra izango da
ekainaren 15etik
18ra > 26



> **ESKORIATZA**
Bihar, artisauen
azoka egingo dute,
berrikuntza
askorekin > 34



> **ELGETA**
Torrealdeko
etxebizitzaren jabeak
zeintzuk diren
zehaztu dituzte > 37

BERGARA > IGERILEKUAK ETA GIMNASIOAK IRAILEAN INAUGURATUKO DITUZTE

Datozen urteotan ez da kanpoko igerilekurik egongo Bergaran

BAINUETXEA

Urtarriletik aurrera bainuetxea egongo da igerilekuan eta udan baita berdegunea ere

IGERILEKUAK

Barruko igerilekuak altzairuzkoak dira, baldosarik gabeak, eta handiak hamar kale ditu

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Datozen urteotan, behintzat, ez da kanpoko igerilekurik egongo Bergaran. "Kanpoko igerilekuen proiektua eginda dago, baina ez dakigu noiz jarriko ditugun. Diru asko behar da horretarako eta orain, behintzat, nahikoa dugu beste guztia gauzatzeko: barruko bi igerilekuak, gimnasioak, ludoteka eta taberna irailean inauguratuko ditugu, bainuetxea datoren urtean eta futbol zelaien egokitzapena hurrengo fasean", azaldu du Valentin Egidazuk, Kirol zinegotziak. "Momentuz ez da igerilekurik egongo kanpokoan, baina bai eguzkia hartzeko berdegunea, dutxak eta barruko igerilekura sartzeko bi pasabide eroso ere", jarraitu du Egidazuk.

DATUAK, MOTZEAN

> LANAK, EPE BARRUAN

Lanak epe barruan ari dira egiten, eta, aurreikusi bezala, datorren irailaren 16an zabalduko dituzte igerilekuak eta gimnasioak.

> KONTSUMOA KONTROLATUA

Momentu oro ze kontsumo dagoen kontrolatuko du ordenagailu batek; aurrezteaz gain, tenperatura aldaketak saihestuko ditu.

> DIRU GUTXIAGO

Aurrekontua baino 6.000 euro gutxiago gastatu dituzte, gutxi gorabehera; ekipamendua erosten erabiliko dute diru hori.

> IRISGARRITASUNA

Mugimendu premia berezidunendako prestatuta daude instalazioak; kartelen errotulazioak ere, adibidez, braillez daude, euskaraz eta espainolez.

SAUNA ETA JACUZZIA

Kanpoko igerilekuak ez, baina bainuetxea izango dute Bergarako Agorrosin igerilekuek urtarriletik aurrera. Igerileku handiaren ondoan egongo da eta gimnasioak eta igerilekuak erabiltzeko atera behar den txartel berarekin erabili ahal izango dute.

Unai Asurmendi Kirol teknikariak azaldu bezala, "bainuetxeak bi zati nagusi izango ditu. Alde batean urrik behar ez duten zerbitzuak egongo dira: sauna beroa, sauna hotza edo frigidariuma eta eremu lehorra. Beste aldean, berriz, ura erabiltzen duten zerbitzuak egongo dira: lau dutxa mota, barizeendako onak diren ur txorroak botatzen dituen pasabidea, bi jacuzzi eta hidromasajeak". Igerilekuen erabiltzaile guztiendako egongo da zabalik bainuetxea, eta instalazioek duten ordutegi bera izango du.

TARIFAK, ZEHAZTEKE

Une honetan Mankomunitateko txartelarekin sar daiteke Bergarako igerilekura, eta, Kirol zinegotziak esan bezala, berdin gertatuko da irailaren 16tik abendura bitartean ere, igerilekuak eta gimnasioak zabalitzen dituztenetik aurrera, alegia. Datorren urteko tarifak, ordea, guztiz zehazteke daude oraindik, "baina pixka bat igoko dira, seguruenek", aurreratu du Valentin Egidazuk.

Igerilekuen kudeaketaz, berriz, Udala arduratuko da hemendik aurrera ere. Hark kudeatuko ditu begiraleak ez beste langile guztiak; begiraleak azpi-kontratutako enpresa bateko langileak izango dira, orain arte bezala. Instalazioetan, 15-20 bat langile egongo direla kalkulatu dute adituek. > 24



BAINUETXEA Igerileku handiaren ondoan egongo da; kanpora begira zaudela, ezkerretara (erdiko argazkia).

XABIER GALLASTEGI

zerbitzuak

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE

Zapatua, 3	Español	Araba etorbidea 14	943 79 18 65
Domeka, 4	Ruiz	Maala 31	943 79 14 09
Astelehena, 5	Zabola	Zarugalde 42-44	943 77 16 30
Martitzena, 6	Azkoaga	Ferrerias 1	943 79 15 15
Eguaztena, 7	Azkoaga	Iturriotz 17	943 79 79 99
Eguena, 8	Corcuera	Maisu Aranbarri	943 79 22 26
Egubakoitza, 9	Irizar	Erguin 11	943 79 12 39

BERGARA

Zapatua, 3	Camacho	Oxirondo 4	943 76 11 74
Domeka, 4	Camacho	Oxirondo 4	943 76 11 74
Astelehena, 5	Zabala	Barrenkalea 25	943 76 16 87
Martitzena, 6	Guallar	San Antonio 5	943 76 11 05
Eguaztena, 7	Estella	Matxiategi 5	943 76 19 63
Eguena, 8	Mozos	Iparragirre 2	943 76 12 15
Egubakoitza, 9	Camacho	Oxirondo 4	943 76 11 74

OÑATI

Zapatua, 3	Anduaga	San Lorentzo 3	943 78 21 16
Domeka, 4	Anduaga	San Lorentzo 3	943 78 21 16
Astelehena, 5	Barrenetxea	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Martitzena, 6	Barrenetxea	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Eguaztena, 7	Garate	Kale Barria 42	943 78 05 58
Eguena, 8	Garate	Kale Barria 42	943 78 05 58
Egubakoitza, 9	Juldain	Kale Barria 6	943 78 11 28

ARETXABALETA

Zapatua, 3	Iturralde	Belorrieta auzoa 1	943 08 11 43
Domeka, 4	Iturralde	Belorrieta auzoa 1	943 08 11 43
Astelehena, 5	Juan Fraile	Herriko Plaza 10	943 79 21 99
Martitzena, 6	Juan Fraile	Herriko Plaza 10	943 79 21 99
Eguaztena, 7	Juan Fraile	Herriko Plaza 10	943 79 21 99
Eguena, 8	Juan Fraile	Herriko Plaza 10	943 79 21 99
Egubakoitza, 9	Juan Fraile	Herriko Plaza 10	943 79 21 99

TELEFONO JAKINGARRIAK

((112))
SOS DEIAK

OSASUNA ETA LARRIALDIAK

Osakidetza (Larrialdia).....	943 46 11 11
DYA (Antzuola).....	943 78 71 57
Gurutze Gorria (Elorregi).....	943 76 55 76
Suhiltzaileak.....	943 78 28 00
Ertzaintza.....	943 53 47 20
Osasun Etxeak	
Arrasateko ospitala.....	943 03 53 00
Antzuola.....	943 76 62 23
Aramaio.....	945 44 53 40
Aretxabaleta.....	943 71 19 59
Bergara.....	943 03 54 00
Elgeta.....	943 03 54 00
Eskoriatza.....	943 71 44 52
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 03 54 30
Udalzaingoak	
Antzuola.....	943 76 62 46
Arrasate.....	943 79 14 39
Aretxabaleta.....	943 71 18 63
Bergara.....	943 77 91 06
Eskoriatza.....	943 71 44 07
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 78 04 11

GARRAIOAK

PESA.....	902 10 12 10
Taxiak	
Arrasate.....	943 79 12 22
Aramaio.....	945 44 50 33
Aretxabaleta.....	943 77 12 64
Bergara.....	943 79 12 22
Eskoriatza.....	943 71 40 59
Oñati.....	943 78 03 65

DEBAGOIENA

Mankomunitatea.....	943 79 33 99
Hiltegia (Zubillaga).....	943 78 15 12
Nekazaritza ganbera.....	943 76 10 15
Zerga Bulegoa.....	943 76 58 63
Hondakindegi alternatiboak	
Arrasate.....	943 77 11 43
Bergara.....	943 76 44 42
Oñati.....	943 78 36 67
Kiroldegia	
Aramaio.....	945 44 53 35
Arrasate.....	943 77 16 77
Aretxabaleta.....	943 71 26 28
Bergara.....	943 76 56 41
Elgeta.....	943 76 82 84
Eskoriatza.....	943 71 53 28
Oñati.....	943 71 63 75
Kultura Etxeak	
Antzuola.....	943 76 60 65
Aramaio.....	945 44 53 74
Arrasate.....	943 77 01 05
Aretxabaleta.....	943 71 10 27
Bergara.....	943 77 91 58
Eskoriatza.....	943 71 46 88
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 78 03 53
Udalak	
Antzuola.....	943 76 62 46
Aramaio.....	945 44 50 16
Arrasate.....	943 79 09 00
Aretxabaleta.....	943 71 18 62
Bergara.....	943 77 91 00
Elgeta.....	943 76 80 22
Eskoriatza.....	943 71 44 07
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 78 04 11

URBANOAK

ARRASATE

Gorostizatik Eroskira (2 Linea)

08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara (2 Linea)

08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, J. Bengoa, S. Teresa, C. Obreiro, Obenerreka, Makatzena, Iñarra, S. Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

Gorostizatik Eroskira (1 Linea)

08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, S. Frantzisko, Iñarra, Makatzena, Obenerreka, C. Obrero, Galizia, Bengoa eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara (1 Linea)

08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.
IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazubi, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

BERGARA

San Lorentzo/San Juandik irteerak

07:00, 07:55, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:40, 13:30, 14:10, 16:00, 16:40, 17:20, 18:00, 19:00, 19:40 eta 20:20. Geralekuak: S. Juan (Torunsa), Amillaga (Manso), S. Lorentzo (Soraluzen), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegaraieta/Olabarretetik irteerak

07:20, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:50 (Olatik), 14:25 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:35, 18:25, 19:20, 20:00 eta 20:30. Geralekuak: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubietza, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ARAMAIOKO AUTOBUSA

Arrasate	Aramaio	Gasteiz
07:00	07:15	08:00
10:00	10:15**	
11:00	11:15	
12:00	12:15**	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30	18:45**	19:30
19:00	19:15	
21:10	21:25**	
Gasteiz	Aramaio	Arrasate
07:50	09:00	08:05
08:30	09:15	09:15
	10:15	10:30
	11:15	11:30
	13:45	14:10
13:10	14:10	14:10
16:20	17:00	17:20
	17:35	17:50
	19:15	19:30
19:30	20:10	20:25

Izardun orduak, eskaeraren arabera, auzoeta-koendako. Bezperan deitu: 629 54 59 23

eguraldia

DEBAGOIENEAN



Zapatua, 3

Bezperakoa baino eguraldi hobea egingo du, goizean batez ere. Temperaturak igo egingo dira. Arratsaldean, berriz, lainoak ugarituko dira.




Domeka, 4

Hasierako orduetan laino altuak izango dira; eguna luzatu ahala, berriz, tartekatu egingo dira lainoak eta ostartek.

EUSKAL HERRIAN

Eguraldi garbi-garbia ez du egingo asteburuan, baina lainoekin batera eguzkia agertuko zaigu tarteka, eta eguraldi polit samarra izango dugu. Temperaturei dagokierik, aurreko egunekin konparatuz, apurtxo bat epelduko dira, baina goizean fresko egiten segituko du.



oharrak eta deialdiak

OÑATI

> Posta elektronikoa erabiltzen ikasteko

Posta elektronikoko Outlook Express programa erabiltzen irakatsiko dute hilaren 7an, eguaztena, KZgunean, 16:30-18:30.

ARETXABALETA

> Helduendako euskal dantza ikastaroa

Helduendako euskal dantzen ikastaroa antolaten dabil Lora-mendi elkarteak datoren ikasturterako. Interesa dutenek izena eman dezakete e-postaz (kultura@aretxabaleta.net) edo 943 71 10 27 telefonora deituta.

BERGARA

> Miguel Altuna institutuan izenematea

GLHABI Miguel Altuna institutuan zabalik dago aurrematrikulazio kanpaina hilaren 7ra arte, 09:00-13:00 eta 15:30-17:00 ordutegian. Jaietan ere egingo da zabalik.

ESKORIATZA

> 'Aurkitu zure liburua' Internet ikastaroa

Ikastaro hori eman-goto dute gaur, egubakoitza, KZgunean, 10:30-11:30.

DEBAGOIENA

> Jakinet ikastaroa antolatu du Asmoz-ek

Internet bidez euskal gaien inguruko ikastaroa antolatu du Asmoz fundazioak. Argibide gehiago jasotzeko, bidali mezua [\[net@asmoz.org\]\(mailto:net@asmoz.org\) helbidera edo deitu 943 21 23 69 telefonora.](mailto:jaki-</p>
</div>
<div data-bbox=)

OÑATI

> EHNA tramitatzeko aukera dago

EHNA tramitatzeko ibiliko dira bihar, zapatua, gazte bulegoan, 11:00-13:00 ordutegian.

ARRASATE

> Kantabriara joango dira Abaroakoak

Kantabriara irteera egingo dute Abaroako erretiratuek ekainaren 21ean, eguaztena. Izenematea hilaren 13an, martitzena, bukatuko da, eta txartelak hilaren 19an banatuko dituzte.

BERGARA

> Finantza erakundeak Interneten

Finantza erakundeekin lan egin delako Internet ikastaroa emango dute bi zatitan, bihar, zapatua, eta etzi, domeka, KZgunean, 09:00-11:00.

ESKORIATZA

> Ludopatiaren eta mendekotasun berrien gaineko hitzaldia egingo dute

Ludopatiak eta mendekotasun berriak izenburuko hitzaldia egingo du Ekintzadasalud elkarteak ekainaren 7an, eguaztena, Eskoriatzako kultura etxean, 18:00etan. Ludopatiak eta beste mendekotasun batzuetaz –bideojokoak, Internet, erosketak, telefona, sexua, lana...– berba egingo dute.

943 25 05 01

goienkaria@goiena.com

TENPERATURAK

MINIMO
Eguena, 25

5 °C

MAXIMO
Zapatua, 27

29 °C

ASTEKO
EURIA (l/m²)

4,5 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 24	21 °C	6 °C	- l/m²
Eguena, 25	24 °C	5 °C	- l/m²
Egubakoitza, 26	25 °C	14 °C	- l/m²
Zapatua, 27	29 °C	15 °C	- l/m²
Domeka, 28	28 °C	13 °C	- l/m²
Astelehena, 29	19 °C	16 °C	4,5 l/m²
Martitzena, 30	19 °C	10 °C	- l/m²

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

ILARGIA EKAINEAN

Ilbehera 18	Ilberri 25	Ilgora 3	Ilbete 11

tza eta argazkigintza digital ikastaroak daude aukeran. Argibideak: 943 77 00 65.

ARRASATE

> Ezkontza aurreko topaketak egingo dituzte

Ezkontza aurreko topaketak egingo dituzte hilaren 5etik 9ra, San Andres parrokiako lokaletan, 20:00-22:00.

ARRASATE

> Dragoi Janerako laguntzaileak behar dituzte

San Juan jaietako Dragoi Janerako laguntzaileak behar dituzte. Argibideetarako, deitu 943 77 12 28 telefono zenbakira.

OÑATI

> Musika eskolan izena emateko epea, zabalik

Musika eskolan matrikula egin daiteke ekainaren 1etik 15era bitartean, euren bulegoan, 18:00-20:00 ordutegian.

ELGETA

> Adobe Acrobat programa, ikasgai

Adobe Acrobat Reader programa erabiltzen irakatsiko dute hilaren 7an, eguaztena, 16:30-18:30 ordutegian.

BERGARA

> Musika eskolan izena emateko aukera dago

Ekainaren 15era arte dago zabalik matrikulazio epea, euren bulegoan. Argibideetarako, deitu 943 76 57 80 telefonora.

kale inkesta

Ibili zara domeketan Arantzazura doan autobusean?



Lourdes Beloki
Etxekoandrea
Oñati



Klara Iturralde
Etxekoandrea
Oñati



Mikel Reinstadler
Langilea
Oñati



Mari Kontxi Zelaia
Langilea
Oñati



Txomin Rivera
Erretiratua
Oñati

Oraindik ez naiz ibili. Hori eskatzen ibili gara denbora luzean, eta dugunean aprobetxatzen jakin ez! Aurrekoan ere autoan joan nintzen Arantzazura, baina badut asma erabiltzeko; bai, horixe!

Ez dut autorik eta jadanik egin ditugu planak autobusean Arantzazura igotzeko. Badut gogoa, aspaldi ez naiz egon eta. Egin dituzten azkeneko obrak ez ditut oraindik ikusi, pentsa!

Ez nekien zegoenik ere. Umeak ditugu eta errazena eta erosoena egiten dugu, ume-kotxeak autoan sartu eta bertan joan Arantzazura. Umeak koskortzen direnean erabiltzeko dugula uste dut.

Neuk ez dut erabili, baina dendara datozenen artean askori entzun diet oso eroso dela eta behin baino gehiagotan erabili dutela eurek. Oso pozik daude. Nik ere probatuko dut egunen baten.

Oso ondo dago autobusa eta noiz edo noiz hartuko dut, baina motorra dut eta motorrean joaten naiz Arantzazura bakarrik noanean, mezetara gehiengotan, dagoeneko ez gaudu Urbiara joateko eta.

txaloak eta txistuak



Arrizuriaga parkea zikin eta zaindu barik



Irakurle batek kontatu digu Bergarako Arrizuriaga parkearen egoera salatu nahi duela; izan ere, parkea publikoa ez izan arren, zabalik dagoenean herritar dezente ibiltzen da han, umeak bereziki, eta batere zaindu barik dago; beraz, zaindu egin beharko lukete edo itxita izan.

bertako berbak

Juan Martin Elexpuru

"Azpijana"

Azpijokoa.
- Agirixan oso gizon ondrau moduan azaltzan da baiña gero ikusi egin biar ze azpijan darabilen.



Marraskia > Jon Iraegi

asteko datua

7.600

Sahararren aldeko Arrasateko elkartetik (Nubi) eskerak eman nahi dituzte, lortu dutelako ibarrean 7.600 euro batzea hara bidaltzeko. Bidali ere, oraingo astean bidali dituzte. Uholdeak izan ziren Saharan otsailan.

ustek uste

Ubane Madera

Hobe da salaketei aurre egitea

Hautsak harrotuta dabilta Arrasateko Udalean. Izan ere, alkatea eta hirigintza-burua akusatatu dituzte Gelmako etxeekin dabilzala egiten azken denboretan horren ezagunak egin diren *pelotazo urbanistiko* horietako bat.

Lehenago ere egin zituzten etxe horiekin lotutako salaketak.

Orain moduan, orduan ere, komunikabideetara bidalitako anonimo baten bitartez egin zituzten salaketok. Eta orain moduan, orduan ere, ez zuten esandakoaren gaineko inolako frogarik aurkeztu.

Beraz, idatzi horien sinesgarritasuna ezin da esan oso indartsua denik. Argi dago hori.

Baina gaia oso serioa da. Salaketak hortxe daude. Komunikabideetan azaldu dira eta kalean ere berbagai dira. Gainera, Gelmako etxeen proiektuaren gainean beti egon da halako *susmo* puntu bat herritar askoren artean, prezioengatik.

Hori kontuan hartuta eta kontuan hartuta salaketak herriko alkatearen eta zinegotzi baten kontrakoak direla, argi eta garbi atera beharko liriateke politikariak behar diren argibide guztiak ematen. Sortu diren zalantza guztiak ezabatuzko errotik.

Denon onerako izango litzatekeela uste dut.

5 galdera...

Begoña Akizu

Goieskolako guraso elkartearen Oñati

1. Domekan, herri eskolaren jaia ospatzeaz gainera, zuen proiektua aurkezteko aprobetxatuko duzue. Zer da, bada, Goieskola?

Debagoieneko Euskal Eskola Publikoen proiektu bateratua da. 2.500 familia, 3.000 ikasle, 425 irakasle eta irakaskuntzaz kanpoko 65 langile hartzen ditu bere barruan.

2. Zer eskaintzen die Goieskolak ibarreko guraso eta umeei?

Eskola euskalduna, askotarikoa eta kalitatezkoa. Denendako hezkuntza, denon artean eginkoa. Horrela ez balitz, ez genituzke seme-alabak bertara bidaliko.

3. Domekakoarekin, zein helburu lortu nahi duzue; zer egingo duzue diruarekin?

Jende askok galdetzen digu zertarako izango den dirua. Argi utzi nahi dugu ez dela dirua eskatzeko edo lortzeko jaia. Jendeak aurreiritziak alde batera utzi eta ezagut gaitzala nahi dugu. Topikoekin behin betiko bukatu eta doaneko eskola baino askoz gehiago dela erakutsi.

Beraz, nahita, beste aukera baten aldeko apustua egin dugunok osatzen dugu Goieskola.

4. Eskola publikoaren etorkizuna euskalduna izango da ehuneko ehun?

Gure eskoletan hala da. Dena dela, baliabide eta laguntza banaketa bidezkoagoa egin beharko litzateke udal, administrazio eta abarren aldetik, denona den hezkuntza primatzeko.

5. Etorkinen euskalduntzea erronka handia da; aztertuta duzue?

Aspaldi dihardugu lanean. Baina ez dugu uste guk bakarrik hartu beharreko erronka denik. Triste da aste bukaerako Mundumira behar izatea solidarioak sentitzeko. Gure ustez, dirulaguntzak ikastetxe guztiek jasotzen dituztenez, eta teorien denok integratzen eta euskalduntzearen alde gaudenez, guztion ardura eta erantzukizuna da etorkinen euskalduntzea.



Rosa Mari Maiztegi > Balantzategi kioskoko arduraduna

"Kioskoa bota egin behar badute, zuzen adjudikatu beharko ligukete leku berria"

UBANE MADERA > ARRASATE

Garibai etorbideko Balantzategi kioskoa (edo jabearen goitizena hartu zuen *Tiburón* kioskoa) laster desagertuko da. Biteri aparkalekua bukatu bezain laster bota egingo dute eta aparkalekuaren gaineko aldeko saltoki batean salduko dituzte egunkariak. Oraingoan, Udalak saltoki berria lehiaketa publikora atera gura du; Balantzategikoak ez daude ados.

Martitzenean, Hirigintza Sailean gai hori landu behar zuten EBk eta PPK proposatuta; zeintzuk dira azken berriak?

Ander Rodriguezek (EB) esan dit berak eta Itziar Lamarainek (PPK) esan dutela zuzenean lekualdatu beharko ginatkeela eta ez zerbitzua lehiaketara atera. Gero hitzartu beharko genuke Udalarekin lekualdaketa hori zenbat urterako izan beharko litzatekeen. Anderrek esan digunez, alderdi guztietako ordezkariak ados zuden proposamen horrekin, PSEko Paco Gartzia izan ezik. Hala, orain txosten bat egingo dute lekualdaketa zuzen egin daitekeen ikusteko.

Zuen ustez, zein izan beharko litzateke Udalaren jardunbidea?

Kioskoa bota egin behar badute, zuzen adjudikatu beharko ligukete guri pentsa saltzeko leku berria, Biterin. Dena dela, neuri falta zaizkit zortzi urte erretiratzeko eta neure koinatuari 18 urte. Hala, eskatu diogu alkateari kioskoa ordura arte mantentzea eta gero, gura badute, bota dezatela. Edozelan ere, hori ezin da orain pentsatu ere egin, eta legez ezin daiteke ezer egin.

Kiosko historikoa da Arrasaten Balantzategi...

Pentsa, ni hasi nintzen egunkariak saltzen 10 urte nituenean. Hasieran, Banco Guipuzcoanoa dagoen lekuaren parean sartzen genituen, kalean. Gero, Alvaro Arregi alkatea zela, nire osaba Benito Balantzategiri eman zion egunkariak saltzeko baimena eta



30 bat urtean ibili dira egunkariak saltzen Balantzategi kioskoan; eskumakoa da Rosa Mari Maiztegi.

U.M.

"Eskatu dugu erretiratu arte kioskoa mantentzea eta gero, gura badute bota dezatela"

"Hasi nintzen egunkariak saltzen 10 urte nituenean, Guipuzcoanoaren parean; eta gero, kioskoan"

hark kioskoa ekarri zuen Madrildik, 70eko hamarkadan. Eta osaba Benito hil zenean, osaba Angelek hartu zuen kioskoa. Angelen gatik esaten zioten *Tiburón* kioskoari, osabaren goitizena zelako. Dena dela, asko haserretzen zen hura hori entzuten zuzenean, eta guretako beti izan da Balantzategi kioskoa.

Ni beti ibili naiz osabarekin lanean eta hura hildakoan, koinatu Imanol hasi zen lanean kiosko-

an. Harrezkero, hemen izan gara; lehenengo Lasagabaster parean eta azken urteotan, Garibain.

Kioskoa itxiz gero, bi lagun geratuko zinatekeen kalean...

Ez hiru lagun gara. Izan ere, nire koinatu Imanol 03:30erako hementxe dago, egunkariaren etxez etxeko banaketa egiteko. Eta doan, gainera. 07:00etan bukatzen du eta goizean egoten da. Gero beste bi lagun ibiltzen gara.

ALKATEAREN ARGIBIDEAK

Abantailaren bat emango diete Balantzategikoak

Inazio Lakuntza alkateak esan digunez, Udalaren asmoa da Balantzategikoak zuzen abantaila ematea prentsa saltokia eskuratzeke lehiaketara aurkez daitezkeen. "Oraindik zehaztu barik daude abantailak, baina lehiaketaren pleguan sartuko ditugu". Gaineratu digu ez dutela beste irtenbiderik gauzak horrela egitea baino: "Kioskoa eurena da, baina lurra Udalarena. 1987an oso garbi idatzi zuten ez zutela kontzesiorik. Bakarrik dute baimena egoteko".

Kioskoa beste lekuren batera aldatzearen gainean, berriz, zera esan digu: "Beste lekuetan berdin gertatuko da: lehiaketara atera beharko litzateke zerbitzu hori".

Balantzategikoak beste kexuetako bat da leku berria eskuratu arren, haren egokitzapena euren esku geratuko litzatekeela. Horren aurrean, alkateak zera esan digu: "Inbertitu beharrekoa izango litzateke bakarrik dekoratzeko; gainerakoa guk ipiniko dugu".

SAN JUANETARAKO

Biteri parkea ahalik eta lasterren izango da erabilgarri

Biteri parkea hasi da izango duen itxura erakusten. Pergola ipini dute eta prentsa saltokia ere bai. Garibaiko dorrera begira dagoen eraikin horrek izango ditu hiru lokal; horietako batean salduko dute prentsa. Gainerakoetan zer egongo den lehiaketa bidez erabakiko du Udalak, baina loradenda, gozodenda, ONCEko saltokia edo antzeko jarduerak ipini gura dute. Adibidez, seguru dakigu tabernarik ez dela izango. Aparkalekua, berriz, San Juanetarako ia gertu izango da, alkateak dioenez.

ETORRI ETA IRABAZI

Moztu, bisita gaitzazu eta ikusi zer irabazi duzun, Doan, TXANPUren lehen urteurrenari esker.

10
URTEURRENA

TXANPU
ILE-APAINDEGIKO PRODUKTUAK

Portaloian, Eroski Bidaiak ondoan gaude.

Eraman ezazu doan zure
OPARIA



* Eskainza baliagarria edozein produktu erosita (kartel hau aurkeztuta), 2006ko uztailearen 31 arte.



KONPENTSAZIOA Oraingo, Obenerrekakoek dute baimena lur azalerraino eraikitzen segitzeko; konpentsazioen negoziazioaren arabera egingo dute aurrera. IKER BARANDIARAN

INGURUMENA

Aste Berdea dela-eta zenbait ekitaldi

U.M. > ARRASATE

Udaleko Ingurumen Sailak antolatu ditu Aste Berdearen barruko ekitaldiak. Astelehenean hasi eta gero, hurrengo bi domeketan izango dira. Hala, nabarmentzekoa da ibilaldi bi egingo dituztela herriko ibaiak hobeto ezagutu eta bide batez, garbiketa lanak ere egiteko.

Egitaraua, eguna-ordua

5, astelehena

17:30-19:30, Seber Altubren bioaniztasuna lantzeko jolasak eta eskulan txokoa ipiniko dute: Oka, Hartzari laguntzen eta Ekologiaren bidea. Arrasate eta Euskal Herriko bioaniztasunaren gaineko panelak ere izango dira.

19:30-20:00: Santa Barbaran: Zuhaitz Hilari Bizia Dario: parkean hildako zuhaitzen inguruen sortzen den bizitzaren gaineko informazioa emango dute.

11, domeka

11:00-13:00, ibilaldia: Arrasateko ibaien bioaniztasuna eta landaretza inbaditzailea ezagutzeko ibilaldia. EHUko irakasle eta biologo Joserra Diezek gidatuta.

18, domeka

11:00-13:00: Deba ibaia garbituko dute. Erreka bazterreko zaborra batuko dute eta pilatuta laga, jendeak ikusteko. Interesa duenak izena eman Ingurumen Sailean.

UDALA > SALAKETA GOGORRAK

Inork ez du eman argibiderik Gelmako etxeen gaineko salaketan aurrean

Salaketak egin dituzte alkatearen, Hirigintza Saileko buruaren eta etxeen promotoreen kontra; dirua poltsikoratu dutela diote, oro har

UBANE MADERA > ARRASATE

Idatzi anonimo bat erabili dute alkatearen, Agustin Ugarte Hirigintza Saileko buruaren eta Gelmako etxeen promotorearen kontrako salaketak egiteko. Ezker Batua alderdiko Ander Rodriguez

bozeramaileak asteleheneko osoko batzarra erabili zuen idatzi horren gainean galdetzeko.

ETXE GEHIAGO, PREZIOAK BERTIN

Eta gogorak dira EBko bozeramaileak irakurri zituen salaketak.

Laburbilduz, salatzen du 2004an hitzartu zutela Udalak eta Gelmak babes ofizialeko etxe gutxiago egingo zituztela eta etxe libre gehiago; horrela, oro har, etxebizitzaren prezioa txikitu egingo litzateke. Orain, berriz, idatziak dio etxeen promotoreak etxebizitza libreen prezioa zehaztu duela metro koadroa milioi bat pezetatan eta ez 600.000tan, asmoa zen bezala. Hori horrela, salatzen dute promotoreak irabaziko dituela "milaka milioi pezeta eta arrasatearrek, zero pelotero".

Gaineratu dute, baita ere, beste inori ezer esan barik alkateak (Hirigintzako zinegotziaren onepenarekin) baimena eman zuela etxebizitzak esandako prezioan eraikitzen jarraitzeko.

Bukatzeko, dio azkeneko Gobernu Batzarrean eta gai hori zela medio, "alkateari eta Hirigintza zinegotziari 'chorizos' esan zirela eta 'Marbellara alde egiteko' ere bai.

ADIERAZPENIK EZ

Osoko batzarrean bertan, Inazio Lakuntza alkateak esan zuen ez zuela adierazpenik egingo halako "libelo" baten aurrean. Eta gogorarazi zuen orain dabiltzala aztertzen promotoreak Udalari eman diezazkiokeen konpentsazioak zela hobetu. Batzarraz gainera, atzera ere galdetu diogu alkateari, baina atzera ere esan digu "oraingo" ez duela adierazpenik egingo.

Etxeak eraikitzen dabilen Obenerreka enpresara ere jo dugu argibide bila. Baina hango kudeatzaile Juan Lartabalek alkatearen erantzun bera eman digu, ez duela ezer esango.

Edozelan ere, etxebizitza horien gehiegizko prezioen zurrumurruek aurrean martxoan ere galdetu genion Lartabali eta hark erantzun zigun "prezioak merkatuak zehazten dituela" eta "kopuruak handiak izan arren, kalitate-prezioa oso interesgarria dela".

OSOKO BATZARRA > MAIATZARI DAGOKION BATZARRA

Etxeko Laguntza Zerbitzuaren zain dauden 75 lagunek uztailean jasoko dute erantzuna

Ezker Batuaren alegazioak desestimatu eta gero onartu egin zuten Etxeko Laguntza Zerbitzuaren araudia

Gobernu Batzarraren esku uztea 100.000 eurora arteko gastuen gaineko erabakia, eta ez osoko batzarraren eskuetan, orain arte moduan. EBk, PPK eta PSEk esan zuten hori eginez gero, oposizioak ez lukeela gobernuaren lana kontrolatzeko aukerarik izango.

Bozketan, hamarna berdindu zuten; eta alkatearen kalitatezko botoarekin onartu zuten puntua.

GIZARTE ZERBITZUAK

Eztabaida piztu zuen beste puntuetako bat izan zen Etxeko Laguntza Zerbitzuaren araudia. Besteak beste, Ezker Batuak salatu zuen

75 bat lagun daudela urtebetean itxaron zerrendan zerbitzu hori eskuratzeko; eta zerbitzu horretan 75.000 ordu inguruko murrizketa izan dela. Horren aurrean, zerbitzuaren arduradun Joxe Etxeberriak erantzun zuen egia dela ordu murrizketa egin dutela, baina hori dela Diputazioak parekotasuna lortu gura duelako probintziako herrien artean. Zain dauden herritarren gainean, berriz, esan zuen euren egoerak aztertzen dabiltzala (autonomia maila eta inguru soziala) eta emaitzak eskuartean, uztailean jakinaraziko dietela zeinek eskuratuko duen zerbitzua.



BEHARRAK Bereziki, erretiratuek eta gaixoez eskuratzen dute zerbitzu hori. U.M.

U.M. > ARRASATE

Oposizioak gogor egin zion udal gobernuari asteleheneko batzarreko zenbait puntutan. Eztabaida sortu zuen, esaterako, honako proposamen honek: Tokiko



Maiderrek eta Maitek poesia eta margoak batu dituzte.

IKER BARANDIARAN

Maite Del Rey eta Maider Zubillaga > Artistak

"Hizkuntza desberdinak erabili arren, mezuak antzekoak dira"

IKER BARANDIARAN > ARRASATE

Maite Del Rey eta Maider Zubillaga arrasatearrek erakusketa jarri dute Harresi aretoan. Hilaren 18ra arte egongo da ikusgai, eta poesiak eta margolanak batu dituzte.

Noiz eta zelan bururatu zitzaizuen bion artean erakusketa egitea?

Maider: Orain dela 6 bat hilabete, Maitek idazten duen poesia-aren gainean berba egin zidan. Erakusteko esan nion eta irakurri nituenean konturatu nintzen biok konexio handia genuela.

Maite: Hala, handik gutxira Maiderrek margolanak erakutsi zizkidan, eta elkarrekin zerbait egitea erabaki genuen.

Aipatu duzue zuen lanen artean konexio edo lotura handia dagoela. Zertan?

Maite: Hizkuntza desberdinak erabiltzen ditugu, baina azken finean sentitzen eta pentsatzen duguna antzekoa da. Maiderrek irudien bidez pentsatzen du, eta neuk hitzen bidez. Hori da desberdintasun ia bakarra.

Lan handia eman dizue erakusketa prestatzeak?

Maider: Bai. Margolan eta poesia gehienak aurretik eginak genituen, baina beste gauza asko batu zaizkigu: erakusketa zelan jarri, liburuxka prestatzea...

Zer aurkituko dugu liburuxka horretan?

Maider: Erakusketan dauden poesiak sartu ditugu. Horrez gain, idatzi horiei egokitutako irudiak egin ditut.

Maider, zuk Arte Ederrak egin dituzu. Noiztik zabilta margotzen?

Maider: Txikitatik. Monterrongo eskoletan ikasten ibili nintzen eta gerora irakasle ere ibili naiz han. Margolanak eta grabatuak egiten ditut. Pintura

akrilikoak erabiltzen ditut, eta gurago dut nire lanak norberak interpretatzea.

Maite, zuk Filosofia ikasi duzu. Aspalditik zabilta poesia idazten? Aurretik liburuxka bat kaleratu zenuen, ezta?

Maite: Bai, aspalditik idazten dut. Filosofia ikasteak izango zuen eragina, baina bizitzaren eta pentsamenduaren gainean idazten dut, sentitzen dudaren gainean. Orain dela bizpahiru urte, Josu Arteagak Gaizka Menari eta bioi elkarrekin liburuxka bat kaleratzea eskaini zigun. Oso esperientzia polita izan zen.

Erraza da norberaren lanak jendaurrean erakustea?

Maider: Ez. Ez dut inoiz erakusketarik egin eta bertigo handia ematen du. Baina, tira, ziur merezi duela.

Maite: Liburuxka kaleratu genuenean ere beldur apur bat neukan, baina poesiak erakutsi nituen heinean zama handia kendu nuen gainetik. Barruan daukaguna atera behar dugu.

"Barruan daukaguna erakusteko pausoa emateak zama handia kentzen laguntzen du"

PRESOAK > ELKARTASUN EGUNA ANTOLATU DUTE

Ekainaren 10erako jai erraldoia antolatu dute

Portaloira topaguneak presoak Euskal Herriratzeko egitarau mardula prestatu du

I.B. > ARRASATE

Herriko hainbat eragilek osatzen duten Portaloira topaguneak Elkartasun Eguna egingo du ekainaren 10ean. Topagune horrek presoak Euskal Herrira ekartzeko ahalegina egiten dihar du eta egitarau zabala antolatu du aldarrikapen horren gainean.

CD BAT KALERATU DUTE

Horrekin lotuta, *Piztu da dra-goia... elkartasun portaloia* izene-

ko kantua idatzi eta grabatu dute herriko hainbat musikaririk. Hitzak Eneko Barberena eta Jokin Labaienek idatzi dituzte, eta musika Ines Osinagak eta Arkaitz Biainek. Grabazioan, egileak, RIPEko Jul eta Des-Kontrolko Oier ibili dira. CDa salgai dago hainbat tabernatan.

Hilaren 10ean herri kirolak, bazkaria, 18 tabernatan kontzertuak, manifestazioa eta jaialdi handia egingo dituzte.



DISKOA ETA EGITARAUA Argazkian, herriko hainbat eragile egitaraua eta diskoa aurkezten.

I.B.

ANTZERKIA > TXIRENE TALDEAREN 'NORA HOA NESKA' BAKARRIZKETA

Hainbat emakumeren egoera irudikatuko dute, umorearekin

Hilaren 9an, emakumezko baten pasarteetan oinarritutako bakarrizketa egingo dute Amaia antzokian

I.B. > ARRASATE

AEDK eta Kultur Errotak antolatuta, datorren egubakoitzean ikuskizuna izango da Amaia Udal Antzokiko sarreran. Txirene antzerki taldeak *Nora hoa neska* antzerki-bakarrizketa egingo du 22:30ean. Ez da ezer ordaindu behar.

Ikuskizunaren zuzendaria Lierni Fresnedo da eta taula gainean ikusiko ditugun aktoreak,

berriz, Edurne Agirrezabala eta Begoña Amonarriz.

DRAMA, KOMEDIA BIHURTU

Antzezlan hiru zititan banatuta dago, eta zati bakoitzean emakume baten egoera jakina azalduko dute.

Lehenengo zatian, ezuste handia hartuko du 20 urtean ondorian izan duen senarrak utzi egingo duelako. Bigarrean, norae-

zean ibiliko da protagonista. Eta hirugarrenean, emakumezkoak erreagitu bitxia izango du.

Protagonistari jasotako kolpe latz horrek lagunduko dio jakiten antzerkian etorkizun handia izan dezakeela, eta bide horri ekingo dio. Emakumezkoak buelta emango dio bizi izan duen egoerari eta etekin handia aterako dio senar barik daukan ustezko hutsuneari.

GANESHA

Tattoo
Piercing
Mikropigmentazioak

Mentxu
Olarte kalea 43, bis. ARRASATE
Tel.: 943 71 18 24.

Urtzen ari naiz

Eta nirekin urtuko dira hondartza guztiak

Hondarribia, Zurriola, Kontxa, Ondarreta, Orio, Zarautz, Getaria, Zumaia, Deba, Mutriku, Arrigorri, Karraspio, Isuntza, Ogeia, Ea, Laga, Laida, Kanala, Kanalape, San Antonio, Laidatxu, Toña, Hondartzape, Aritxatxu, Bakio, Armintza, Gorliz, Plentzia, Muriola, Barrika, Meñakoz, Arrietara, Barinatxe, Gorrondatxe, Arrigunaga, Ereaga, Las Arenas, Zierbena, La Arena...

Guztiok bat eginik, Euskadi Klima Aldaketari aurre egiteko gauza izango da. Ekin orain. Beranduegi izan baino lehen.

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

INGURUMEN ETA LURRALDE ANTOLAMENDU SAIA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO



2006 ASTE BERDEA - BIOANIZTASUNA

Ekainaren 5ean - astelehena

17:30-19:30 Seber Altube plaza

- BIOANIZTASUNA LANTZEKO JOLASAK ETA ESKULAN TXOKOA
 - Oka - "Zaindu ditzagun gure basoak"
 - Hartzari laguntzen
 - Ekologiaren bidea

- ARRASATE ETA EUSKAL HERRIKO BIOANIZTASUNARI BURUZKO PANELAK

19:30 - 20:00 Santa Barbara parkea

- ZUHAITZ HILARI BIZIA DARIO

Santa Barbarako parkean hildako zuhaitzen inguruan sortzen den bizitzari buruzko informazioa aurkeztuko da

Ekainaren 11n - domeka

11:00 - 13:00 Ibilaldia San Isidro eliza aurrean hasiko da

- ARRASATEKO IBAIEN BIOANIZTASUNA ETA LANDARERIA INBADITZAILEA EZAGUTZEKO IBILALDIA

Arrasateetik pasatzen diren erreken bioaniztasunaren berri jakingo dugu. Horietan bizi diren animaliak eta landareak ezagutuko ditugu.

Landare inbaditzaileak errekan sortzen dituzten arazoak aztertuko ditugu. Zelan hazten diren eta hazkundera kontrolatzeko, zer teknika erabiltzen diren. Hori guztia Joserra Díezen eskutik (Biologoa, EHUko irakaslea eta ibai ekologian doktorea)

Ekainaren 18an - domeka

10:30 - 13:00 Eroski alboko berdegunean elkartuko gara.

- DEBA IBAIA GARBITZEA - MOJATEGI INGURUA (EROSKIKO ATZEKO ALDETIK SAN ISIDROKO ZUBIRA ARTE)

Deba Ibaiko tarte bat garbitzeko deialdi zabala egiten diegu herritar guzterie.

Garbituko den gunea Mojategi inguruko erreka zatia izango da.

Erreka ertzean dauden zaborrak batuko ditugu eta herriko gune adierazgarri batean jarriko ditugu erakusgai.

Parte hartu nahi duzuenok, eman izena aurretik (etorriko den jende kopurua aurrez jakitea ezin bestekoa da eta antolaketa erraztuko du)

Etorri udaletxera, Ingurumen sailera

agenda21@arrasate-mondragon.net

Telefonoz: 943 790 900

ERREKA GARBI BEHAR DUGU !!!

ANIMATU ETA IZENA EMAN !!!

INGURUMENA DENON ARDURA DA

GOIENKARIA BERRITUAK

4.0000

IRAKURLE GEHIAGO



2005eko azaroan, 33.000 irakurle zituen GOIENKARIAk Debagoiengan.
GOIENKARIA BERRITUAK, orain, 37.000 irakurle ditu*.

- GOIENKARIA da Debagoiengan gehien irakurtzen den hedabidea.
- Debagoiendarren %67,3k astero irakurtzen du GOIENKARIA.
- 41.000 irakurle ditu GOIENKARIAk Gipuzkoan, horietatik 37.000 Debagoiengan.

Eskerrik asko, irakurle.

Goienkaria



JOKO BIZIA Txapelketaren formatua dela-eta, ohi baino azkarrago jokatuko dute taldeek.

GOIENKARIA

ERRUGBIA > NAZIOARTEKO ZAZPINAKO TXAPELKETA

Zortzi edizio egin eta gero, nobedaderik ez, eta behar ere ez

Arrasateko taldeak ondo daki non dagoen jaiaren arrakasta: errugbi ikuskizuna Atxabalpen, eta Alemaniako garagardoa erdiko plazan

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Zortzigarren urtez jarraian, Arrasateko errugbi taldeko kideek gogotik egingo dute lan asteburuan. Batzuek Atxabalpeko berdegunean, taldearen izena defendatzen. Eta beste batzuek erdiko plazan jarriko duten karpan, besteak beste, jatekoa eta edatekoa banatzen. Izan ere, zapatu arratsaldea kirol ekitaldiz beteta egongo bada ere (gogoratu errugbi txapelketarekin batera jokatuko dutela Debagoieneko tria-oi), Arrasateren erdialdean

egongo den karpan denondako egongo da lekua.

Gaur arratsaldean hasiko dute, baina, garagardoz bustitako asteburua. 19:00etarako ireki dituzte garagardoaren gureko ateak, eta gerturatzaren direnek bertan afaldu ahal izango dute, zuzeneko musika ikuskizunak lagunduta.

TXAPELKETA 15:00ETAN

Zapatua izango da, baina, ospakizunetarako eguna. 15:00etan hasiko dute Atxabalpen errugbi

txapelketa. Arrasatek hamabi talde gonbidatu ditu Euskal Herrian egiten duten errugbi txapelketa handienara: Durango, Zarautz, Eibar, Ordizia, Gaztedi, Atletico San Sebastian, Bera-Bera, Hernani, Iruñea, BEC, eta La Rioja taldeak, hain zuzen. Dakizuen moduan, zazpinako txapelketa izango da; hau da, talde bakoitzak zazpi ordezkari izango ditu zelaian, eta zazpi minutuko bi zati jokatuko dituzte. Hala, Atxabalpera gerturatzaren diren zaleek ohiko partiduetan baino joko azkarragoa ikusi ahal izango dute bertan.

Eta gau partean, sari banaketekin batera, Arrasate errugbi taldeak zozketa berezia egingo du bazkideen artean.

ATLETISMOA > EUSKADIKO TXAPELKETA

Asteburu biribila Arrasateko atletendako

Maila txikietan eta baita beteranoetan ere erdietsi zituzten urrezko dominak

X.U. > ARRASATE

Joan den asteburuan hara eta hona ibili ziren Arrasateko atletak. Batetik, infantil mailan, atleta gazteak Tolosan izan ziren Euskadiko Txapelketan. Orduan etorri zen asteburuko poztasunetako bat, Lore Marrek 2,60 metroko jauzia egin zuen eta pertikarekin. Horrekin batera, Gipuzkoako taldekako txapelketan laugarren sailkatu zen Arrasate. Mondragoetarrek nagusitasuna erakutsi zuten, besteak beste, errelebutan. Aipatzekoa Aitor Urizarrek eta Remi Diosdadok egindako markak.

Eta beterano mailan, Maria Jose Gilek urrezko bi domina erdietsi zituen Mendizorroztan, 1.500 eta 3.000 metrokoan.



Lore Mar.

A.A.T.

> FUTBOLA

Domekan jokatuko dituzte 'Txelis'-en omenez egindako Aitor Lopez Rekarte txapelketako finalak

Joan den domekan hasita, Arrasateko, Eskoriatzako, Aretxabale-tako eta Aramaioako gaztetxoak Aitor Lopez Rekarte futbol txapelketan dabilta buru-belarri. Aste barruan hiru jardunaldi egin dituzte, eta alebin eta benjamin mailako 120 neska-mutiko inguruk hartu dute esku. Hala, gaur arratsaldean ere partiduak jokatuko dituzte Atxabalpen, 17:15ean hasita, Santa Teresa, Mesedeetako Ama, Arrasate eta Gazteluondoko ikasleak izango dira aurrez aurre.

Txapelketako finalak, berriz, domekan jokatuko dituzte. 10:00etan hasiko dituzte alebin eta benjamin mistoen arteko partidu erabakigarriak, eta arratsalderako utziko dituzte alebin mailako mutilen finala (16:00).

> ZALDIBARKO TXAPELKETA

Betrayer, Lasagabaster, Dribling eta Iriztu sailkatu dira Zaldibarko finalerdietarako

Bihar arratsaldean jokatuko dituzte finalerdietako partiduak. Joan den astean norgehiagoka ederrak jokatuko zituzten Zaldibarren, lehia handikoak denak, eta lau taldek erakutsi duten azken txanpan egoteko merezimendua. Arrano Tabernari 6-4 irabazita sailkatu zen Dribling. Iriztuk gol bateko aldeagatik irabazi zion Saukeluri (2-3). Abokajarrok ere lanak eman zizkion Betrayerri (4-6), eta Lasagabasterrek eskuratu zuen asteburuko gol abantaila handiena (7-4) eta hiru goleko aldea atera zion Fuxxion taldeari.

Bihar, zapatua, 16:50ean neurtuko dituzte indarrak Betrayerrek eta Lasagabasterrek. Ondoren etorriko da Driblingen eta Irizturen arteko zeingehiagoka; 18:00etan jokatuko dute finalerako beste txartela emango duen azken partidua.

Euskal soinu eta irudiak zure eskura!

SOINUAK: Bidali, SOINUE+hutsunea+KODEA
ABESTIAK: Bidali, SOINUP+hutsunea+KODEA
LOGOAK: Bidali, SOINUL+hutsunea+KODEA
JOKOAK: Bidali, SOINUJ+hutsunea+KODEA

5767 SMS bakoitzeko:
1,2 € + BEZA

zenbakira

smsoinu
Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

ABESTIAK POLIFONIKOAK (SMS 1)
Abestiaren izena (Abeslaria) | KODEA

<p>Pop-Rock</p> <p>Aitormena (Hertzainak) AITORMENA Aizkolari (Kortatu) AIZKO Amore amore (Karidadeko benta) AMORE Askatasun egarriz (Lin Ton Taun) ASKATA Begiak okertuta (Lin Ton Taun) BEGIAK Bi Minutuero (Hertzainak) BIMNU Dub manifest (Fermin Muguruza) DUB Egunero (Hertzainak) EGUNERO EH Sukarra (EH Sukarra) SUKAR Eos dicen mierda, nosotros amen (La Polla) ELLOS Enamorado de la muerte (RIP) ENAMO Entzuidazu (Aterking's) ENTZU Etorrizuna (Etsaiak) ETORKI Ezer ez da betiko (Ken7) EZER Gora Herria (Negu Gorriak) GORA</p>	<p>Hator Bel-Air (Bide Ertzean) BELAIR Haizea (Ken7) HAIZEA Hegal egiten (Itoiz) HEGAL Ikusi (Delirium Tremens) IKUSI Ilargia (Ken7) KEN Impernuen ate joka (Gatibu) INPER Jokin Uraini Hitzak (Bide Ertzean) JOKIN Kaixo (Urtz) KAIXO Lau Teillatu (Itoiz) ITOIZLAU Laztana (Lutzen) LAZTA Lotuta egon arren (Kokein) LOTUTA Loreboa (EKKU) LORE Marea Gora (Itoiz) MAREA Musturrek sartunde (Gatibu) MUSTURREK Nicaragua (Kortatu) NICA No time for love! (Hertzainak) NOTIME</p>	<p>Salve (La Polla) SALVE Sarri Sarri (Kortatu) SARRI Sorginen leizean (Exkiku) SORGIN Txatxo (Zarama) TXATXO1 Txus (La Polla) TXUS</p> <p>Trikitixa</p> <p>Bexamele ta pastela (Maixa ta biari) BEXAMELA Bokespok (Kepa Junkera) BOKESPOK Hik lan eta nik jai (Tapia) HIK Itsas ontzi baten (Kaxiano) ITSAS Kupela (Epede eta Larrañaga) KUPELA Mia galdera (Alaitz / Maider) MILAJ Nirekin (Gozategi) GOZATEGI Ny Hirahira (Kepa Junkera) HIRA Txanpon baten truke (Alaitz / Maider) TXANPON</p>
--	--	---

LOGOAK (SMS 1) KODEA

SATANAS	EH	SORGIN4	AIZKORAK
TARTALO	IKURR3	I ORA	BABAK
BASAJAUN	IKURR5	LAU2	ARRANAK

OHARRAK

1. BATERAGARRITASUNA: Begiratu zure poltsikoko telefonua bateragarria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: www.smsoinu.com/bateragari

2. BALDINTZAK: Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPRS sistema aktibatuta izatea. GPRS sistema aktibatuzko, jar zaitze zure hornitzailearekin harremanetan. Alta ematea doan da eta Kb jaitziera bakarrik ordaindu beharrezko duzu. Kasu guztietan dela eta GPRS sisteman alta ematea doan dira.

* Euskalhet deitu: 900 84 02 00 telefonora. * Vodafone deitu: 123-ra. * Movistar deitu: 609-ra.

3. ZALANTZAK: Edozein zalantza duzula, jarri gurekin kontaktuan: smsoinu@smsoinu.com / edo deitu: 902 01 21 48 telefonora.

4. PERTSONALIZAZIOAK: Zure neurria egin ditzaitezue abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabiltzaileek eskura dezatela nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu: 902 01 21 48 telefonora.

WEBGUNEAN ||> www.smsoinu.com

arrasatearrak kanpoan

Iban Lizarralde > Ingeniaria
Tolosa (Frantzia)

'Cassoulet'-a da amonaren baba-gorrien ordezkoa"

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Badira hamar urte Ibanek Ingeniaritzako ikasketak osatzeko asmoz Frantzia aldera egin zuela. Hark dioten moduan, "amonaren baba-gorri platerkada maite duen euskaldun ongisa, nire asmoa bueltatzea zen, noski". Baina, bizitzaren gorabeherak direla-eta, hantxe geratu zen bizi izaten.


jaio zen-eta Luzio. Ordutik hona, bi edo hiru hilean behin etortzen dira gurera Iban, Sandra eta Luzio, lagunak agurtu eta familiakoekin egotera.

POTEOA EZ, BAINA...

Ibanek dioten moduan, Tolosan ez da txarto bizi: "Hemen ez dugu

Eta gorabehera horretan, pentsa dezakezen moduan, emakume batek izan zuen zerikusia handia, Sandrak: "Nork esango zuen neure semea Frantziako Tolosan jaioko zela". Bada, horrela gertatu zen, orain dela bi urte pasatxo

"Hemen elkartu dira errepublikar iheslariak, Frantziara lanera etorritako aljeriarrak, aeronautikan adituak..."



Iban Lizarralde.

poteorik egiten, baina gure jaitxoak antolatzen ditugu. Eta amonaren baba-gorri platerkadak badu ordezkotolosarra: *cassoulet* delakoa, baba-txuri eta ahate izterra. Bai, bai, askok ez sinistu arren, Euskal Herrian baino hobeto jaten dugu hemen".

Frantziako herri garrantzitsu horren gainean ere egin digu berba Ibanek: "Kulturalki oso aberatsa da Tolosa. Hemen elkartu dira errepublikar iheslariak, Frantziara lanera etorritako aljeriarrak, aeronautikan adituak, eta ikasle mordoak. Makinatxo bat unibertsitatetaren banatuta ehun mila ikasle baino gehiago dago, eta horien artean Iparraldeko gazte asko; baita Mondragoetik etorritako saperoren bat edo beste ere".

Agurtzeko, gonbidapena egin digu Ibanek: "Tolosa ezagutzeko aitzakia baten bila zabilzatenok, jakin, oraingo asteburuan daukazuela aukera ederra, euskal jaia antolatu dugu-eta". Garaiz zabilzate oraindik.

bere ustez



Oihan Zubizarreta

Arrasate, ipuinetako herria

Herrira etortzen naiz aste bukaera gehienetan. Oraindik orain, etorkizuneko haurrentzako ipuinetako herri horietako baten imajinarioaren parte izango den gure herrira!

Bihar, konurbazio bateko seme-alabak hazten ikusiko ditugu, eta gaurko gure Arrasateri gorazarre egingo diogu haurrentzako ipuin mitologikoetan. Eta, natorren bakoitzean nabarmen ikusten dut herria hankaz gora dagoela aldenik alde.

Hasieran iraultzaren bat piztu ote zen pentsatu nuen:

"Baina kaleetako garbitzaileek presiozko ur txorrotadarekin ezabatuko dituzte"

zenbat automobil, zulozarrak, kea, builak, harrotutako hautsak... apoteosikoa!

Berehala jabetu nintzen egoeraren dimentsioekin, hemen herria obrez josita dago. Gaztelu eta printzesaz jositako ipuinetan bezala, gurea paradisu herria izateko lanean ari da. Etorkizun oparo bati atea irekitzeko langile zintzo eta kooperatiboz jositako jendartea da gurea. Geroago eta zapo itsusi gehiago dago gurean, baina kaleetako garbitzaileek presiozko ur txorrotadarekin ezabatuko dituzte behin-betiko.

Gurea ipuinetako herria izan dadin, izen handiz baina iraganeko izanik gabe, ipuinetan ito arte.

txutxumutxua



GOIENKARIA

San Frantzisko Xabierren 5. mendeurrena

Gauean duzuen erretratu hori Xabierko (Nafarroa) gaztelu aurrean dago aterata. Arrasateko neska-mutiko koadrila ederra izan zen maiatzaren 20an bertan, eguna pasatzen. San Juan parrokiako parrokoak lagunduta, 54 gaztetxo joan ziren, gurasoekin batera.

San Frantsisko Xabier jaio zeneko bosgarren mendeurrena dabilza ospatzen, eta arrazoi hori

aprobetxatuta, arrasatearrekin batera Gipuzkoako beste parrokia eta ikastetxe batzuetako haur eta gaztetxoek ere esku hartu zuten topaketan. Esan digutenez, txangoak helburu berezia zuen: misiolari lanak egitea. Hala, parte hartu zutenek hausnarketa eguna izan zuten, euren buru eta bihotzak besteen beharretarako zabalagoak izan daitezten.

UGARAN jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

LEIHOAK, ATEAK, ZORUAK, ARMAIRUAK

AGR
García Ripa

ZAHARBERRITZEAK
PVC, ALUMINIOA, EGURRA

Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki 3 behe (Musakola)
Tel. eta faxa: 943 77 11 20

Metal aroztegia eta PVC
Leihoak eta itxierak

Egur aroztegia
Leihoak
Ateak
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua

Osagarriak
Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahaiak eta aulkiak

Aitor Belardenda

OSASUNTSUAGO BIZI ZAITEZ
ZAIN ITZAZU PISUA
ETA BOLUMENA

- Dieta pertsonalizatua. Azterketa indibiduala.
- Tratamendu dietetikoak. Botikarik gabe.
- Gorputzean koipea antzematea eta hari jarraipena egitea.
- Tratamendu eta kontseilu dietetikoak: kirola, hipertentsio arteriala, hezueria (gota) eta dietarekin harremana duten beste gaitz batzuk.

Olarte 7 • ARRASATE • Tel.: 943 79 90 43

INGURUMENA > BIODIBERTSITATEA BABESTUKO DUTE SAN MARTZIALEN

Zuhaitz batzuk botako dituzte berriak landatzeko

Aparkalekua txukunduko dute eta umeendako jolasak jarriko dituzte

Anfibioendako habitat naturalak ere prestatuko dituzte San Martzialeko iturrietan

OIHANA ELORTZA > BERGARA

San Martzialen dagoen biodibertsitatea babestu gura du Udalak eta proiektu bat egin du horretarako. Zuhaitzak landatzea eta animaliendako bizilekuak sortzea dira proiektuaren helburu nagusiak.

ASKATZUKO ITURRI BERRITUA

Igor Oiarbide Ingurumen zinegotziaren esanetan, "guztira 90 bat zuhaitz botako ditugu, gutxi gorabehera, baina bertako beste horrenbeste zuhaitz landatuko ditugu San Martzial eremuan. Horrez gain, Askatzuko iturria konponduko dugu, bertan anfibioek eta bestelako animaliek euren habitat naturala izan dezaten. Beste iturri berri bat ere egingo dugu helburu horrekin".

Baina baso-berritzeaz eta animalien bizilekuak sortzeaz gain, beste asmo batzuk ere jasotzen ditu San Martzial egokitzeko proiektuak. "Autoendako dagoen aparkalekua egokitu eta txukundu egingo dugu, adibidez, eta umeendako jolasak ere jarri nahi ditugu", dio Igor Oiarbide Ingurumen zinegotziak. "Gainera, ere-



HELBURUA San Martzialeko biodibertsitatea babestu gura du Udalak.

I.A.

INGURUGIROAREN ALDE

Herriko zarata mapa, mugikortasun plana eta landareen azterlana egingo dituzte

Udalak ingurumenari lotutako beste hiru asmo burutu ahal izateko dirulaguntza eskatu dio Gipuzkoako Foru Aldundiari, Tokiko Agenda 21en barruan. Batetik, herriko flora eta landareen azterlana egiteko dirulaguntza eskatu dio, biodibertsitatea babesteaz gain, balio naturalak sustatu eta paisaiaren balioa lehen mailara eraman nahi duelako. Mugikortasun plana ere egin nahi du, herriko bide-sarean gertatzen diren joan-etorriak, zirkulazioa eta bestelakoak neurtzeko. Zarata mapa ere egin gura du, ingurune atmosferikoa zarata eta dardaretatik babesteko helburuarekin.

mu horretako baso lur batzuk erosi nahi ditu Udalak, inguru hori berde mantentzeko etorkizunean ere. Dagoeneko harremanetan gabilta lurjabe batzuekin", zehaztu du.

Fulcrum enpresak egin du proiektua eta hilabete eta erdi barru adjudikatuko dituzte lanak, gutxi gorabehera. Datorren azaroa baino lehen obra zibilak bukatuko dituzte eta abenduan hasiko dituzte baso-berritze lanak.

ZERBITZUAK > IGERILEKUKO LANAK EPE BARRUAN BUKATUKO DITUZTE

Datorren urtean hasiko dira futbol zelaiak nola egoki daitezkeen aztertzen

Jaien ostean argiaren, gasaren eta uraren probak egin behar dituzte igerilekuetan, eta ekipamenduak sartzen hasiko dira gero

O.E. > BERGARA

Bainuetxea eta berdegunea zabaldu eta gero, hirugarren faseari ekingo diote, futbol zelaien proiektuari, hain zuzen. Hala ere, oraindik ez dakite futbol zelaia egokituko duten edo ez eta nola egingo dituzten lan horiek. Datorren udan berdegunea zabaldu ostean hasiko dira udal ordezkariak Bergara Kirol Elkarteke ordezkariekin hitz egiten. "Asmoa da probetxu handiagoo ateratzea egungo futbol zelaiei eta belar artifiziala jartzea, baina

horretarako lur guztia zulatu behar da eta ez dakit hori posible izango den, azpian mehatzak daudelako. Gainera, garestia izango da", dio Valentin Egidazu Kirol zinegotziak. "Hala ere, oraindik ez dugu kirol elkartearekin hitz egin eta ez dakit euren zer nahi duten eta guk zer egin dezakegun, dena dago aztertzeke", gaineratu du.

AGORROSIN

Igerilekuak, gimnasioak, taberna, ludoteka eta bilera gela zabal-

tu dituztenean, irailean, Agorrosin izena hartuko du instalazioak. Eta izen bera izango du geroago egin nahi dituzten proiektuak egin ostean ere. Hau da, futbol zelaiak egokitzen dituztenean ere, Agorrosin izena soilik hartuko du kirolgune osoak.

BIDEA ZABALDU DUTE

Bestalde, egun hauetan itxita egon da Ipintzara joateko bidea, baina aste honetan bukatu ditu Antzibar enpresak lanak eta dagoeneko zabalik dago.

LAPURRETAK

Lapurrak sartu dira bi etxetan atea apurtuta

Astelehen goizean sartu ziren lapurrak eta hankaz gora utzi zituzten etxebizitzak

O.E. > BERGARA

Lapurrak sartu ziren astelehen goizean Telesforo Aranzadi kaleko bi etxebizitzatan. Sarrerako ateko sarraila apurtu zuten lapurrek etxe barrura sartzeko. Etxe biak hankaz gora utzi zituzten.

Atari bereko bi etxebizitzatan egin dute lapurreta, solairu bereko bi etxetan. Astelehen goizean sartu ziren, etxeetan inor ez zegoela. Eguerdian etxera bueltatu zirenean konturatu ziren jabeak lapurrak sartu zirela.

UDALTZAINGOAREN AHOLKUA

Astelehen goizeko bi lapurreta horiez gain, Udaltzaingoan ez dute beste lapurreta gehiagoren berri izan, baina, badaezpada, etxeko sarrerako atea giltzarekin bi bueltarekin itxeko aholkatu dute. Gaur, egubakoitza, hasi dira jaiak eta udaltzainek ez dute uste lapurreta gehiago izango direnik, baina neurriak hartzea gomendatu dute.

IAZ HIRU LAPURRETA

Udaltzaingoaren arabera, joan den urtean, 2005ean, hiru lapurreta soilik egin zituzten etxebizitzetan urte osoan. Aste honetakoak izan ei dira aurtengo lehenak, baina ez da arrazoirik lapurreta gehiago egingo direla pentsatzeko.

> MENDEKOSTE JAIK
20:00etan jaitsiko da Bitorianatxo, jai ei hasiera emateko

Bitorianatxoren jaitsierarekin hasiko dira gaur, egubakoitza, aurtengo Mendekoste jaiak. Martitzenean bukatuko dira eta bitartean ikusteko eta entzuteko asko egongo da San Martin plazan, Bideberrin, Munibe plazan eta Espolioan, besteak beste.

Ibilgailuendako aparkalekuak ere egokitu dituzte Pazko jaietarako. Udaltzaingoak seminarioko patioa eta Martinez de Irala ikastetxe-ko eta Ipintzara institutuko aparkalekuak egokitu ditu. Matxiategiko aparkalekuan barrakak egongo dira aurtenean, eta itxita egongo da.

AUDITORIOA > ERABILERA ASKOTARAKO IZANGO DA

Auditorioa egiteko proiektua esleitu du Udalak, eta 2007an hasiko dituzte lanak

Lanen lehen fasea adjudikatzen duten bitartean, erretaula, hilobia eta kupula nola berritu eta eraikin berrian non kokatu aztertuko dute

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Errege seminarioan auditorioa egiteko proiektua egitea onartu du udalbatzak asteleheneko osoko bilkuran.

Iñaki Aspiazu eta Xabier Ieregi arkitektoek egingo dute auditorioaren proiektua. 222.469,86 euro da aurrekontua. "Trailaren

15a baino lehen bukatu behar dute proiektua, eta abendura bitartean, lehen fasea adjudikatuko dugu. Aldundiak 1.750.000 euroko dirulaguntza ematen digu eta urtea bukatu aurretik izan behar dugu dena gertu. Bitartean, erretaula, kupula eta Andres De Madariagaren hilobia nola

berritu eta gero non kokatu aztertuko dugu", esan du Victoriano Gallastegi alkateak.

ARALAR EZ DAGO KONFORME

Aralar ez dago konforme proiektua esleitzeko Udalak eraman duen bidearekin, eta, nahiz eta proiektua beharrezkoa ikusi, abstenitu egin da. "Auditorioaren proiektua aspaldikoa da eta azkenean esleipen zuzena egin dute. Legeak dio lehiaketa publikoa deitu behar dela horrelako proiektuak egiteko, eta oraingo-

an ez da horrela gertatu", azaldu du Iñigo Iñurrategi Aralarreko zinegotziak. "Egia da dirulaguntzak jasotzeko beranduegi dela lehiaketa deitzea, baina egon da denbora. Prozedura hori ez zaitu ondo iruditu, eta horregatik abstenitu gara. Dena dela, badakigu arkitekto horiek lan txukuna egingo dutela", jarraitu du.

Bestalde, eraikina ez da oraindik Udalarena. Tramite gehienak eginda daude eta azkenekoak baino ez direla falta esan du alkateak.

> AURREKONTUAK Ekainean onartuko dituzte aurtengo aurrekontuak

Ekaineko osoko bilkuran onartuko dituzte, segurueenez, aurtengo aurrekontuak. Victoriano Gallastegi alkateak esan bezala, "batzorde bakoitzak egin du bere txostena; aztertu egin behar ditugu orain, eta ezer larria pasatu ezean, ekainean onartuko ditugu aurrekontuak".

> HIRIGINTZA Osintxu auzoko harrizko konponduko dute

Osintxu auzoko harrizko zubia egokitu egin behar dute, eta lanen proiektu teknikoa idatzita dago. LKS Ingeniari-tzak egin du eta laster adjudikatuko dituzte lanak. 96.252,29 euroko aurrekontua du proiektuak eta akta sinatetik hasi eta 90 egunean bukatu behar dituzte lanak.

> AHT Udalbatzak ez du onartu AHTren aurkako mozioa

AHTren aurkako mozioa aurkeztu zuen Aralar taldeak asteleheneko osoko bilkuran. AHTren ordez, tren sozialaren alde egiten zuten mozioak. Aralarrek eta Ezker Batuak bozkatu zuten bakkarririk alde; EAJ-EAk, PSOEek eta PPK, aurka. Mozioa ez zen onartu, beraz.

> HEZKUNTZA Miguel Altunan matrikulazio epea zabaldu dute

Miguel Altuna institutuan zabalik dago datorren ikasturterako matrikulazio epea. Ekainaren 7a bitartean egongo da zabalik 09:00etatik 13:00etara eta 15:30etik 17:00etara. Bergarako jaietan ere egongo da zabalik, goizez. Informazio gehiago zenbaki honetan: 943 76 38 40.



GOIENKARIA

Apartheid egoera salatu dute asteleheneko osoko bilkuran

Apartheid egoera salatu zuten hainbat herritarrek eta Bergara Aurrerako kideek asteleheneko osoko bilkuran, *No apartheid, dimisioak orain* zioten pankartak eskuetan zituztela.

Maiatzaren 25ean hiru urte pasa dira udal hauteskundeak azkenekoak egin zituztenetik eta ordutik hona 1.800 herritar inguru udal

ordezkaririk gabe daudela salatu zuten. Bergara Aurrera herri plataformari dagozkion hiru eserlekuak ematea ere eskatu zuten. Jesus Mari Garitano Bergara Aurrerako ordezkariak esan zuen PP eta PSOEren Alderdien Legea ez zela aplikatuko EAJren laguntzarik gabe, eta Udala ez dela demokratikoa salatu zuten.

CAMACHO
Drogeria
Usaindegia

Bidekurutzeta 24
BERGARA
943 76 13 35

POL-POL
Taberna

943 76 07 78. Bergara

OGIZUN
koop. elk.
okindegia

Ibargarai 44-46
BERGARA
943 76 45 53

Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13

ANTZERKIA > MOSTRAREN VIII. EKITALDIA

Txotxongiloen Mostra ekainaren 15etik 18ra Bergaran

Novedades eta Zabalotegiko aretoa itxita, emanaldiak kalean, gaztetxean eta Pol-Polen eta Aroztegin izango dira aurten

EDU MENDIBIL > BERGARA

Nazioarteko Txotxongiloen Mostra ospatuko da Bergaran, ekainaren 15etik 18ra. Taun-Taun antzerki taldeak egitaraua osatu du dagoeneko eta aurten ere izen handiko taldeak bisitari izango ditugu. Besteak beste, Valeria Guglietti argentinarra (*No toquen mis manos* ikuskizunarekin), Salamancako La Chana Teatro (*Entre diluvios*), Teatro Urgente madrildarrak (*Historias para un*

desván), Fadunito katalanak (*La gran familia*), Teatro Dejavu (Israeldik eta Venezuelatik *Pin ups* lana ekarriko dute) edota Tarragonako Pa Sucat taldea (*Maravillas de Oriente*) etorriko dira. Kukubiltxo izango da beste gonbidatuetako bat.

ANIMAZIO FILMAK INAUGURAZIOAN Novedades eta Zabalotegiko aretoa itxita, emanaldiak kalean, gaztetxean eta Pol-Polen izango



LA DIVINA COMEDIA Pepe Otal eta Pep Gomez, ekainaren 16an Pol-Polen. TAUN-TAUN

dira. Esan bezala, Mostra ekainaren 15ean irekiko dute, Aroztegi aretoan. Aurkezpen ekitaldiaren ondoren, Lleidako Animac

jaialdiko animazio filmak eskainiko dituzte. Era berean, *Stopmotion, cine y marionetas* erakusketari jarriko dute Aroztegin.



BENITO CANTERO

Argazki erakusketa Aroztegi aretoan

Iñaki Kaperotxipi zarauztarra (zuri-beltzean) eta Joaquin Vara errenteriarra (koloretan) izan dira Bergara Hiria Argazki Lehiaketako irabazleak. Bergararrei dagokienez, Benito Canterok bigarren saria irabazi du zuri-beltzean *Peru Saroi* argazkiarekin (goian); herriko onenaren saria Agustin Gurrutxagak jaso du (*Pagoa*); koloretan, *Abstracción y descanso*

lanari esker hirugarren saria eskuratu du Juan Antonio Untzurrunzagak eta herriko onenaren saria Juanjo Lopezendako izan da (*Dibujando Venecia*). Erakusketa zabalik izango da Aroztegin, ekainaren 2tik 11ra. Sari banaketa ekainaren 9an egingo dute, 20:00etan eta jarraian Iñaki Kaperotxipiren Etiopiari buruzko diaporama ikusteko aukera izango da.

> ERAKUSKETAK

Bingen De Pedroren margoak eta De Zerrioren eskulturak

Bingen De Pedro margolariak erakusketa jarri du Gas-teizko Felisa Navarro galerian (Zerkabarren 2), ekainaren 22ra arte. *Dulces ojos* izenburupean, De Pedrok 20 lan jarri ditu ikusgai, erakusketara hurbiltzen direnen begirada harrapatu nahirik. Hortik erakusketaren titulua. Joan den urtean eta aurten egindako lanak dira.

Bestalde, Xabier De Zerrioren eskulturak Urretxuko Juan De Lizarazu aretoan ikusi ahal izango dira, ekainaren 11ra arte.

> JAIK

Txosna batzordeak hainbat ekitaldi antolatu ditu

Hiru txosna jarriko dituzte Pazkoetan, bi Bideberrin (bat bokadiloak saltzeko) eta bat San Martin plazan. Bihar, zapatua, berriz, preso eta iheslarien eguna ospatuko dute. Eguerdian, txikiteoa eta jarraian Askatasunak antolatutako herri bazkaria egingo dute, San Martin plazan, 14:00etan. Txartelak Arrano tabernan daude salgai. Horrez gainera, alkandora urdinak ere jarriko dituzte salgai. Guz-tira, hamar taldek osatzen dute txosna batzordea.

> JAIK

San Esteban Elkoartiko jaiak domekan

Elorregi auzoko Elkorobar-rrutia baserriaren ermita da San Esteban eta Pazkoetako domekan ospatzen dute bertako jaiak.

Domekan, ekainaren 4an, jaien hasiera izango da 11:45ean, etxafuegoen jaurtiketarekin. Eguerdian, 12:00etan, meza izango da eta mezaren ostean salda, txorizoa eta kukainak. Auzotar dezente hurbiltzen da urtero San Esteban Elkoartiko jaira.

GURIA
Taberna

Bidekurutzeta 5
BERGARA
943 76 20 34

ETXE BERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tel.: 943 76 23 94 / 943 76 12 65

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

**KONDE
PANADEROKUA**



Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA

Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



AKUPUNTURA

INTEGU

Arrasate / Uarkape 18, behe, ez / 943 77 13 34

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

ALBAITARIAK

ARATZ KLINIKA (LAZPIUR ROMAN)

Bergara / Zurradero 6, behe / 943 76 70 67 / 607 48 71 19

ETXEBERRIA JULIO (DEBAGOIENeko ALBAITARI OFIZIALA)

Bergara / 609 54 16 13

ANALISI KLINIKOAK

LABORRA ISABEL

Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

BARNE MEDIKUNTZA

IRIGOIEN VICTOR

Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

DENTISTAK

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / Zerkaosteta 19, behe / 943 79 71 90

ASTIAZARAN SOLOZABAL

Bergara / Iparragirre 1, behe / 943 76 27 95

BENGOA SAN MIGUEL ANGEL

Aretxabaleta / Durana 14, 1. / 943 79 05 57

BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekuruzeta 36, behe / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE IRURETA ANE MAITE

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA

Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65

LOPEZ DE GOIKOETXEA

Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74

LORENZO MARTIN RAFAEL

Arrasate / Zarugalde 16-1. esk. / 943 77 12 63

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk. / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

TRIPALDI ENRIKE

Bergara / Justo Garate 1 / 943 76 70 76

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

Arrasate / Munar 10 / 620 124 843

DIETISTAK

ALBERDI MIREIA

Bergara / Masterreka 11, behe / 943 76 33 99 / 646 43 34 58

ENTZUMEN ZENTROAK

GAES

Arrasate / Otalora Lizentziaduna 18 / 943 71 27 93

INSTITUTO OPTICO - BIOACUSTICA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

FISIOTERAPEUTAK

ANDONI ETA MARIA BASTERRETxea

Arrasate / Garibai etorbidea 6B / 943 77 03 96

ARZAK MIREN

Bergara / Artekalea 1-1H / 943 76 43 71

BASTERRETxea MARIA

Bergara / Artekalea 1-1H / 943 76 43 71

EKIN FISIOTERAPIA ZENTROA

Aretxabaleta / Belorrieta 6 - 7 / 943 79 95 64

IONE MOÑUX FISIOTERAPIA ZENTROA

Bergara / Burdiñate 2 / 943 76 21 31

NAREN FISIOTERAPIA ZENTROA

Aretxabaleta / Belorrieta 5 / 943 08 21 89

ORMAZABAL FISIOTERAPIA ZENTROA

Bergara / Telleria 6 bis, 11 bulegoa Labegaraieta ind. / 943 76 53 35

UNZUETA IRENE. SAN MARTIN OSASUNDEGIA.

Bergara / Ramon Maria Lili 2 / 943 76 59 39

KIROPRAKTIKA ZENTROA

LARRAÑAGA ANDREA

Arrasate / Erdiko kalea 22, 3. esk. / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

MASAJISTAK

ABUIN JOSE LUIS

Arrasate / San Josepe 10, behe D - Kiroldegian

943 77 01 33 / 943 77 16 77

ARANTZABAL SAIOA

Elgeta / Domingo Iturbe 10 / 646 50 00 29

ARANTZETA JUAN MARI

Elgeta / Salbador 28 / 943 76 80 54

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behe / 943 76 73 43

CASANELLAS JABIER

Bergara / Boni Laskurain 5-2E / 943 76 03 78

ELORTONDO FLOREN

Aretxabaleta / Basabe industrialdea D, z/g / 629 77 85 84

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

OPTIKAK

ARRASATE OPTIKA

Arrasate / Kontzezino 6 / 943 79 25 98

BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

INSTITUTO OPTICO

Arrasate / Kale Barria 32 / 943 71 82 88

ITZIAR OPTIKA

Oñati / Kale Barria 32 / 943 71 82 88

ITZIAR UGARTE OPTIKA

Arrasate / Arrasate Pasealekua 35-37 / 943 08 26 87

MULTIOPTICAS LARRAÑAGA

Arrasate / J. Carlos Guerra 1 / 943 79 29 95

PORTALOI OPTIKA

Arrasate / Erdiko kalea 10 / 943 79 65 56

ORTOPEDIA

ORTO LAGUN

Arrasate / Kontzezino 2 / 943 79 89 34

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA (ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

OSTEOPATIA

BENGOA NEREA

Arrasate / Azoka kalea 4 / 659 58 66 89

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

PODOLOGOAK

AZPIAZU ARANTZAZU

Bergara / Herri Lagunak z/g / 943 76 41 32

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behe esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKIATRA

GALLASTEGI PABLO

Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

GARMENDIA LANDER

Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA ZENTROA

Bergara / Herri lagunak z/g / 943 76 14 80 / 610 05 99 55

ZUBILLAGA ZABALA MARISA

Bergara / Psikologo klinikoa / 943 76 30 76

UROLOGOAK

LLUCH ALBERTO (UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA)

Arrasate / Ferrerrias 56 / 943 79 44 22

YOGA

AREDHANA YOGA ETA GESTALT PSIKOTERAPIA ZENTROA

Aretxabaleta / Santa Kurtz 24 / 616 96 57 95.

SAMADHI YOGA

Bergara / Masterreka 13, behe / 943 76 11 38 / 639 235 753

ARETO FUTBOLA > LABEGARAIETAKO TXAPELKETA

Kolpeka amaitu zuten Labegaraietako Kopako finala

Kalaveras eta Paco Cia taldeko jokalaria kolpeka hasi zirenean erabaki zuten epaileek Kopako finala bertan behera uztea

XABIER URTZELAI > BERGARA

Labegaraietako areto futbol txapelketako antolatzaileek ahazteko moduko urtea dela esan digute, hainbat arrazoiengatik Liga-ko eta Kopako txapelketan ez delako irabazlerik egon.

ISTILUAK FINALEAN

Joan den domekan jokatu zuten Kalaveras (Arrasate) eta Paco Cia (Bergara) taldeek Kopa Txapelketako finala. Arratsaldeko

18:00etan hasi zuten partidua, baina epaileek uste baino lehenago adierazi behar izan zuten partidua amaituta zegoela; bertan behera utzi zuten norgehiagoka. Epaileen eta kiroldegikoen esanetan, norgehiagoka oso gogorra izan zen, jokaldi itsusiekin betetakoa. Alde horretatik, azpimarratu dute bi taldeek izan zutela horren ardura, baina Paco Ciako jokalariek batek emandako lekuz kanpoko ostikadaren ondoren hasi ziren istiluak. Jokaldi hori ikusita, harmailetan zegoen Arrasateko jarraitzaile batek bonboaren makila kantxara botatu zuen, eta makila hori jasotzera jaitsi zenean etorri ziren matrailetakoa.

Bi taldeak lekuz kanpo, epaileek erabaki zuten partidua bertan behera uztea zela erabaki onena. Hala, Ligan gertatu

moduan, Kopa txapelketan antolatzaileek datorren urterako gorde beharko dituzte garaikurrak.

AHAZTEKO MODUKO URTEA

Labegaraietako antolatzaileek urte osoa eman dute txapelketok antolatzen, eta bietako batek ere ez du irabazlerik izan. Ligan, Guri Guri taldea zegoen sailkapenean agintzen, baina antolatzaileek zigortu egin zuten talde hori, jokalarietako bat federatuta zegoela jakin zutenean; arauen kontrakoa da hori. Guri Gurik argudiatu zuen jokalar hori ez zegoela federatuta, entrenatzaile lanak egiteko federatu zela, ez jokalar moduan jarduteko. Hala, antolatzaileek erabaki salomonikoa hartu zuten: lehen bi sailkatuek jolas dezatela irabazlea nor den erabakitzeko partidua. Guri Gurik ez zuen hori onartu.



ASTELEHENEAN Arratsaldeko 19:30ean hasiko dituzte finalak.

X.U.

PILOTA > BERGARA HIRIA TXAPELKETA

Bergarak bi ordezkari izango ditu finaletan

22 urtez azpikoetan Larrañagak ordezkatu du Bergara; nagusitan, Gutierrezek

X.U. > BERGARA

Astelehenean, hilak 5, jokatuko dituzte Bergara Hiriko pilota txapelketako finalak. Hala, 19:30ean hasiko da 22 urtez azpiko finala. Jon Larrañaga bergararrak Jurgi Larrañaga bikotekidearekin batera egingo die aurre Olo eta Etxeberriari. Azken bikote horrek martitzen erdietsi zuen finalerako txartela, Uzkuduni eta Azpitarteri 22-5 irabazita.

Akaso, Olo eta Etxeberria izango dira finala irabazteko favorito, baina Jurgik oso maila ona erakutsi du txapelketan zehar, eta Jonek maila onean jokatzen badu, kontrarioak gogotik egin beharko du lan.

Bitxikeria moduan esan, Larrañagarrek Bergara Hirian bikotea osatzen badute ere, oraino egunotan jokatzen dabiltzan Herri Arteko Txapelketako final-laurdenetan kontrario direla, Bergara eta Azpeitia dabilta-eta kanporaketa gainditzeko lehian.

NAGUSITAN, FAVORITO

Nagusien kategorian, berriz, txapelketan zehar Renobalesek eta Gutierrezek erakutsi dute maila onena, eta Aioren eta Apraizen kontra lehiatu beharko dira asteleheneko finalean. Azken bikote horrek gogotik egin behar izan zuen lan martitzen Belloso eta Arroiti mendean hartzeko (22-20).



EDU MENDIBIL

Pilota sailaren zozketako sarituak

Bergara KEko pilota sailak egindako zozketan Mari Karmen Garciak eskuratu du lehen saria. 8.783 zenbakiaren jabeak domekako eskuz banakako pilota finalerako bi sarrera eta 500 euro jaso ditu. Bigarren saria (5.453 zenbakia) Paulo Iparragirri tokatu zaio: lau lagunendako afaria Erreki jatetxean eta 200 euro. Argazkian, Reyes Azkoitia, Mari Karmen Gartzia, Paulo Iparragirre eta Errekiko Aurelia Acedo.



AZKARATE AROZTEGIA
Telleria 19, B-0-2 B-0-3. BERGARA
Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20

Arotz lanetan behar duzun guztia
www.goiena.net/blogak/azkarate

PINTXOAK eta OGITARTEKOAK SEKULAKO MARTXA!!

EUXEBIO II

Irala z/g Bergara
943 76 07 92

> KIROLDEGIA

Gaurtik hasi eta eguaztenera arte igerilekuak itxi egingo dituzte, udarako prestaketak egiteko

Gaur bertan itxiko dituzte igerilekuak, eta eguaztenerako arte ez dituzte zabalduko. Hala, egunotan herriko jaiak direla aprobetxatuta, udarako prestaketa lanak egiteko aprobetxatuko dute.

Horrekin batera jakin, ekainaren 10ean irekiko dutela igerilekuko karpa, eta baita eguzkia hartzeko eremua ere. Udako txartela egiteko sasoi, berriz, ekainaren 10etik 15era izango da.

> ZIKLISMOA

Domekan egingo dute 71. Pentekoste Saria, Lehendakari Txapelketa barruan

Hemeretzi eta hogeituroko ziklistek 09:30ean hasiko dute 71 urte egingo dituen Pentekoste txirrindularitza lasterketa. 112 kilometro ibilbidean, ziklistek birritan igoko dute Eskoriatzaraino, eta hirugarren itzulian Angiozarrera egingo dute, Asentzio gainetik Elgetara jaitsi eta Uberatik Bergarara jaisteko. Hala, antolatzaileek azken kilometroetarako utzi dituzte malda gogorrenak, 100. kilometrotik aurrera, hain zuzen.

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN JAIA

Egubakoitza / 2006ko ekainaren 2a / GOIENKARIAren PUBLIZITATE GEHIGARRIA / Arduraduna: Leire Kortabarria / Maketazioa: Oxel Arrieta



AZALA: IMANOL SORIANO / ARGAZKIA: MAIDER ARREGI

**Eskolaren eta
alkatearen agurra
Egitaraua
Ekintza aipagarriak
Garraiobideak eta
aparkalekuak**

GRUPO CEGASA 


**ENERGIA
PORTATIL S.A.**

Lizaur kalea 1
20560 OÑATI
Tel.: 943 78 03 52 • Faxe: 943 78 01 98



**hamaika
esperientzia,
proiektu bat**

- elkarlana
- lankidetzaz
- herrikoia
- aktiboa
- prestatua
- kalitatezkoa
- integratzailea
- berritzailea
- konpromisoduna
- sustatzailea
- euskalduna



GOIESKOLA

**mugak gaindituz,
herriak biribilduz**

DENOK OÑATIRA!
EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN JAIRA!

Gatzaga/Eskoriatza
Luis Ezeiza
Haur eta Lehen Hezkuntza:
Gaztainadui z/g.
Tel.: 943 71 49 38

Aretxabaleta
Kurtzebarri Eskola
Haur eta Lehen Hezkuntza:
Santa Kurtz 19.
Tel.: 943 79 00 49
Kurtzebarri BHI:
Herriko plaza 1.
Tel.: 943 79 57 40

Arrasate
Arrasate Herri Eskola
Haur Hezkuntza:
Musakola. Elcano 10.
Tel.: 943 79 04 49
Bedoñabe, Alfontso VIII
Tel.: 943 79 20 69
Lehen Hezkuntza:
Erguin, Urizarri 36.
Tel.: 943 79 77 74
Arrasate Institutua
DBH eta Batxilergoak:
Santa Teresa 25.
Tel.: 943 79 44 47

Aramaio
San Martin
Haur eta Lehen Hezkuntza:
Nardeaga z/g.
Tel.: 945 44 50 04

Bergara
San Martin Agirre
Haur eta Lehen Hezkuntza:
Boni Laskurain 25.
Tel.: 943 76 21 47
Ipintza
DBH eta Batxilergoak:
Boni Laskurain 19.
Tel.: 943 76 31 42

Antzuola
Antzuolako Herri Eskola
Haur eta Lehen Hezkuntza:
Buztinzuri 3.
Tel.: 943 76 62 68

Elgeta
Elgetako Herri Eskola
Haur Hezkuntza:
Maala 4.
Tel.: 943 76 82 26

Oñati
Errekalde
Haur eta Lehen Hezkuntza:
Errekalde auzoa 25.
Tel.: 943 78 07 64
Zuazola Larraña Oñatiko BHI
DBH, Batxilergoak eta
Heziketa Zikloak
Aita Madina z/g
Tel.: 943 78 12 68

■ OÑATIKO EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN AGURRA

Mugak gainditu nahian, guztiok Oñatira domekan

'Mugak gaindituz, herriak biribilduz' lelopean, Euskal Eskola Publikoaren XV. jaia antolatu du Goieskolak Oñatin

1) LELOAREN ZERGATIA

Horrelako jaietan ahalegin handia egiten da leloa auke-ratzeko orduan. Mezua argia eta bikoitza da oraingoan. Lehen zatiak dio hesi asko gainditu behar dugula oraindik. Eskola egunez egun egiten baita, etengabeko hobekuntzan. Mugak gaindituz lortzen dugu eskola handitzea, pertsona guztiei leku eginez irekitzen dugu bidea. Eta horrek dakar, ezinbestean, gure izatea, gure hizkuntza, gure kultura indartzea.

Borobilak, berriz, edertasuna, perfekzioa adierazi ohi du. Denon eta denontzako eskola publikoa izango bada, ezinbestekoa dugu trukean eta lankidetzan oinarritutako elkarlana.

Borobil askok osatzen du karte-leko irudia, baina oraindik ere badago ekainaren 4an aldarrikatuko dugun horrentzako lekua.

2) DEBAGOIEN MAILAKO JAIA

Debagoienara, Oñatira ekarrita, urteroko topaketa hiri-buruetatik kanpo ospatzea lortu da, batetik.

Bestetik, aukera ezin hobea da Goieskola -Debagoieneko Euskal Eskola Publikoa- proiektuan aurrera egiteko. Bertan, 2.500 familia, 3.000 ikasle, 425 irakasle eta 65 langile ditugu, beste hainbat elkarte eta erakunderekin elkarlanean, kalitatezko heziketa integralaren aldeko apustuan.

Ezin eskertu gabe utzi Debagoieneko herri-eskola guztietatik jaso dugun laguntza eta berotasuna

3) JAIA ETA ALDARRIKAPENA

Jai-giroa nagusi izan dadin, sei-zazpi gunetan banatuko den egitarau zabala prestatu dute dagoeneko. Pailazoak, tailerrak, kontzertuak, kale animazioa, jolasak, natur-guneak gozagarri izango dira bederatzi ordu inguruko jai etengabea.

Denon buruetan izango dira, ordea, Euskal Eskola Publikoetako Gurasoen Elkartetik -EHIGE- behin eta berriz aldarrikatzen ditugunak: 0-3 urte bitarteko heziketa-ziklo publikoa, eskola-mapa berria, duela 20 urte pasa ezarritako hizkuntza-ereduetatik haratago joatea, ikastetxeen autonomia bultzatzea, familien parte-hartzea bultzatzea...

4) AGURRA ETA DEIA

Gonbita egin nahi diegu:

-Euskal Eskola Publikoak gure hezkuntza-sistemaren bizkarrezur izan behar duela pentsatzen dutenei.

-Eskola Publikoa euskalduntze prozesuaren benetako protagonista dela pentsatzen dutenei (D ereduari matrikulatutako hiru ikasletik bi publikoan daude).

-Kalitatezko euskal eskola publiko euskaldunarekin identifikatzen diren guztiei.

-Oro har, euskaltzale eta euskaldun guztioi, azken finean hizkuntzaren normalizazio bidean Euskal Eskola Publikoak egindako lanaren lekuko izango baita ekainaren 4ko jaia Oñatin.



LOURDES IDOIAGA
Oñatiko alkatea

Alkatearen ongietorria ekainaren 4ko jaira datozen guztioi

Lerro hauen bidez eman nahi diot ongietorrikerik beroena Euskal Eskola Publikoaren festako XV. ospakizun honi.

Alde batetik, oñatiar guztien izenean eskertu nahi diet EHIGEkoei (Eskola Publikoko Guraso Elkarteak), Errekalde eskolako guraso eta irakasleek egindako eskariari baiezkoa emanez, hiriburuetatik atera eta aurtengo festa Oñatiko herri eder eta atseginera ekartzeagatik.

Baina, batik bat, denon izenean Errekaldeko guraso eta irakasleak zoriondu nahi ditut, azken hilabeteetan egin duten lan honengatik guztiagatik: ilusio handiz, imajina-

zio eta konpromiso handiari esker, begira zer-nolako ospakizuna prestatu diguten.

Ahalegin horren emaitza da orain gutxi aurkeztu zizuten programa, era guztietako aktibitateak uztartzen dituen, baina bereziki naturarekin loturiko ibilaldi ederra eskaintzen diguna.

Benetan zorionak! Eta, guztia arrakastatsua izango den ziurtasun osoarekin, bai oñatiar guztiei eta bai kanpotik etorriko diren guztiei, egun ederra igarotzeko gonbita eta desiorik onena.

Guztioi, ongi etorri! Eta nire agurrik beroena.

**Euskal Eskola Publikoaren
jai zoriontsua opa dizuegu denoi!**



Arantzazuko bidea z/g
20560 Oñati
Tel.: 943 71 63 69
info@zahor.com
www.zahor.com

■ EGITARUA GUNEZ GUNE

Euskal Eskola Publikoaren jaia

1. FORUEN ENPARANTZA

Euskal Eskola Publikoaren jaiari hasiera Foruen enparantzaz emango zaio, **goizeko 11etan**.

Ondoren, eguerdi aldera, **umeentzat herri kirolak** egongo dira. **13:15ean Tapia eta Leturiaren kontzertua** egongo da.

Bazkaldu ondoren, aspaldian modan jarri den **batukadaz** gozatzeko aukera egongo da, 15:30ean.

Foruen enparantzako gune horretan punta-puntako kontzertua egongo da: **Oskorri** taldea izango da protagonista. Kontzertua arratsaldeko 6etan hasiko da.

2. FRONTOIA

Euskal Eskola Publikoaren jaiaren adin guztietako lagunendako guneak zehaztu dituzte. Txikiendako gunea Foruen enparantzako frontoian egokituko dute. Egun osoan zehar **Beibilekua** izeneko txokoa izango da protagonista.

Txatxilipurdiko lagunaren eskutik **puzgarriak eta tailerrak** egongo dira. 6 urte arteko neska-mutikoak izango dira protagonistak gune berezi horretan.

Gazteendako gunean, frontoian bertan beste bi gune ere egokituko dira: **Eroski eta Euskadiko Kutxa** izango dira gune horietako protagonistak.

3. ETXALUZE

Txatxilipurdiko lagunak izango dira baita ere gaztetxoendako guneaz arduratuko direnak. **Bihurrikeixetan** izeneko txokoa egokituko dute: Errenteriako Udaleko tailerrak, Rosa Garate tailerra eta Bide Hezkuntza tailerra.

Telebista bidez hain ezagunak diren **Betizu klubeko lagunak** ere gune berezia izango dute: ETB gunea.

Poxpolo, Mokolo eta Konpainia pailazoek ikuskizuna eskainiko dute arratsaldean. Eta **Kanpanolue!** berbena saltseroa ere egongo da Etxaluzeko gunean.

4. SANTA MARINA: NATURGUNEA

Santa Marina plazan egokituko dute naturgunea. Bertan, egun osoan zehar **artzaintzari buruzko erakusketa** egongo da ikusgai. **Idiazabalgo gazta** dastatzeko aukera izango dute guztiok.

Natur Eskolaren eskutik, bestalde, naturarekin lotutako **haurrentzako tailerrak** antolatuko dituzte.

Naturgunean, azkenik, **Errekalde auzoaren inguruan hiru kilometroko ibilbidea** egiteko asmoa dute. Ibilbide horretan naturarekin bat egiteko aukera izango da: baserriak, animaliak eta beste ikusteko aukera egongo da.

5. PORTUKALE: HIP-HOP GUNEA

Portukalean gaur egungo joerak egongo dira ikusgai. Portukaleko plazatxoan, grafitiak eta **break** dantzez gozatzeko aukera egongo da, besteak beste.

Hala, 11:00etatik 14:00etara, **grafiti, scratch, DJ eta break-dance** tailerrak egongo dira nahi duten guztientzat. Dantza eta ariketa horiek ikasteko aukera egongo da.

Bazkaldu ondoren, aldiz, 16:00etatik 18:00etara, **break dantzarien erakustaldia** egongo da eta abeslari gazteen musikatik gozatzeko aukera ere bai.

6. UNIBERTSITATEA-ZUAZOLA INSTITUTUA

Gazteen gunea izango da unibertsitate aurrealdean kokatuko dena. **Euskal dantzen erakustaldia** egingo dute Zuhaitzi eskolako, Urdaneta eskolako eta Oñatz taldeko lagunak.

Gune horretan, **Gose, Sharon Stoner eta Potemkin** taldeen kontzertua izango da, 16:00etan. Bestalde, **tirolina, eskalada eta rapela** egiteko aukera egongo da, institutuko ikasleek prestatuta.

Bi erakusketa ere egongo dira, unibertsitateko klaustroan.

7. OLAITURRI: KARIBEKO DOINUAK

Karibeko doinuek lekua berezia izango dute Euskal Eskola Publikoaren jaiaren egitarauan. **Euskadi-Kuba gunean**, besteak beste, jokoak, ipuin kontalariak, txapa eta grafiti tailerrak eta erakusketa egongo dira ikusgai. Euskadi-Kuba gunean, arratsaldean, **kubatar dantzen erakustaldia** izango da.

Zazpi gune berezi horietatik kanpo, kaleak alaitzeko asmoz beste musika mota batzuk iragarri dituzte: **elektrotunoak, Oñatiko musika eskolako ikasleak eta batukada** izango dira kaleak animatzeaz arduratuko direnak.



DOAKOA

ZIENTIFIKOA

PARTE-HARTZAILEA

LAIKOA

PLURALA

EUSKALDUNA

GIZALEGEZKOA


HUMANISTIKOA

DESBERDINTASUNAREN INTEGRATZAILEA

Euskal Eskola Publikoaren alde, guztiona eta guztiontzat.

Ezker Batua
Berdeak

nia, zazpi gunetan banatuta



www.eroski.es

HURBILEN DUZUN SUPERMERKATUA

 **EROSKI** /online

ZURE SUPERMERKATUA INTERNETEN

Goza ezazu Jaia

■ KONTUAN HARTZEKOAK

Naturak eta kulturak bat egingo dute Oñatiko jaian

Naturak eta kulturak bat egingo dute domekan, Euskal Eskola Publikoaren aldeko jaian. Oñatiko Errekalde Herri Eskolak antolatuta, hainbat ekitaldi izango dira Oñatiko kaleetan. Bai nagusi eta bai txikiei eskainitako ekitaldiak egongo dira. Goizeko hamaiketan emango zaio jaiari

hasiera eta egun guztian zehar jarraituko du Euskal Eskola Publikoaren aldeko jaiak. Foruen enparantzian umeentzat herri kirolak egongo dira eta, 13:15ean, Tapia eta Leturiaren kontzertua. 18:00etan, berriz, Oskorrik emango du kontzertua. Plazako frontoian egun guztian zehar *Beibilekua* egongo da, Txatxilipurdik

antolatuta. Gune hori 0-6 urteko umeentzat izango da; hain zuzen ere, puzgarriak eta tailerrak egongo dira. Gaztetxoek Etxaluzeko parkean Betizu kluba izango dute eta Portugalean hip-hop musikaren doinuaz gozatzeko aukera egongo da. Horrenbestez, dena prest dago jaiaz gozatzeko! / ARANTZAZU EZKIBEL



GOIENKARIA

HIRU KILOMETROKO NATUR IBILBIDEA ETA ABERE ERAKUSKETA

Oñatiko Natur Eskolak eta Artzain Eskolak antolatuta, domeka goizean natur ibilbide ez gidatua egongo da. Ibilbideak Torrealdean izango du hasiera eta pinudi artean izango da ia zati gehiena. Ibilbidean zehar, naturarekin bat egiteko aukera egongo da: ardiak, behiak, pottokak... ikusi ahal izango dira. Errekalden izango du amaiera natur ibilbideak.



EIDABE

'KANPANOLUE', 60KO HAMARKADAKO GIROKO JAI ALAIA

Umeendako *Kanpanolue* berbena estreinatuko dute Euskal Eskola Publikoaren jaialdian. Umeendako da bereziki, baina adin guztietako jendeak parte har dezake. 60ko hamarkadako guateke giroan, jendea mugiaraztea da Eidabe taldearen helburua. Ordu eta laurdeneko ikuskizuna da, dibertigarria, freskoa, ausarta eta alai.



EUSKADI-KUBA

EUSKADI-KUBA GUNEA

Oñatiko gunean Kuba ezagutzeko aukera izango dugu. Egun osoan zehar, haurrentzako jokoak, ipuin kontalariak, txapa eta grafiti tailerra, eta abar egongo dira. Karibeko herriari buruzko erakusketa ikusteko aukera ere izango dute bertara hurbiltzen direnek. Eta, nola ez, dantza egiteko aukera egongo da. Dantza saioa arratsaldean izango da.



GOIENKARIA

ZUAZOLA-LARRAÑA IKASLEEN ESKUTIK KIROL ABENTURA

Oñatiko Unibertsitate eta Zuazola-Larraña institutu inguruan euskal dantzak, rock kontzertuak eta kirol abentura ezberdinak egiteko aukera egongo da. Goiz partean euskal dantzak egongo dira eta, 16:00etan, Potemkin, Sharon Stoner eta Gose taldeen kontzertuak. Institutuko ikasleek tirolina, eskalada, rapela... prestatu dituzte guztiontzat.

Euskal Eskola Publikoaren Jaia

SAIO BEREZIA
Martitzenean, ekainaren 6an

Goitb
Goiena Telebista
Ikustekoa!



■ 30.000 LAGUN ESPERO DITUZTE ANTOLATZAILEEK

250 autobus eta 4.000 autorendako aparkalekuak

MIREIA BIKUÑA

Eguraldiak laguntzen badu, 30.000 bat lagun batzea espero dute Euskal Eskola Publikoaren jaiko antolatzaileek. Eta horrek esfortzu berezia ekarri die aparkalekuak antolatzeko orduan; izan ere, herrigunean aldaketak egingo dituzte: kaleak moztuko dituzte eta autorik ezingo da hartu.

Oñatira etorriko diren auto eta autobusak modu egokienean aparkatu ahal izateko, Zubillaga eta Oñati arteko enpresei baimena eskatu diete euren aparkalekuak erabiltzeko. Hala, Fagor, Txintxurreta, Stadler, Fagor eta Lana enpresetako aparkalekuak erabiliko dituzte. Izan ere, antolatzaileek 3.000-4.000 auto espero dituzte.

Lehen-lehenik herriguneko aparkalekuak beteko dira: Ibarra, Olaiturri, Osinurdi, Garai eta Ulmako aparkalekuak. Ondoren,

herrigunetik kanpo dauden enpresetako lekuak beteko dira.

Legazpi aldetik datozen autoak ETEO atzealdeko zelaietan eta Zahorreko aparkalekuan kokatuko dira. Arrasate aldetik datozen autoak, berriz, Zubillaga eta Oñati arteko enpresetako aparkalekuetan, hau da, Ulma, Txintxurreta, Fagor, Stadler eta Lanako aparkalekuetan. Eta aparkaleku haietan autoak uzten dituzten lagunak herrigunera eramateko zazpi autobus ibiliko dira etengabe. Eta autobusak bete ahala Oñatirantz abiatuko dira; hain zuzen ere, Bidebarrieta kalean geratuko dira.

Zazpi autobus egongo dira jendea Oñatira eramateko

AUTOBUSAK

Lagun asko autobusez etorriko dira eta haiendako tokiak ere egokituko dira: Otadui zuhaitzian eta Berezaio industrialdean utziko dira autobusak. 250 autobu-sendako lekua egokitu dute.

HERRIGUNEA ITXITA

Ekainaren 4an, bestalde, herrigunea autoendako itxita egongo da. Larrialdi kasuren bat ez bada, ezingo da autorik erabili herriko kale batzuetan. Unibertsitate etorbidea itxi egingo dute eta Bidaurretako biribilgunean behera ere bidea itxita izango da. Errekalde auzora joateko aukera egongo da, Bakardadeko Ama, San Anton, Aita Madina eta Lizaur kaleetatik; Errekalde auzora joateko, berriz, Kurtzebide kalea erabili beharko da. Dena dela, premiazkoa ez bada egun horretan, ekainaren 4an, autorik ez erabiltzeko eskaera egin dute Euskal Eskola Publikoaren jaiko antolatzaileek.

Aparkalekuak

- Herrigunean: Ibarra, Olaiturri, Osinurdi, Garai, Kurtideria eta Ulman.
- Herrigunetik kanpo: ETEOko zelaietan, Ulman, Txintxurretan, Stadlerren, Fagorren, Lanan, Zahorren eta Betik-eko aparkalekuetan.
- Herrigunetik kanpo aparkatzen dutenentzat, zazpi autobus arituko dira.
- Legazpi aldetik datozen autobusak: Berezaio industrialdean.
- Arrasate aldetik datozen autobusak: Otadui zuhaitzian.

Herriguneko kaleak itxita

- Herrigunea itxita egongo da autoendako.
- Unibertsitate etorbidea moztuta egongo da.
- Bidaurretako biribilgunean behera kaleak itxi egingo dituzte.
- Errekalde auzotik irteteko, Bakardade Ama, San Anton, Aita Madina eta Lizaur kaleak erabili beharko dira.
- Errekalde auzora joateko, Kurtzebide kalea erabili beharko da derrigorrez.



**EUSKAL
ESKOLA
PUBLIKOAREN
ALDE**

www.aralar.net
debagoiena@aralar.net

ESKOLA PUBLIKOA: EUSKAL SOZIALISTEN APUSTUA

Euskal Sozialistok **elebitasunaren bultzatzaile** sutsuak izan gara, eta eskola publikoan euskara ikastearen alde egiten dugu.

Sozialistok **erantzukizuna** eskatzen diegu ikasketa zentro guztiei, publiko nahiz pribatu, ikasteko arazoak dituzten kolektiboek laguntzeko.

Gurasoek eskubide osoa izan behar dute seme-alabentzat ikastetxea aukeratzeko orduan, **kalitatezko irakaskuntza**, diskriminaziorik eza eta aukera berdintasuna bermatuko dituen.

Irakasleriaren duintasuna nahi dugu eta ikastetxeetan betetzen duten lana indartzearen alde egiten dugu.



PSE-EE
PSOE

Jean Louis David

AUSART ZAITEZ!



TRADITION

Ibargarai 43 • 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 22 48

DIFFUSION

QUICK SERVICE

Magdalena 16 • 01008 GASTEIZ • Tel.: 945 13 47 26

DIFFUSION

Garbera Merkataritza etxea 23 aretoa
20017 DONOSTIA • Tel.: 943 39 45 86

DIFFUSION

Urbil Merkataritza etxea B7 aretoa.
20170 USURBIL • Tel.: 943 36 08 17

DIFFUSION

Lakua Merkataritza etxea 05 aretoa
01010 GASTEIZ • Tel.: 945 17 91 50

BULEGO ZENTRALA TRAINING CENTER

Gasteiz Etorbidea 84
01012 GASTEIZ • Tel.: 945 21 42 38

Aurrera Euskal Eskola Publikoa!

nire bidai hura

Josue Lazkano
Uganda > 2006ko Aste Santua

"Ibaiak zabalagoak dira hemengoak baino, eta piraguan ibiltzeko modua ezberdina da"

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

Aste Santuko oporrak aprobetxatuz Ugandara egin zuen bidaiaria Josue Lazkanok hainbat lagunekin hamai-ka egunerako. Ez zen nolana hiko bidaiaria izan, ordea, piraguan ibiltzera joan baitziren Nilo ibaira.



Josue Lazkano.

Beti Busti taldeko kide da Josue Lazkano eta taldeko bi lagun beste zenbait zalerekin elkartu ziren bidaiaria horretarako. "Zenbait lagun Pirinioetan ibiltzen gara piraguan eta Irungo lagun bat kanpoan asko ibilitakoa da; hark egin zigun proposamena eta lau lagun joan ginen", esan digu Lazkanok.

Internet bidez hartu zuten hegaldia. "Bilbotik Bruselara joan ginen eta handik Entebbera. Kampala hiriburutik gertu dagoen aireportua da". Kanpin bateko etxetxo batzuetan hartu dute ostatu. "Gureaz gain, han inguruan baziren beste pare bat kanpaleku. Jinjan hotelak eta ostatuak ere badaude; agian ez maila handikoak, baina aukera badago", azaldu digu.

UR BIZIAK

Piraguekin ur bizietan ibiltzen dira, eta Ugandara ere ez dira joan errekan barrena paseoa ibiltzera, ur biziekin goatzera baizik. "Nilo ibaiaren goiko partean ibili gara, Victoria lakutik gertu, Bujagalin". Ibaia zailtasun maila laka banatuta dago eta norbere ahalmenen arabera bide batetik edo bestetik joatea gomendatzen dute. "Gidari bat hartu genuen, bestela, galtzeko edo zati arriskutsuetatik sartzeko aukera egon daiteke. Ibaiak askoz zabalagoak dira hemengoak baino eta ibiltzeko modua ezberdina da", Josueren esanetan.

Bidaian telebistako lagunekin ere egin dute topo, *Al filo de lo imposible* saiokoekin, hain zuzen ere. "Ugandara abiatu aurretik jakin genuen saio horretako talde batek joan behar zuela ibaia jaistera eta saioa filma-

tzera. Ezagunak ditugu taldeko batzuk eta eurekin harremanetan jarri ginen. Beraz, euren informazioa baliatu genuen gure bidaiarako, eta han ere pare bat egunean ibili ginen telebistakoekin piraguan".

TURISORIK EZ

Turismorik apenas egin dute, "gure kanpamentutik gertu ibili gara. Jinja hiria bisitatu genuen eta bueltan baita Kampala ere; baina gure helburua ez zen turismoa egitea. Esaten dutenez Ugandan natur parke ikusgarriak daude. Rubenzori mendia multzoaren magalean, lautadan, animalia asko ikusten dira. Bada gorilak ikusteko beste toki bat ere; *Gorilas en la niebla* filma egin zuten bertan. Ugandan ez dago turismo handirik, baina polita da; oiha, berde-berdea... Animaliak ere badaude, baina guk sugeren bat, tximinoak eta krokodilo txiki bat baino ez ditugu ikusi.

Ibaian kartelak ikusi ditugu krokodiloak daudela esanez, baina bertakoen arabera beherago daude, eta ur lasaietan".

Turista modura joan ez badira ere, bertara kanpotik doazen guztiek bezala txerto mordo hartu behar izan dute; eta, gainera, bertakotzeko behar izan dituzte lehen egunak. "Txertoek gorputza moteltzen dute; bestalde, tenperatura aldaketa ere oso handia da, bero egiten du han".

Batetik bestera mugitzeko taxiak, bora-bora izeneko motorrak edo furgonetak alokatzea gomendatzen du Josuek. "Betiere gidariarekin, ez bakarrik. Izan ere, errepide nagusiaz gain, beste bideak pistak dira eta apenas dago seinalerik".

Janariari buruz galdetuta ongi jan dutela esan digu Josuek. "Hemengo taloaren antzerako opil batzuk jaten dituzte eta barruan denetarik ipintzen diote: haragia, barazkiak...".

"Nilo ibaiaren goiko partean, Victoria lakutik gertu ibili gara ur bizietan piraguekin"

"Uganda polita da; oiha, berde-berdea... baina ez dago turismo handirik"



Josue Lazkano (eskuman) Nilo ibaiko uretan piraguan, bertako umeak inguruan dituela.

bere ustez



Jon Suinaga

Kristobal Maiztegi Larreategi

Cristobal Colonek ez zuen Amerika deskubritu, batik bat jadanik jende mordoan han bizi zelako. Frogatuta dago beste batzuek ozeanoa lehenago zeharkatu zutela. Adibidez, Erik el Rojo bikingoak X. mendean. Hala ere, ezin da ukatu almirantearen arrakasta nagusia izan zela kontinente berria mundu guztiari ezagutzera ematea.

Aurten oroitzen dugu 500 urte direla nabigatzailea hil zela. Urtemugaren ondorioz, liburu eta lan pila bat argita-

"Historian zehar pertsonaia misteriotsu bat egon bada, dudarik gabe, Colon izan da"

ratuko dira bere bizitzari buruz.

Historian zehar pertsonaia misteriotsu bat egon bada, dudarik gabe, Colon izan da. Mila teoria eta hipotesi daude bere bizitza eta jatorriari buruz.

Francisco Melendez Potok 1936an idatzitako liburu batean, almirantea euskalduna zela defendatzen du. Soraluzen, Bergarako barruti judizialean, jaio zen. Zehatza izateko 141leko uztairen 10ean Sologoen baserrian.

Bere benetako izena Kristobal Maiztegi Larreategi zen eta *Colon* goitizen bat zen Maiztegitik eratorria.

A, eta Santa Maria untzia, benetan, Mari Galante zen; Euskal Herrian eraikitakoa eta euskal marinelez gidatutakoa.

BEHEKO TABERNA

Menestra eta untxia dira gure berezitasunak

ANGIOZAR
Tel.: 943 76 55 74

ORMAZABAL
FISIOTERAPIA ZENTROA

Bizkarreko mina • Bihurrituak
Tendinitisa • Masajeak • Erreuma
Osteopatia
Errehabilitazioa

Telleria 6 bis, 11 bulegoa
Labegarieta ind. BERGARA
Tel.: 943 76 53 35 / 626 90 06 08
ormazabalfisioterapia@yahoo.es



Ion Murgizu margoak

Margolanak orokorrean
Margo dekoratiboa
Margo industrialia

Esozia etorbidea 24, 2. behea
SORALUZE
943 75 13 24 / 652 777 030
iion@euskalnet.net

UGARTE
AROTEGIA-ALTZARIAK



Arotz lanak orokorrean
Horma armairuak
Altzariak • Leihoak • Ateak

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea • BERGARA
Tel.: 943 03 46 30
ERAKUSKETA ETA TAILERRA
San Juan 1A • BERGARA
Tel.: 943 76 54 91/ Faxa: 943 76 08 04




Hurrera zaitezte **ferixara**
eta **ondo pasatu!**

FAGOR  **ETXETRESNA
TXIKIEN
NEGOZIOA**

Aingerugarda ibilbidea, z/g
Tel.: 943 03 91 00 • 943 71 54 52 (SAT)





Maulanda
merenderoa

Ondo ibili
ferixen!

Maulanda auzoa ESKORIATZA
Tel.: 943 71 47 20 eta 943 71 54 56

ADIMEN URRITASUNA > IGERIKETA TXAPELKETA

Zazpi domina lortu ditu Aratzek Donostiako igeriketa txapelketan

Zortzigarren aldiz joan ziren lau igerilariak eta oraindik sasoiaren daudela erakutsi zuten

108 lagunek jardun zuten txapelketan; tartean arabarrek eta errioxarrek

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETAKO

Hitzordu garrantzitsua zuten Aratz elkartearen igerilariak joan zen zapatuan: Donostiako Altza auzoko kiroldegian egiten den igeriketa txapelketa. Eta behar bezala erantzun zioten hitzorduari. Zazpi domina ekarri zituzten guztien artean: urrezkoak sei eta brontzekoak.

EGUENETAN IGERILEKURA

Urte guztian jarduten dute igerian Aretxabaletako kirol etxean. Eguenetan elkartzen dira Pedro Balentziaga entrenatzailearekin, eta haren ulu eta aginduen artean ibiltzen dira uretan atzera eta aurrea ordubetez. Txapelketako data hurreratzaren hasten denean, gainera, denborak neurtzen dizkie Pedrok, hobetzen joateko. Nagusia Juan Carlos Barkero da eta 36 urte ditu; Iñaki Iturbek 34 eta Iker Arexolaleibarrek 28, eta hirurak dira aretxabaletarrak. 21 urte dituen Jon Ander Leonardo da gazteena, eta igerilari gorputza duen bakarra. Jaiotzez arrasatearra bada ere, Durana kaleko 13. zenbakian Atzegik etxea zabaldu zuenetik Aretxabaletan bizi da.

SEI URREZKO ETA BRONTZEKOA

Atzegi taldearekin hartu zuten parte beste sei elkarterekin batera, eta Debagoieneko bakarrak izan ziren. Zortzigarren aldiz joan dira; hortaz, kontu hauetan txakur zaharrak direla esan beharra dago. "Txistua jo aurre-



IGERILARIAK Pedro Balentziaga, Joan Ander Leonardo, Juan Carlos Barkero, Iker Arexolaleibar eta Iñaki Iturbe dominekin. M.A.

tik atera zinen zu eta horregatik irabazi zenuen", esan dio Juan Carlosek, irribarrea ahoan, Jon Anderri; baina ez dago tranpa egiterik. Izan ere, epaile guztiak Federazioak jartzen ditu eta ez dute lege-hausterik onartzen.

Oso ondo jardun zuten taldeka eta urrezko domina eskuratu zuten. Bestalde, Jon Anderrek beste bi domina ere jaso zituen, urrezkoak biak: crawl eran eta bizkar-igeriketan. Eta Juan Carlosek brontzekoa jaso zuen crawl eran, Iñaki laugarren sailkatu zen

eta Iker bosgarren. Pedro entrenatzaileak argitu gura du zein eratako txapelketa den Donostiakoa: "Bi atal bereizten dituzte antolatzaileek: norgehiagoka eta parte-hartzea. Norgehiagokan jarduten duten igerilariak benetan denbora onak egiten dituzte. Horregatik parte-hartze atalera aurkezten gara gu, dominak lortzeko aukerak izan ditzagun".

Ikerren aita Luis Mari Arexolaleibarren esanetan, taldea indartu egin gurako lukete, beste kide batzuk sartuta: "Datorren urteko txapelketari begira kide berriren bat izango dugu taldean, seguru asko". Hala ere, entrenatzaileak zein Arexolaleibarrek badakite gero eta igerilari bizkorragoak datozela txapelketara eta dominak bukatu egin daitezkeela halako batean. Hori gertatu bitartean, baina, gozaten utziko diete.

di-da batean

Mirari Altube

Ezberdinak dira Durana 13ko bizilagunak

Durana kalean dagoen Atzegiko etxeko bizilagunak poliki-poliki joan gara ezagutzen. Bagenekien ezberdinak zirela, baina denborarekin ikasi dugu badaudela alaiak, lotsatiak, berritsuak, eta gehienak direla jaizaleak. Edozeinentzat daukate agur bat ahoan eta bi berba esanez gero laguntzat hartuko zaituzte. Gutxi behar dute gero, eta zenbat kostatzen zaigun ematea.

LANAK

Istripua kultur etxeko lanetan

Lehenengo solairua erori zen astelehen eguerdian, baina ez zen inor zauritu

M.A. > ARETXABALETAKO

Santa Kurtz kalean egiten dabiltzan kultur etxeko lanetan istripua gertatu zen astelehen eguerdian. Lehenengo solairuaren oinarria izan behar zuen hormigoizko plaka jausi zen langileen aurrean. Zorionez, inguruan ez zegoen inor eta ez zen zauriturik izan. Burrundara handia ateratu zuen erorketak eta inguruko bizilagun asko jaitsi ziren kalera gertatutakoa ikusteko.

ATZERAPENA

Plaka eusteko jarritako zutabeek ezin izan zioten eutsi eta horregatik jausi zen, adituen esanetan. Eginda dagoen egiturak kalterik izan duen aztertuko dute lehenengo eta ondoren berrituko dute solairua. Aste pare bateko atzerapena izango dute lanek, baina ez gehiago.

ZUZENKETA

Udalaren proiektua

Joan zen astean esan genizuen Poxpolin aisialdi taldeak euskaraz erakusten ziela ume etorkinei. Hizkuntza proiektua da eta etorkinei ez ezik euskaraz ez dakiten guztiei erakusten die. Proiektuaren sustatzaile eta arduraduna Udala da, finantzazio osoa bere gain hartuta, eta proiektua gauzatzea da Poxpolinen ardura.

Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETAKO

Iber

Loteria
Paper denda
Liburuak

Otalora 2.
ARETXABALETAKO
Tel.: 943 79 04 39

ARTZUBI
ELEKTRAGAILUAK

ARTZUBI ETXETRESNA
ELEKTRIKOAK

Iparagirre kalea 4
ARETXABALETAKO
Tel.: 943 53 31 86





IKASLEAK Energiaren gaineko ikerketa lana egin dute 315 ikaslek eta osoko bilkuran aurkeztu zituzten ondorioak.

M.A.

INGURUMENA > ESKOLA AGENDA 21

Energia aurrezteko proposamen asko egin dizkiote udalbatzarrari

Kurtzebarri eskolako 315 ikaslek landu dute energia, eta ondorioak osoko bilkuran aurkeztu

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETAKO

Otsailean sinatu zuen hitzarmena Kurtzebarri eskolako Udalarekin Agenda 21 garatzen hasteko. Bada, Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikasleek energiaren gaia landu dute hiru hilabete hauetan. Eguaztenean, maiatzak 31, ezohiko osoko bilkura egin zuen udalbatzarrak, ikasleek egindako lanaren ondorio eta proposamenak jasotzeko.

ERANTZUNAREN ZAIN

Herritarron ohitura aldaketak, gizakiaren eragina klima jasaten ari den aldaketan, herriko dena eta enpresen ohiturak eta Udalaren eraikinetako energia baldintzak aztertu dituzte, beste kontu batzuen artean. Energia aurrezteko ahalegin txikia egiten dela ondorioztatu dute, eta energia berriztagarrien aldeko apustua egin beharrean gaudela aipa-

tu. Esan zuten Udalak laguntzak bideratu beharko lituzkeela enpresentzat, berrikuntza teknologikoak bultzatu eta herritarren kontzientzia sortzeko argibideak eman.

Arritxu Oliden alkateak erantzun zien garraioa izan dela arazo urte askoan, baina tranbiak arindu egingo duela; eraikuntza berrietan energia aurrezteko irizpideak hartzen direla kontuan eta argiteria publikoa ikertzen dabiltzala. Ikasleek txosten mardula utzi zuten udaletxean eta erantzunaren zain geratu ziren.

> EUSKARA

Zorion Insaustik lagunduta, sendabelar bila ekainaren 10ean

Sendabelarren gaineko ikastaroa egin zuen martxoan Zorion Insausti adituak. Ikasle asko izan zituen orduan eta belarren gaineko sekretu asko erakutsi zizkien. Orain, sendabelar bila joateko irteera egingo dute ekainaren 10ean, zapatua, eta Insausti bera etorriko da. Izena aurrez ematea komeni da, Loramendi Euskara Elkartera deituta: 943 77 09 70.

> LAPURRETAK

Urkulun aparkatutako automobiletan lapurretan egin dute

Lapurrak dabilta Urkulu urtegi inguruan. Azken asteotan hainbat laguni ostu dizkiote diru-zorro eta poltsak aparkatuta zeuden automobiletatik. Astegun edo asteburu, edozein unetan hurreratzen dira lapurrok Urkulura, eta udaltzainak sarri joaten badira ere urtegi ingurura, lapurrak ez dira belduztzen. Salaketa gehienak Ertzaintzan aurkeztu dituzte.



KURTZEBARRI ESKOLA

Abenturaz betetako bost egun

Ikasturte bukaerako txangoak egiten dabilta Kurtzebarri eskolako ikasleak. Hala, Lehen Hezkuntzako hirugarren mailako talde batek Seguran pasatu zituen bost egun, eta beste batek Alkizan. Euskara indartzuz bazterrak ezagutu dituzte eta hainbat ekintza egin: zaldian ibili, filma grabatu, abestu... Zalantza barik, zoragarri ibili dira.

TABERNA
ARLUTZ
MITARTE, 16 • ARETXABALETAKO • TEL. 943 79 32 34



Jauregi
Okindegia

Otalora 10
Tel.: 943 79 57 47
ARETXABALETAKO

ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK

Obra eta proiektuen kudeaketa integrala



Zuzendaria:
Lyonel Arquero

Dekorazioa:
Soraya Arquero

Basabe poligonoa 4, EQ-11 ARETXABALETAKO
Tel.: 943 79 01 51 / 608 77 28 67 / 679 45 57 64
construlan@euskalnet.net www.construlansl.com

UDALA > KONTZEJUPEKOAK PROTESTAN

"Herritarren borondatea errespetatzea" eskatu dute

Kontzejuperen ustez, hiru zinegotzi dagozkie, eta ustez euren lekua hartu dutenen dimisioa eskatu zuten osokoan

I.B./U.M. > ESKORIATZA

Udalbatzarraren azkeneko osokoa, bestelakoan artean, protesta ekitaldia egin zuen ilegalizatutako plataformak. Batzarrean mozio bat irakurri zuen taldeko

ordezkariak. Zera eskatu zuen, besteak beste: "Ilegalizazio politika bertan behera uzteko" eta "udal herritarren babesa jaso zuten hautatuek beren eskubideak gauzatuak izan ditzaten urratsak emateko konpromisoa hartzea". Euren ustez, Kontzejuperi hiru zinegotzi dagozkio.

PSE-EEko Pierruges zinegotziak erantzun zien udal ordezkariak lortzea euren esku dagoela eta gonbidatu zituen datoren urteko hauteskundeetarako izena eman dezaten erregistroan.

Alkateak, berriz, gogorarazi zien Udalak ematen diela aukera Udalean, neurri batean, behitza, parte hartzeko.

Bozketa orduan, bakarrik lortu zituzten elizateetako zinegotziaren aldeko botoak. Bestalde, aretoan zenbait herritar izan zen, euren babesa erakusten.

ZINEGOTZIEI AURRE EGIN

Batzarra bukatzean, plataformako kideak, ustez euren lekua hartu dituzten hiru zinegotzien zain izan ziren, dimisioa eskatzeko.



DIMISIOA Zinegotzien dimisioa eskatu zuten udaletxe parean.

I.B.

> KULTURA EKINTZAK

Lazkao Txikiren gaineko kontakizuna Amurizaren eskutik

Gaur, egubakoitza, Xabier Amuriza bertsolariak Lazkao Txikiren gaineko kontakizuna egingo du, bertsoan, 23:00etan. Aitzorrotz kultura elkarteak eta Inkernu tabernak antolatuta dute, eta taberna barruan egin beharrean kanpora aterako dute bertsoikusizuna.

Horrez gain, Aitzorrotzek eta Inkernuk Euskal Herriko jantzi tradizionalen gaineko erakusketa prestatu dute. Bihar, zapatua, jarriko dute Inkernun eta hilaren 15era arte egongo da erakusketa ikusgai.



LUIS EZEIZA

Luis Ezeizakoek bi irteera egin dituzte aspaldian

Luis Ezeiza eskolako ikasleak pozarren dabilta aspaldian. Hain zuzen, Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako 15 lagunek Asturiase-ra irteera egin dute *Eskola ibiltaria* programaren bidez. Ibilaldi horretan Sevillako lagunak egin dituzte (argazkian Sevilla eta Eskoriatzako ikasleak taldean).

Bestalde, Lehen Hezkuntzako 6. mailako beste 16 ikasleek Elgoibarko Arbixa auzoan egondia egin dute, Plentziako ikasle talde batekin.

AKEITA

t a b e r n a

Pintxoak eta
ogitartekoak

ZATOZ FERIXARA ETA EGIGUZU BISITA!

TEL.: 943 71 50 94 • Santa Ana 23 • **ESKORIATZA**



AZKOAGA

ESTANKOA

Zure zerbitzura
ESKORIATZA

Zatoz Ferixara!
Ondo ibili danok!

Mendraka
Txakolina

Tel.: 94 682 00 00
ELORRIO

ARIZMENDIREN AZOKA > BIHAR, ZAPATUA, EGINGO DUTE

10 urte beteta, berrikuntza askorekin dator baserritarren eta artisauen azoka

Eskoriatzako feriak 10 urte bete ditu, eta jaieguna goizetik iluntzera arte egingo dute. Saltokiez gain, umeendako tailerrak, puzgarriak eta sorpresak izango dira.

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA
Bihar, zapatua, Eskoriatzako feriak 10. edizioa beteko du. Arizmendi Ikastolak antolatzen duen azoka horrek oihartzun handia hartu du eta eskoriatzarrendako, San Pedroetako jai egun baten parekoa da.

Azoka horretan baserrieta-ko elikagaiak eta artisauak egin-dako lanak egongo dira eskura-garri. Are gehiago, hainbat arti-sauk zelan lan egiten duten ikusi ahal izango dute azoka bisita-tzen dutenek.

IA HERRI OSOA HARTZEN DU

Orain dela 10 urte, azoka herri-ko plazan egiten zuten. Gaur egun, berriz, Azkoaga Enea hote-la egiten dabilzan lekutik Aldatz tabernaraino kale eta plaza guz-tiak saltokiz, ekitaldiz eta bes-telakoez betetzen dituzte. Horrez gain, azken urteotan Bolibar auzorako bide zati bat, Txistua-rien Arratea eta Santamaina



HERRI BAZKARIA Pilotalekuan batuko dira saltzaile eta langileak.

GOIENKARIA

plaza ere hartzen dituzte jai horretarako.

Aurten 81 saltoki jarriko dituzte. Horien artean, Eskoriatzako baserritarrak eta leku asko-tako artisauak izango dira. Bitxie-

nen artean daude burdingintza, euskal jantziak, ehungintza, zal-diendako jarlekuak eta etxeen maketak, besteak beste.

Gozoek ere protagonismo handia hartzen dute: txokolatea



BASERRIKO ELIKAGAIAK Eskaintza zabala izango da biharko azokan.

GOIENKARIA

eta marmeladaz gain, Arizmen-diko ikasleek beste lau saltoki jarriko dituzte eurek egindako jakiekin.

BESTELAKO ELKARTEAK

Bestalde, urtero moduan base-rriekin eta artisautzarekin zeri-kusirik ez daukaten beste elkar-te batzuek ere mahaiak jarriko dituzte. Hain zuzen ere, Onbide.org elkarteak eta organo-en dohaintzak egiteko lan egiten duen Alcer elkarteak.

UMEENDAKO HAINBAT EKITALDI

Antolatzailleak ikastolakoak izan-da, oso argi dute ume eta gazte-txoendako ekintzak ere egin behar dituztela. Horregatik, urte-

roko txorimaloen lehiaketaz gain –oso harrera ona izaten duena–, hiruzpalau tailer eta puzgarriak jarriko dituzte.

GOIZETIK ILUNTZERA ARTE

Aurtengo berrikuntzen artean, azpimarratu dezakegu jai egun osoan egingo dutela. Horretara-ko, goiz-eguerdian txahal bat erreko dute plazan eta arratsal-dean berau dastatzeko aukera izango da.

Horrekin lotuta iluntzean, azokak 10 urteotan eman duena-ren gaineko diaporama emango dute herriko plazan. Edizio guz-tietako argazkiekin eginda dago. Bukatzeko, joko bitxi bat antola-tu dute.



ARRANDEGIAK J. EGUREN

Arrain freskoa eta izoztua

Santa Marina 32. Tel.: 943 79 59 06. ARRASATE
Santa Ana 11. Tel.: 943 71 48 61. ESKORIATZA

ONDO IBILI FERIXEN!





MIRENTXU

TABERNA

Ondo ibili guztiok ferixen!

Tel.: 943 71 41 67

oharrak

URTEURRENA

> Azokaren 10. edizioa

Aurten 10 urte beteko ditu Arizmendi ikastolak antolatzen duen azoka arrakastatsuak. Iluntzean azokaren gaineko diaporama emango dute.

EGITARAUA

> Goizetik iluntzera arte

Urteurren berezia borobiltzeko, goizetik iluntzera arteko egitarau mardula antolatu dute. 09:00etan hasi eta 21:00ak arte ez da herrian atsedetik izango.

UMEAK

> Txorimalo lehiaketa

Hainbat umek esku hartuko dute IX. Txorimalo Lehiaketan. Joan den urtean 28 bat txorimalo egin zituzten eta 138 ume ibili ziren zeregin horretan.

SALTOKIAK

> Baserritar eta artisauak

Baserritarren eta artisauen saltokiez gain, ikasleek eta elkarte batzuek saltokiak jarriko dituzte. Guztira, 81 izango dira.

BOLUNTARIOAK

> Herritarren inplikazioa

Jende askok hartzen du esku antolakuntzan, eta baita egun berean lanean ere. Aurten 160 lagun ibiliko dira buru-belarri.

DASTATZEA

> Txahal jana

Goiz-eguerdian txahala erreko dute plazan, eta iluntzean dastatzea izango da leku berean. Ordu berean, joko bat egingo dute.

Goizez eta arratsaldez

3, zapatua

09:00 Etxafuego jaurtiketarekin hasiera emango diote jaiari.

09:30 Herriko txistulariek kalejira egingo dute.

10:30 Feriaren hasiera.

Baserritar produktu eta elikagaiak.

Artisautza.

Abere erakusketa.

Tresneria.

11:00 Ume eta gazteendako hainbat tailer jarriko dituzte plazan.

11:30 IX. Txorimalo Lehiaketa.

12:00 Trikitilarien kalejira egingo dute.

13:00 Eskoriatzako Dantza Taldeak ikuskizuna egingo du.

13:30 Feriako postuen sari banaketa.
Txorimalo Lehiaketaren sari banaketa.
Errifaren zozketa.

15:00 Herri bazkaria pilotalekuan.

17:30etik 20:30era Puzgarriak jarriko dituzte Gorosarri plazan.

19:30 Txahal-okelaren dastatzea.

Apustu-jokoa.

Feriaren orain arteko ibilbidearen gaineko argazki diaporama Kontzejupean.

21:00 Apustu-jokoaren irabazleari saria emango diote.

Mertxe Alberdi > Baserritarra

"Herritarrek asko inplikatzeko dira azoka egun horretan"

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA
Apotzagako Arane Azpikoa baserriko Mertxe Alberdi azoka hasi zenetik urtero joaten da baserriko elikagaiak saltzera. Azokaren eta baserriaren gainean berba egin digu.

Zelan gogoratzen dituzu lehenengo azokak?

Oso ideia ona iruditu zitzaigun. Ordura arte Eskoriatzan ez zen halako azokarik egiten, eta aproposa iruditu zitzaigun, horren falta zegoelako.

Eta herritarrek ondo hartu zuten azoka?

Bai. Betidanik izan du harre-ra ona eta herritarrek asko inplikatzeko dira. Azoka honek lotura sortzen du herritarren artean. Oso giro ona egoten da, eta tradizioari eusteko modua da. Guk Euskararen Egunari ahal dugun ekarpena egiten diogu.

Lehenengo urteetan Apotzagako hainbat baserritar elkar-tzen zineten, ezta?

Bai, Apotzagako emakume talde bat elkartzen ginen. Hainbat elikagai eramaten genituen. Bakoitzak zeukan elikagai batzuen ardura: marmelada, ortuko jakiak, loreak, gaztak, arrautzak... Horren ostean, lanarengatik eta denbora faltarengatik askok utzi diote joateari.

Azokak 10 urte bete ditu aurten. Hobera egin du?

Nik uste dut hobera egin dela eta hobetzen dabilela. Hasie-



Baserritar elikagaiez gain, loreak ere eramango ditu Alberdik azokara. IKER BARANDIARAN

"Tradizioaren aldeko ekarpena egiten diogu egunari, etxeko elikagaiak eramanda"

ran ekitaldi guztiak plazan egingen genituen, baina gero eta eremu handiagoa hartzen du. Bestalde, baserritarrek aspaldian aterpeetan jartzen gaituzte. Guretzat hori aproposagoa da, eguz-

kipean elikagaiak zimeldu egiten direlako.

Zer eramaten duzue azokara?

Guk ortuan etxerako behar duguna baino gehiago jartzen dugu, eta hori eramaten dugu azokara. Azoka horretara joaten gara bakarrik, herrikoa delako. Aurten, ilarrak, baba beltzak, letxugak, kipulak, loreak, zerbak, arrautzak, erremolatxak, alkatxofak, txorizoak eta opilak eramango ditugu.



- Konponketak: Txapa, Margoa, Mekanika
- Bigarren eskuko autoen salerosketa, inyektoreen konponketa eta I.A.T aurreko azterketa

Ondo ondo pasau FERIXE egune!

Aingeru ibiltokia 31 • ESKORIATZA • Tel.: 943 71 50 61 • Faxa: 943 71 31 45



Ondo ibili ferixen!

Hormigoizko estrukturak, urbanizazio, kontratak eta enpresen mantenimenduak

Aranburuzabala 56 • ESKORIATZA • Tel.: eta faxa: 943 71 55 15 • Poltsikokoa: 629 51 39 22



BOST SOLAIRU Eraikinak bost solairu izango ditu eta gimnasioa eta gazte txokoa egongo dira azpian.

GOIENKARIA

ETXEBIZITZAK > HOGEI ETXEBIZITZA BERRI EGUZKI AUZOAN

Maristen eraikina zegoen tokian irailean hasiko dira etxeak egiten

Etxebizitzarik txikienak 54 metro koadrokoak izango dira eta bi logela edukiko dituzte; handienek, 94 metro koadro eta hiru gela

IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA

Eguzki auzoan, Maristen eraikina zegoen tokian, Udalak bultzatutako etxebizitzak eraikitze asmoa aspaldikoa da; horren harira, Antzuolako Udal Etxegintza SA elkarte publikoak deialdia egin du etxebizitzak erosi nahi dituztenek izena eman dezaten.

Ekainaren 30era arte izango dute interesatuek agiriak aurkezteko aukera. Ordura artean agiriak prestatzeko laguntza zerbitzua eskainiko dute astelehentik egubakoitzera, 10:00etatik 14:00etara bitartean, Olanen etxe lehen solairuan. Bestalde, zalantzak argitzeko eta aurrez txanda eskatzeko telefono zenbaki honetara dei daiteke: 617 28 55 80. Baldintza pleguak bertan jaso daitezke.

Antzuolarrek lehentasuna izango dute etxebizitzok eskura-

tzeko orduan; bestalde, kontuan hartuko dira eskatzaileak ezintsunen bat izatea, familia ugaria izatea eta beste zenbait baldintza.

Guztira, bost solairu izango ditu eraikinak. Beheko solairuan lau etxebizitza egongo dira; horietako bi terraza handiekin. Etxebizitzarik txikienak 54 metro koadro izango ditu eta 88 metro koadro handienak. Gainontzeko lau solairuetan 82 metro koadro eta 94 metro koadro arteko etxebizitzak egongo dituzte. Eraikineko etxe txikienak bi logelakoak izango dira; gainontzekoak, berriz, hirukoak.

Etxebizitzak gain, hogeitazazpi etxeleku ere izango dira teilatupean. Jolasleku gorriaren azpiko garajeak ere etxebizitzak jabeen esleituak zaizkie.

Etxebizitzak batez besteko salneurria 60.000 eurokoa da.

GIMNASIOA

Eguzki auzoko eraikin berrian, etxebizitzak gain, gimnasioa, gazte txokoa eta oraindik zertarako izango den zehaztu ez duten beste lokal bat egongo dira.

Etxebizitzak egiteko lanak irailean hasteko asmoa dutela azaldu digute Udalean; eta eragozpenik ezean, gutxi gorabehera urte eta erdian amaituta izango dira lanak.

Udaletik zera esan digute: "Etxebizitzekin, neurri baten, herritarren eskaria beteko dugu".

ETXE GEHIAGO

Eguzki auzokoak Udalak babesitutako etxebizitzak izango dira, baina herrian etxebizitza libreak ere eraiki dituzte, eta beste batzuk egitekotan dira. Beheko auzoko hamaika etxebizitzetako giltzak eman dituzte jadanik; Larrugintza lantegia zegoen tokian etxeak eraikitzen dihardute eta Sallabentzen elkarrizketak zortzi etxe egongo dituzte. Bestalde, herrian zenbait etxe zahar berrietzeko eskariak jaso ditu Udalak.

KULTURA > TRIKITI TALDEA

Auzoetako jaietan jardungo dute trikitilari gaztetxoek

Hurrengo saioa San Juan jaien inguruan egongo dute, Kalebarrean

irten ziren eta ordutik hona jaietan jotzeko eskariak jaso dituzte. Hurrengo saioa Kalebarreko jaietan egongo dute. Gustuko dute "herria alaitzea" eta jendeak ere gustuko duela uste dute, eta dantza egitera ere animatzen direla.

I.A. > ANTZUOLA

Soinu txikiak eta panderoak baditu jarraitzaileak Antzuolan. 10 eta 12 urte bitarteko gaztetxoek astean behin entsegua egiten dute Olanen Edurne Iturbe trikitilariarekin, eta gero, auzoetako jaietan giroa alaitzen jarduten dute.

Zazpi soinu-jotzaile eta lau pandero-jotzaile dira taldean. Orain dela hiru urte, taldeko batzuk euren kabuz kalejiran

ZAPIAK

Taldekoendako zapiak atera dituzte eta Udalean dirulaguntza eskaria egin dute horiek ordaintzeko.

Gaztetxoek taldea osatu dute, baina garai batean trikiti eskoletara joandakoek ere egiten dituzte noizean behin trikitixa saioak herrian.

Beraz, jairen bat dagoenean trikiti doinurik ez da faltako.



TALDEA Zazpi soinu-jotzailek eta lau pandero jotzailek osatzen dute taldea. I.A.

> KULTURA

'Antzuolako liburutegia bilduma'-ko hiru liburu aurkeztuko dituzte gaur Olanen etxean

Antzuolako ondarea berreskuratzeko hiru liburu egin dituzte: Garibiltzeari buruzkoa da *Lurretik mahaira* lana, Iñigo Ramirez de Okariz eta Jose Mari Iturbek egina. *Antzuolako tren* liburua ere Iñigo Ramirez de Okarizena da; eta *Maristak Antzuolan* lana ere hark egin du, Jose Luis Santamariarekin. Aurkezpina gaur, egubakoitzera, izango da, Olanen, 19:15ean. Hiru liburuak 15 eurotan erosi ahal izango dira liburutegian, udaletxean, liburu dendan eta baita Bergaran, Elkarren.

Tomas Gezalaga

Zoruen kutxilatua
eta
bernizatzea

Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

ANTZUOLA

Apainketak eta
isolamenduak
•
Pladurrezko
dibisioak

Kalegoi 21 ANTZUOLA
676 997 400
Biltegia: 943 78 70 40

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

Tomas Gezalaga

Apainketarako eta
industriarako pinturak
•
Paper margotuak
•
Moketak eta tapizatuak

Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

GAILUR
taberna eta
gozotegia

Buztinuri 13 ANTZUOLA
Tel.: 943 78 70 32

ETXEBIZITZA > BABES OFIZIALEKO ETXEEN ZOZKETA

Torrealdean egingo dituzten babes ofizialeko etxebizitzek badituzte jabeak

Etxebizitza jabe bakoitzari zein etxe egokituko zaion erabakitze zozketa datorren astean egingo dute udaletxean; seguru aski eguaztenean izango da zozketa

IRATI AGIRREAZALDEGI > ELGETA
Hogei etxebizitza eta 141 hautagai. Torrealdean egingo dituzten babes ofizialeko etxebizitzaren zozketaren bi datu nagusiak dira horiek.

Espaloian egin zen zozketa martitzenean, eta bertaratutakoak asko izan ez baziren ere, jakin-mina zen nagusi.

Etxebizitzak zeinendako izango diren jakinarazi zuten lehengo, batzuen poz eta besteen pena artean. Ondoren, beste zenbaki batzuk atera zituzten: ordezkorenak, hain zuzen. Izan ere, norbaitek atzera egingo balu, ordezkoez izango lukete aukera, hurrenez hurren.

Hala ere, Elgeta 21 Garapenerako Udal Elkarteko Edorta Silvak azaldu zuenez, "orain etxebizitza tokatu eta atzera egiten duenak ez du aukerarik izango hurrengo etxebizitza tasatuen zozketan parte hartzeko".

Etxebizitzak zeinendako izango diren, beraz, badakigu. Orain falta da bakoitzarendako zein etxe izango den zehaztea. Horretarako, datorren astean beste zozketa bat egingo dute udaletxeko osoko bilkuren aretoan. Eguna zehazteke badago ere, baliteke eguaztenean egitea zozketa.

ZENBAKI ALDAKETA

Bestalde, Torrealdeko etxebizitza berriak direla eta, Udalak inguru horretan atarrietako zenbakiak aldatuko ditu eta etxebizitza berrietan zenbakiak ipini.

Zenbaki berrietara egokitze-ko auzotarrei erraztasunak emango dizkie Udalak, eta zenbait tokitan helbide aldatetako egiteaz arduratuko da: argindarraren, gasaren, uraren eta zaborren ordainagiritan; biztanleen udal eta hauteskunde erroldetan eta zergetan. Gainontzeko lekuetan auzotar bakoitzak egin beharko du helbide aldateten jakinarazpena.

Etxebizitzaren gaiak, beraz, sortzen du kezka Udalean. Horregatik, herritarrei Bizigune programaren berri emateko uztailean informazio bilera egiteko asmoa dute. Izan ere, hainbat herritarrek azaldu du interesa programa horren gainean.



ZOZKETA Espaloian egin zen zozketa, Udaleko, Muriaseko, Etxebizitza Saileko eta Elgeta 21eko ordezkariak han zirela. I.A.

Etxebizitzen jabeak eta ordezkoeak

TITULARRAK

LEHEN TALDEA

1. Jokin Arantzabal Loiti
2. Iraia Sarasketa Igartza
3. Gorka Litago Arin
4. Maria Blanca Irazabal Atxukarro
5. Andoitz Untzetabarrenetxea Gallego
6. Geaxi Ezpeleta Gallastegi
7. Aritz Macarro Idigoras
8. Mikel Irazabal Arantzeta
9. Miren Garbiñe Markiegi Ugalde
10. Maria Jesus Larrañaga Iribecampus
11. Mikel Romaneli Ruiz
12. Ainhoa Llamas Muñoz
13. Argoitx Arantzabal Garai
14. Dolores Romero Rodríguez
15. Aitzol Jimenez Arrieta
16. Iraitz Bolinaga Arantzabal
17. Miren Alazne Azkarate Alberdi
18. Agurtzane Ormaetxea Saiz
19. Xabier Ubera Arantzeta
20. Santiago Redondo Rios*

ORDEZKOAK

LEHEN TALDEA

1. Juan Carlos Beteta Peñalver
2. Oxel Erostarbe Tubilla
3. Alain Elorriaga Royuela
4. Itziar Zabala Arbulu
5. Igor Arizmendiarieta Barrero
6. Oskar Askasibar Zubizarreta
7. Idoia Errasti Ojanguren
8. Enrike Elkoro Sarasua
9. Jon Ormaetxea Saiz
10. Joseba Julen Barrutia Ule
11. Unai Garro Arrazola
12. Gorka Arizmendiarieta Barrero
13. Jon Mirene Arantzabal Atorrasagasti
14. Unai Alkorta Irazabal
15. Iban Arantzabal Arrieta

BIGARREN TALDEA


16. Julio Calleja Ruiz
17. Ana Askasibar Errasti
18. Ane Goenaga Egia

HIRUGARREN TALDEA

19. Raul Vazquez Montaña
20. Igor Bauza Madariaga
21. Kepa Gorriti Kortaberria
22. Eneko Artetxe Samaniego
23. Aitor Arzelus Azkarreta
24. Eduardo Moreno Aramburu
25. Eider Ruiz Pascual
26. Javier Fernandez Rivero
27. Alexander Zuazua Laso
28. Aitor Aldalur Ugarteburu
29. Andoni Alustiza Intxausti
30. Roberto Quiñones Garcia
31. Oihana Gardoki Ibarra
32. Aritz Muñoz Arana
33. Lorena Francisco Barcenas
34. Alberto Lopez Vitoria
35. Mireia Alazne Larrea Arana
36. Borja Gonzalez Lekunberri
37. Mireia Arakistain Aranda
38. Alexander Baladron Morais

*Ezindua izanik zuzenean esleitu diote etxebizitza.

ZOZKETAREN OSTEAN



Arrate Hernandez

"Oso pozik nago etxea tokatu zaigulako. Mutilaren izenean zegoen eskaria eta esperantza galdua genuenean azkena atera dute gure zenbakia; beraz, sorpresa izan da. Orain zain gaude ea noiz hasten diren etxebizitzak eraikitzen".



Oihana Sarasua

"Beti izaten da esperantza txiki bat, baina tokatuko zenik ez genuen pentsatzen; beraz, oso pozik gaude. Presarik ez daukagu bizi izatera joateko, baina etxea tokatu zaigula jakinda, gutxienez lasaiago gaude. Gainera, bizilagun guztiok ezagunak gara".



Teresa Egia

"Alabak eman zuen izena eta bere partez etorri naiz. Ez zaio etxerik tokatu, baina hori aurrez bagenekien, lau urtean baino ez delako bizi Elgetan; eta beraz, ez zegoen lehen taldean. Ordezkoren artean dago, baina ez du aukerarik izan oraingoan".

bere ustez



Eduardo Zubiaurre

Langileen elkartasuna lehen eta orain

Bazen garai bat euskaldunok elkartasunean burdina lantzen genuena. Ugariak ziren ekoiztutako produktuak eta genituen lanbide, kofradia, ola eta harremanak.

Elkarrekin lanean bizitako urrezko garaia izan zen hura: balearen arrantza, itxas ontzigitza, nazioarteko merkataritza, etab. Sormena eta lanerako grina erabiliz, Brujas, La Rochelle, Bartzelona edo Valentzian hainbat lan-kide egin genituen.

"Ongizatea lortzeko sasoi hartako baloreak beharko ditugu orain gure artean"

Industrializazioaren bitartez burdina lantzeari utzi, labe garaiak eraiki eta makina astunak agertu ziren gurean.

Produktuen ordezk burdina saldu, kofradiak enpresa bilakatu eta langileak proletario bihurtu izanak elkarren artean egindako mundu haren bukaera ekarri zuen.

Ondoren Poli Larrañaga, Eliodoro de la Torre, Manu Robles, Mendoza, eta abar lanean gogor aritu ziren galdutako bizimodua berreskuratzen nahian.

Ezagutzaren gizartearen murgiltzen ari garen honetan, bakoitzaren ulermen eta ahalmen intelektualak balioko dute etorkizunean. Ongizatea lortzeko sasoi hartako baloreak beharko ditugu orain gure artean.

((112))
SOS DEIAK

OBRAK > HAUR ESKOLA ARAMAION

Gabonetarako bukatuko dituzte haur eskolaren eraikina egiteko lanak

Bi gela izango ditu eraikinak, 130 metro koadrotan; 0 urtetik hasi eta bi urtera arteko umeendako zerbitzua izango da, Haurreskola Partzuergoarena

UBANE MADERA > ARAMAIO

Alkateak iragarritako moduan, astelehenean hasi zituzten haur eskolaren eraikina eraikitze lanak. Bergarako Goitu enpresa dabil horretan (udaletzeko lanak egin zituen enpresa bera) eta obrako arduradunak jakinarazi digunez, Gabonetarako aurreikusi dute lanak bukatzea. Berez, sei hilabete inguruko epea zehaztu die Udalak horretarako. Aurrekontua, berriz, da 235.772'17 euro.

SOLAIRU BAKARRA

Halaber, San Martin Eskolako Paulino Ibabek kontatu digu solairu bakarreko eraikina izango dela, San Martin Eskolari atxikita. Barruan, berriz, umeendako bi gela izango ditu; beste bat irakasleendako, biberioiak eta prestatzeko hirugarren bat, sarretaxo bat ume-kotxeak lagatzeko eta umeen beharretara egokitu-tako bi komun.

Lehen esandako moduan, urtebete egin bako umeak eta



ATXIKITAKO ERAIKINA Solairu bakarreko eraikina egingo dute, 130 metro karratu ingurukoa, San Martin Eskolaren ondoan.

U.M.

urtea eginda dutenak hartuko dituzte eraikin berri horretan.

Matrikulazioari dagokionez, eskolatik beharrean, Udaletik bideratuko dute haur txikiena. Hala, Mertxe Mondragon alkateak jakinarazi digu irailean, ikas-

turtea hasi bezain laster, harremanetan jarriko direla Haurreskola Partzuergoarekin, matrikulazioa ahalik eta lasterren zabalteko. Eta behin lanak bukatu ostean, asmoa da gelak egokitu bezain laster zabalteko zerbitzua.

KOSTATA

Urteak dabilta eskatzen haur eskola zerbitzua Aramaion. Baina, diru eza zela batetik, leku egoki bilaketa zela bestetik, atzeratu egin zaie egitasmoa. Besteak beste, San Martin Eskolatik ahalegin

berezia egin zuten lortzeko eskolaren ondoan ipintzea haur eskola, eta ez eskolarengandik bananduta, hasierako asmoa zen bezala. Azkenean halaxe izango da, nahiz eta zerbitzua, hasiera batean Jaurlaritzak kudeatu.

TEKNOLOGIA > BANDA ZABALA

Euskaltelek banda zabaleko zerbitzua eskainiko du

Auzoetan badago seinalea; Euskaltelek zerbitzua komertzializatu behar du orain

U.M. > ARAMAIO

Auzo guztietan Interneterako banda zabala izateko aukera eskaini gura du Jaurlaritzak. Hala, Udalak zerbitzu hori lehiaketara atera eta Euskalte- li adjudikatu dio.

Orain, jakinarazi digute auzo guztietara (Olaetara izan ezik) iristen dela seinalea, baina zerbitzu hori eskuratu gura duenak Euskaltelekin kontratua sinatu beharko duela. Hori horrela, datozen asteotan Eus-

kaltelekoak ibiliko dira auzoz auzo, izenak hartzen.

Alkateak esan digunez, bestelako enpresa batzuk ere bada- biltza zerbitzu bera eskaintzen, baina Euskaltelekoa Udaletik bideratutakoa denez, "uste izatekoa da besteak baino merke- agoa izango dela".

SUHILTZAILE ZERBITZUA

Bestalde, alkatea Bartzelonan izan da, Diputazioako eta beste zenbait herritako ordezkari-ekin, hango suhiltzaileen parkea bisitatzen. Aramaio behar du zerbitzu bat da sutea gertatu eta 20 minutu baino lehen erantzuten duena. Orain ezin da. Hori horrela, asmoa da Suteak Itzaltzeko Eskualdeko Unitate bat sortzea inguruan. Oraindik ez dago epe zehatzik.

UDALA > OSOKO BATZARRA

Oldarki dantza taldea omenduko du Udalak jaietan

Marixekako iturria konpontzeko eta Andra Mari irisgarri egiteko dirulaguntza eskatuko du Udalak

U.M. > ARAMAIO

Hainbat dirulaguntza ematea eta eskatzea aztertu zituen udal- batzarrak maiatzari dagokion osoko batzarrean.

Eskaerei dagokienez, Arabako Diputazioari laguntza eskatuko dio gazteen eta kulturarekin lotutako jardueretarako; Barajuengo auzo lokalaren teilatua konpontzeko; zenbait auzolan egiteko eta bi parketan hobekuntza lanak egiteko. Hain zuzen ere, Marixekako iturria

konpontzeko eta Andra Mari parkea irisgarri egiteko.

Baita ere eskatuko du dirulaguntza jaietan Ai-Laket elkar- teak eskaintzen duen zerbitzua herrira ekartzeko. Alegia, jaietan drogak analizatzeko furgoneta Aramaion izan dadin.

OLDARKI DANTZA TALDEA

Bestalde, udalbatzarrak erabaki zuen, besteak beste, Gasteizko Oldarki dantza taldeari omenaldia egitea San Martin jaietan. Dantza talde horretako zenbait kideri esker ikasi zuten dantzan aramaioar askok orain dela 40 urte pasatxo.

Dirulaguntzen banaketari dagokionez, berriz, onartu zuten bi familiar 500 euroko laguntza ematea udan saharar ume bi ekar ditzaten.

OBRAK

Argindarra moztuko dute herri osoan

U.M. > ARAMAIO

Iberdrolak abisatu dio Udalari argindarra moztuko dutela herrian ekainaren 14an. Jakinarazi duenez, gainera, Ibarren ez ezik, gainerako auzo guztietan etengo dute argindarra, goizean, bederatzietatik hamabietara bitartean. Edozelan ere, lanak lehenago bukatuz gero, lehenago abiaraziko dute zerbitzua.

Argindar sarean hobekuntzak egin behar dituztelako egin behar dute etenaldia. Hori horrela, Aramaio Udaletxetik esan digute eurek ere aprobetxatuko dutela etenaldi hori argindarra- ren sarean konponketa batzuk egiteko.

Informazio edo argibide gehiago behar duenak 901 202 020 telefonora dei dezake.

UDALA > ALKATEA GOITB-KO 'DEBARRI' SAIOAN

Pagoederreko belardiei uztailean egingo die itxitura Aldundiak

Autobidearen lanak bukatutakoan Arlabango errepideari hirugarren bidea egingo diote; horrek Gatzagatik pasatzen den auto kopurua murriztuko duela esan zuen alkateak

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Gai asko izan zituen berbagai Joxerra Perez alkateak eguazte-neko *Debarri* saioan. Ez hori bakarrik, azken berria ere bertan eman zuen: ekainaren 12an iritsiko dela autobusa herrira.

SANEAMENDU LANAK

Herritarrek hainbat galdera egin zizkieten *Goiena.net* webgunean eta guztiak erantzun zituen alkateak. Ganaduendako belardiak eskatzen zituen batek, eta Aldundiak esandakoa erantzun zion alkateak: San Ferminetarako Pagoederreko lurra itxita egongo direla. Dominaga aldekoak orain urte batzuk garbitu zituzten behi eta ardientzat eta badi-rudi Pagoederrekoak aurten izango dituztela gertu.

Gas hodiak sartu eta ur saneamendu lanak egin dituzte orain-tsu herrian. "Halako ekimenak



GARRAIOA Autobusa badatorrela iragarri zuen alkateak *Debarri* saioan. M.A.

erdigunean egin izan dira jende gehiago bizi delako, baina aurrekontua eskatuta daukagu base-ri aldera iristeko", argitu zuen Joxerrak. Kolektorea, bestalde,

2008an helduko delakoan dago, eta Eskoriatzara bideratuko dira ur zikinak.

Nobedaderik handiena, baina, garraioaren kontua izan zen.

Izan ere, luzaroan eskean ibili eta gero, ekainaren 12an helduko dela autobusa iragarri zuen. Gainera, Aldundiak egindako ordutegia taxi-busarekin osatuko dute, eta oraingo taxiaren ordeaz bederatzi eserleku dituen automobila jarri gura dute.

Bestalde, Arlabanen hirugarren bidea egitearen kontua autobideko lanak bukatutakoan etorriko dela argitu zuen: "Autobideari baino gehiago igarriko diogu Arlabangoari. Gatzagarroi, gainera, on egingo digula uste dut, orain 5 mila eta 6 mila automobil artean pasatzen direlako gure errepidetik". Tranbiaren berri-rik, ostera, ez daukatela adierazi zuen, eta gainerako herrietan lanok hasten direnean eskatu beharko dutela.

INDUSTRIA-GUNEA

Industria-guneren bat egiteko asmorik duten jakin gura zuen herritar batek. Alkatearen erantzuna baiezkua izan zen: "Nekazari-industria gune txiki bat egin gurako genuke lau eraikinekin. Arau subsidiarioetan sartu gura dugu, eta Udalaren lurra aprobetxatu horretarako".

Bukatzeko, pilotalekua guztiz ixteko kontua ez dutela ahaztuta erantzun zuen, baina aurrekonturik ez daukatela horretarako: "Gainera, ezertan hasi aurretik ondo aztertu gura dugu zela itxi eta zertarako erabili".

GARRAIOA

Ekainaren 12an hasiko da autobus zerbitzua

M.A. > LEINTZ GATZAGA

Martitzenean baieztatu zioten Foru Aldundiko arduradunek Joxerra Perez alkateari berria: autobusa ekainaren 12an hasiko da pasatzen Gatzagatik. Goizean bi pasatuko dira eta arratsaldean beste bi, astelehenean egubakoitzera bitartean. Eta asteburuetakoa lortzeko eztabaidan jarraitu beharko dutela adierazi zuen Joxerrak.

GAU-TXORIA

Ekainaren 10etik aurrera, bestalde, gau-txoria helduko da Gatzagaraino. Arrasate-tik bueltan datorrena izango da, eta bi autobus etorriko dira, erabiltzaileak baldin badaude, behintzat.

Autobus ordutegia

Gatzaga-Gasteiz

Aste barruan:
08:50 / 15:50

Gatzaga-Eskoriatza

Aste barruan:
12:55 / 20:55

Eskoriatza-Gatzaga

Gau-txoria:
01:55 / 04:30

GARCIA ENBALATZEAK

- ENBALATZE TOLESTAGARRIAK
- PALETAK
- EGUR KUTXA ETA KAIOLAK
- MOTA GUZTIETAKO TAULAK
- AGLOMERATUAK, TABLEXA, DM, ETAB.
- ENKOFRATZEKO TAULA



Etxabarri Auzoa 9 - 193 P.-K.
Tel.: 943 79 81 36 Fax:a: 943 79 82 38
20550 ARETXABALETA GIPUZKOA

Subinoa 10 - Gojain industrialdea
Tel.: 945 46 62 09 Faxes: 945 46 56 33
01171 LEGUTIANO ARABA

www.embalajesgarcia.com
e-posta: garcia@embalajesgarcia.com

TRIATLOIA > DEBAGOIENENKO 5. TRIATLOIA, OLATZ REMENTERIA MEMORIALA

Bizikletako ibilbidea aldatuta dator Debagoieneko bosgarren triatloia

Antxintxika

Debagoiena Triatloi Taldeak bihar egingo du ibarreko 5. triatloia; 200 lehiakide espero dituzte, tartean, maila oneko kirolariak

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Bihar, 16:00etan ekingo diote atletek erronka berriari, distantzia olimpikoa duen Debagoieneko triatloiari. Igeriketako proba Urkulun egingo dute (1.500 metro), eta hori da Gorlizen eta Ondarroan egin berri dituzten triatloiekiko lehen ezberdintasuna. Jose Mari Barrenak eta Aitor Rementeriak eman zituzten martitzeneko prentsaurrekoan xehetasun horiek: "Ez da gauza bera itsasoko uretan igeri egitea eta Urkulun igeri egitea. Gainera, beste berezitasun bat du gure probak, igeriketako tartea eten egiten dugula, zati bat korrika egin dezaten".

Neoprenozko trajeak alde batera utzi eta atletek bizikletako ibilbideari ekingo diote (40km). Eta, hortxe dago aurtengo aldaketa nabarmenetako bat.

MUXIBARKO INGURUA ITXITA

Urkulutik jaitsi eta saihesbidea hartu eta gero, Epeletik gora egingo dute ziklistek. Sara inguruan, baina, atzera egin beharko dute, Muxibar inguruan obretan dabilzanez ibilbidea aldatu egin behar izan dutelako. Hala, Epele igo eta jaitsi egingo dute, berriro ere saihesbidea hartzeko. Takolo baserriaren inguruan, baina, Aramaio aldera egingo dute, aurreko urteetako ibilbideari eusteko: Aramaio, Zabola, Untzilla, Aretxabaleta eta Arrasate. Horrekin batera, Zabola eta Untzilla arteko errepidea konpondu egin dute, berri ona antolatzaileendako: "Oso txarto zegoen errepide zati hori, eta nahiz eta poliki joateko esan, lasterkariak ez



ANTXINTXIKA taldeko kideak, Algon izeneko babesle berriarekin. Taldeak maillota estreinatuko du.

X.U.

GAZTE MAILAKO BIGARREN TRIATLOIA

Goizean egingo dute, Urkulun, gazte mailako triatloia

Joan den urteko esperientzia aberasgarriari jarraipena eman guran, aurturteko gazte mailako triatloia prestatu dute. Nagusia arratsaldean egingo dute, eta gazteena goizean. Hala, 11:00etan hasita, Urkulun bertan egin dute zirkuitua: "Joan den urtean 30 gazte animatu ziren, eta oso pozik geratu ginen. Horietako batzuk talde nagusira pasa dira, eta kirol mota hau

gazteengan errotzeko ekimen polita da. Atletak gazteek 200 metro egingo dituzte igeri, gero, urtegiari itzulia emango diote bizikletan, eta azkenean, kilometro bat egingo dute korrika". DBHko lehenengo, bigarren, hirugarren eta laugarren ziklokoekin batera Lehen Hezkuntzakoek ere hartu ahal izango dute biharko proban esku.

Bruesa GBC taldea ibarrean izan da bisitari

ACB mailarako txartela eskuan, Bruesa GBC saskibaloitzaileak ospakizunetan eman ditu azken egunak, Donostian. Martitzenean, baina, autobusa hartu eta Gipuzkoako hainbat herritan izan ziren, tartean, Eskoriatzan eta Oñatin. Arantzazura ere gerturatu ziren, Ama Birjinari lore eskaintza egitera. Erretratuan, Juan Karlos Bengoa taldeak Eskoriatzako herriari oparitutako elastikoarekin.



GOIATZ ARANA



LASA jatetxea

Guztion eskura dagoen luxua

Ozaeta jauregia Tel.: 943 76 10 55 BERGARA



Ondo pasau jaixak!





GOIENKARIA

Motokros ikusgarrienarekin hitzordua zapatuan Bergaran

Bergarak hartu dio errelebu Arrasateri Euskadiko Txapelketa barruan motokros lasterketa antolatzen. Kirol horrekiko zaletasun handia dago Bergaran; hala, Zuhaitz Salegik eta Asier Blazquezek (KTM 250), Xabier Zalakainek (Husqvarna 250), Josu Mentxakak (KTM 85) eta alebin mailako Jokin Gutierrezek eta Ander Odriozolak etxeko zaleen aurrean korrituko dute. 11:45ean hasiko dituzte entrenamendu saioak; 13:30ean lehiatuko dira klasikoak, eta 16:00etan izango da lasterketa orokorra.

> TXIRRINDULARITZA

Unai Arantzabal txapeldun eta Kepa Varela hirugarren erlojuz kontrako Gervais Memorialean

Unai Arantzabal txirrindulari bergararra dugu Gipuzkoako erlojuz kontrako txapelduna, 23 urtetik azpikoen mailan. Arantzabalek (Azpiru) denborarik onena egin zuen martitzenean Aizarnabalen jokaturako proban: 21,2 kilometroko ibilbidea egiteko 28 minutu eta 49 segundo behar izan zituen. Kepa Varela bergararra (Bidelan) 3. tokian sailkatu zen, 43 segundora. Eliteko proban nagusitu zen Asier Maeztuk (Bidelan) 37 segundo besterik ez zion atera Arantzabali gazteari.

> MENDIKO MARTXA

Ehunka lagun geratu dira domekan egingo duten AibA! mendi martxan izena eman ezinda

Mendiko martxek geroago eta jarraitzaile gehiago dituztelako, edo lehenengo izanda, normalean baino jende gehiago animatu delako. Kontua da izenemate epea ireki eta berehala gaintitu zirela AibA! martxako aurreikuspen guztiak. Hasieratik erabaki zuten 200 lagunendako proba izan behar zuela, eta hori betetze aldera, jende askori esan behar izan diote ezetz. Izena eman ez dutenek ibilbidea egiteko asmoarekin badabiltza, antolatzaileek eskatu gura diete, mesedez, janari-edari postuak ez erabiltzeko.

> IGERIKETA

Aratz Atzegiko igerilariak hainbat domina eskuratu zituzten Euskadiko Txapelketan

Aratz Atzegi taldeko Aretxabaletako Juan Carlos Barkero, Jon Ander Leonardo, Iker Arexolaleiba eta Iñaki Iturbe igerilariak azpimarratzeko moduko lana egin zuten zailtasunak dituztenen Euskadiko 12. Igeriketa Txapelketan. Bakarkako modalitateetan hainbat domina erdietsi zituzten, eta errelebuka ere, Aretxabaletako laukoteak urrezko domina jantzi zuten.

Joan den urtean hamaika domina ekarri zituzten, baina bazekiten aurten gaitzagoa izango zela: zazpi domina ekarri dituzte.

PACK GAZTEA

LENTILLAK

MULTIOPTICAS

1.A ZERBITZU OPTIKOETAN



OPARI BEZALA,
HIZKUNTZ
ITZULTZAILEA

R.P.S. N° 190/04 I.L.G.

J. Carlos Guerra 1
Tel. 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai 16
Tel. 943 76 15 75
BERGARA

C/ Nueva 15 - GROS
Tel. 943 32 66 49
DONOSTIA

Bidebarrieta 2
Tel. 943 20 05 22
EIBAR

Koldo Mitxelena, 7
Tel. 943 51 78 11
ERRETERIA

Mendibil M. G.
Tel. 943 63 99 01
IRUN

J.M. Barandiaran Enp.
Tel. 943 88 99 88
ORDIZIA

San Frantzisko 23
Tel. 943 69 84 70
TOLOSA



SEIN Taldea
Industriarako
Zerbitzuen
Enpresa Saria



SEIN Taldeko Gerentea, Joseba Lorenzo, MCC, CIE Automotive, JEMA eta Ormi-ko arduradunen ondoan.

Gipuzkoako Merkataritza Ganberak saria eman dio industria-horniduran diharduen SEIN taldeari "bere bateratze-prozesua era egokian egin duelako eta horri esker bere bezero nagusiek (Euskadiko industria-talde handienek) beharrezko jotzen duten zerbitzu-maila lortu duelako".



ETXEBERRIA
suministro industrial

Garmendipe, 1
20730 AZPEITIA - GIPUZKOA
TEL.: 943 157 115
FAXA: 943 815 922

LAYSA, S.A.

Traña-Padura Pol., 4 Pabilioia
48220 ABADIANO - BIZKAIA
TEL.: 94 621 7140
FAXA: 94 681 7545



MEMESA

Etxagibel Notario Juna kalea, 3
20500 ARRASATE - GIPUZKOA
TEL.: 943 712 425
FAXA: 943 712 298



SEIN
grupo • taldea

G2a

Goienka2a > KULTURA ETA AISIALDIA



> **MUNDUMIRA**
Antolatzaileek jaialdiaren balorazio positiboa egin dute > 45



> **MAIDER EGÜES**
Chiloé telebista saioan hainbat irla aurkeztuko dizkigu > 52

> **ENEIDA ITURBE**
Hego Amerikako herrialdeen gaineko ardurak eta mundua ezagutzeak atzerrira eraman du bizpahiru alditan. Barzelonan dihardu ikasten > 50



MOZAMBIKEN Kooperatibaren esperientzia garapen bidean diren hainbat herrialdetara eraman izan du Mundukidek.

MUNDUKIDE

Debagoieneko hamaika elkarte dabil solidaritatearen bidetik

Beharra duten tokietan elkarlana bultzatzea da helburuetako bat

Debagoieneko gobernu kanpoko erakundeak lankidetzan ari dira askotan

EDU MENDIBIL > BERGARA

Beharra duten tokietan elkarlana bultzatzea eta mundu orekatuago bat lortzea. Horixe da gobernu kanpoko erakundearen filosofia. Debagoieneko gobernu kanpoko hamaika erakunde daude: Anelkar, Antzuolan; Hiruatx, IESBAA eta Mundukide, Aretxabaletan; AMS, Amsogra, Harreman, ISF, Nubi eta Serso, Arrasaten; FISC erakundea, Bergaran; Aitzorrotx, Eskoriatzan, eta Banoia, Oñatin.

Lana eta kooperazioa uztartzeko helburuarekin jaio zen Mundukide (www.mundukide.org)

1999an. Horrela, kooperatibaren esperientzia garapen bidean diren komunitateetara eraman izan dute Afrikara eta Latinoamerikara: Gineara, Zimbawera, Mozambikera, Kolonbiara, Ekuadorra edo Perura. Beti ere, protagonismoa herrialdeei ematen zaie, garapen jasangarriaren aldeko urratsak eman ditzaten. Debagoieneko beste gobernu kanpoko erakundeekin lankidetzan ibili ohi da Mundukide. Etorrizuneko bi proiektu dituzte esku artean: batetik, Brasileko lurrik gabeko mugimenduko kooperatibei laguntza eskainiko die-

te MUREkin eta Lankirekin batera: udazken aldera 20 bat laguni formazioa emango diete gurean. Bestetik, Kubako azukre enpresen bideragarritasunaren alde lan egingo dute.

ELKARLANEAN

Mundukiderekin elkarlanean aritutakoa da Aretxabaletako Hiruatx (www.hiruatx.th). Iñigo Trueba 37 urteko donostiarra bertan ari da 2001. urtetik, Aretxabaletara bizitzera etorri zenetik. "Jose Mari Sarasuaren bitartez hasi nintzen Hiruatx elkartean. Txikitatik izan dut herrialde

pobreekiko kezka hori eta Hiruatx bezalako elkarte baten bitartez nire ekarpena egin neza keela ikusi nuen". Ekuadorren, Rukullaktan, oilo kooperatiba bat martxan jarri ondoren, Gineako hegoaldean, Mitemeleten, ari dira orain Hiruatxekoak. Han ere oilo kooperatiba bat egitea da helburua. Azaroan bidali zuten materiala eta datorren urteko udaberriko kooperatiba lanean egotea espero dute. Bien bitartean, diru bilketarekin jarraituko dute: 30.000 euro batu dituzte eta 100.000 eurora iristea da (44. orrialdean jarraitzen du)

Debagoieneko hamaika elkarte dabil solidaritatearen bidetik

(43. orrialdetik dator)

asmoa. Ekainaren 22rako Gineako proiektuaren gaineko proiektzioa iragarri dute Aretxabaletako kultura etxean.

Antzuolan aspaldi hasi ziren Brasilera, Canudos ingurura, hainbat proiektu aurrera eramateko laguntza bideratzen eta ondoren Anelkarrek hartu zuen lan hori bere gain. Jabier Etxaniz dugu Anelkar elkarteko kide-etako bat. "Gaur egun hiru ardatz nagusi ditugu: Canudoseko jarraipena egitea; Kongon, Kansenian, eskola bateko proiektuarekin ari gara azken hiru urteotan; eta azkenik, Senegalera, amatasun-klinika baterako laguntza eman berri dugu. Udalaren eta inguruko enpresen laguntza, Goizperrena berezikI, izaten dugu". Bittor Arbulu eta Tomas Madinabeitia apaiza aurki joango dira Kongoko eskolako proiektu nola dagoen ikustera.

Aurten 400 urte betetzen dira Mariaren Lagundia sortu zenetik eta bere baitan dagoen FISC erakundea (www.fisc-ongd.org) mundu osoan ari da lanean, gizarte justuago bat lortze aldera. Euskal Herriko ordezkari Donostian daukate eta Bergaran badute azpi-delegazio bat. Ana Carpintero dugu bertako arduduna. "Injustiziak salatzea eta sentsibilizazioa bultzatzea, horiek dira gure eginkizun nagusiak. Eta munduan diren injus-



MUNDUMIRAN Aurreko asteburuan gobernuz kanpoko hainbat erakundek euren proiektuen berri eman zuten Oñatin.

JOSETXO ARANTZABAL

tiziaz horiek saihesteko asmoz, laguntza baino elkarlanaren alde egiten dugu". Joan den aste bukieran, Mundumira jaialdian, Kongoko Errepublikan egingo duten proiektua aurkeztu zuten: Kinshasa hiriburuko zonalde marjinal baten, Senbalao auzoan, eskolak egingo dituzte 2007ko udaberriarako. Proiektuak Mobokoli izena dauka, "titia ematen duen ama" hango hizkuntzan hain zuzen ere. Haur eta nerabeen eskolatzea eta auzoko gizarte lana egitea dira helburuak.

HARREMAN DENDA

Bidezko merkataritza bultzatzen duen Harreman denda zabaldu

zuten orain dela zortzi bat urte. Ondoko taldeek hartzen dute parte: Anelkar, Hiruatx, Mundukide, AMS, ISF, Serso, FISC, Aitzorrotz, Banoia eta Harreman bera. Iñigo Truebak zera diosku: "Bidezko Merkataritza ohiko merkataritzako alternatiba bat da. Azken horren irizpide ekonomikoen gainetik balore etikoak ditu: alderdi sozial eta ekologikoak. Gune txiroetako ekoizle eta nekazariak lana duintasunez egitea bide dute". Elikadura eta artisau produktuak saltzen dituzte Arrasateko Hiper Eroskin duten lokalean: "Kontsumitzaileek kalitatezko produktuak erosten dituzte, langilearen eskubi-

deak eta ingurumenarenak errespetatu direla jakinda eta, aldi berean, ekoizle eta kontsumitzailearen arteko harremana estutu egiten da irizpide ekonomikoak, gizartearekin eta ekologiarekin bateratzea posible dela egiaztatuz" dio Truebak. "Irabaziak sortzen direnean produktuen prezioa gutxitzen dugu eta horrela gehiago saldu dezakegu hirugarren munduaren onerako. Ekoizleen gastuak berdin segitzen dute eta hemengo portzentajea jaitea. Gehienbat hirugarren munduarekin konpromisoa daukan jendea hurbiltzen da gurera. Espe-ro dugu poliki-poliki jendeak gure eskaintza ezagutzea eta sal-

mentek gora egitea" gaineratzen du Truebak.

BOLUNTARIO BILA

Debagoienean diren gobernuz kanpoko erakundek boluntarioak lortzeko deia zabaldu dute egunotan. Iñigo Truebak emandako datuen arabera, 70 lagun inguru dabilta orain bailarako erakunde ezberdinetan lanean. Hainbat lanetarako boluntarioak behar dituzte: ekitaldiak, azokak edo tailerrak antolatzeke, Harreman dendan egoteko, eta beste hainbat. Laguntza emateko gertu daudenek helbide honetara jo dezakete: harremandenda@yahoo.es.

44.108.530 UDA EZBERDIN DITUGU

Lor ezazu %7^{ko} deskontua Barceló Visa txartel berria erabilita

Zein da zurea?



Zure Barceló bulegoak:
Arrasate 943 79 70 11
Bergara 943 76 08 43



Bidaia bat, bidaia bat

Elkartasun Eguna ospatuko da zapatuan Arrasaten

Bihar, zapatua, Elkartasun Eguna ospatuko da Arrasaten. Harreman, AMS, ISF, Serso eta Nubi elkarteek antolatu dute biharko festa. Beste hainbat talde gonbidatuta daude. Zortzigarren ekitaldia izango da biharkoa. Sebero Altube plazan, 10:00etatik 20:00etara bitartean, erakusketak, bidezko merkataritzako produktuen dastatze eta salmenta, tonbola, henna eta te tailerrak eta beste hainbat eskaintza izango dira. Kalimba taldearen eskutik ipuinak eta musika izango dira eguerdi partean eta arratsaldean, Djamboree perkusio taldeak Saharako doinuak ekarriko ditu. Portaloitza ere arituko da.

Andoni Uribetxeberria Harremaneko kidearen arabera, Indian, Bombay hirian kalean ibiltzen diren neskatilak umezurtz-etxe baten urtebeteko gastuak ordaintzeko 94.000 euro bideratu nahi dituzte. 220 neskatila dira eta bakoitzaren eguneko gastua 1,17 euro dira.



Hainbat produktu erosteko aukera izango da zapatuan.

JOSETXO ARANTZABAL

KULTURA > MUNDUMIRA JAIALDIA

Mundumiraren bigarren edizioan jaialdia sendotu egin dela adierazi dute arduradunek

Lehenengo edizioko akatsetatik ikasi eta emaitza oso onak lortu dituela nabarmendu dute

IKER BARANDIARAN > OÑATI

Mundumiraren bigarren edizioa oso arrakastatsua izan da. Hala jakinarazi dute Debagoieneko Mankomunitateko ordezkariak eta *Euskal Herria* aldizkariako arduradunek.

Alde handia egon da jendearen partehartzean eta ekitaldiek jaso duten harreran iazko edizioarekin alderatuta. Mankomunitateko Kultura arduradun Ernesto Murgiondok nabarmendu du aur-

tengoan "denboraz" antolatu ahal izan dutela jaia. Hau da, "iazko akatsetatik ikasi dugu eta joan den urteko edizioa bukatu bezain laster, aurtengoarekin lanean jarri ginen. Emaitzetan igarri da".

Hortaz, programazioa gehiago landu dute eta publizitatea eta komunikazioa askoz gehiago jorratu dituzten alorrak dira.

Horrez gain, Murgiondok nabarmendu du Mundumira marka ezagutzera eman dutela eta

igarri dela bigarren edizioa dela, dagoeneko askok jai hori zer den dakitelako.

Horrekin batera, azpimarratu du gobernu kanpoko erakunde askorengana heldu direla, eta horiek "izugarritzko inplikazioa" izan dutela.

KOKAPENA, ERABAKITZEAR

Jaialdi erraldoiaren hurrengo edizioa non egingo den galderari ez diote erantzunik eman. "Jaialdiari espazio zabala eta azpiegitura egokia eman beharko zaio, eta ezinbestekoa da gune desberdinak lotzea. Hor dago gakoa".



KALEA, PROTAGONISTA Oñatiko kaleetan eta plazako karpan jende ugari ibili da asteburuan.

GOIENKARIA



MUSIKA > ZAPATUAN, KONZERTUA GAZTETXEAN

JOSEVISKY

MUSIKA > ZAPATUAN, KONZERTUA GAZTETXEAN

Sexty Sexers, Los Cretinos eta Show Business

Berako, Oñatiko eta Arrasateko taldeek emango dute kontzertua

nuak izango dira entzungai gaztetxean.

Sexty Sexers taldeak zeresan handia eman du *Iluntze berri baten bila* diskoarekin. Punk-rock eta rock-and-roll bizia batzen dute euren kantuetan. Show Business, berriz, Oñatikoak dira eta punk-rocka egiten dute.

Azkenik, Los Cretinos taldeak grabatu berri duten disko kantuak jendaurrean aurkeztuko dituzte: surf, garage eta rock-and-roll kantuak batu dituzte.

I.B. > ARRASATE

Bihar, zapatua, Berako Sexty Sexers, Arrasateko Los Cretinos eta Oñatiko Show Business taldeek kontzertua egingo dute Arrasateko gaztetxean. Emaldia 22:30ean izango da, eta rock-and-roll eta punk-rock doi-

> ZINEMA

Arrasateko Emakume Txokoak eta Udalak gay, lesbiana eta transexualen zine zikloa antolatu dute

Zu zeu izan izenpean, gay, lesbiana eta transexualen gaineko filmak batu dituzte. Ekaineko eguenetan Amaia Udal Antzokian emango dituzte, 20:30ean.

Eguenean, hilaren 8an, *20 centímetros*, Ramon Salazarrek zuzendutako komedia emango dute; eta hilaren 15ean, *La memoria de los peces* film irlandarra eskainiko dute Amaian, 20:30ean. Horrez gain, hilaren 28rako, gay, lesbianen eta transexualen nazioarteko egunean, kontzentrazioa deitu dute. Arrasateko Arbola-peta plazan egingo dute, 19:30ean.

Zarugalde 25 / ARRASATE Tel.: 943 77 18 35

Kalitatezko ametsak



Koltxoi dendak

Zerekin egiten duzu amets?

2006ko koltxoi berriekin

www.beds.es

Arrizuri 7 / BERGARA Tel.: 943 76 25 91



Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokerosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

Bergara:

- Duplexa. Masterreka. 180 m².
- Duplexa. Ortuibar. Oso ondo.
- Eraikin berria. Prezio oso ona.
- Masterreka 92 m². Oso ondo.
- Espoioia 156 m². Oso ondo.
- Koldo Eleizalde 87 m². Ondo.
- K. Eleizalde 90 m² + teilatu azpia.
- Ibargarai 118 m². Oso ondo.
- Zabalotegi 50 m². Oso ondo.
- T. Aranzadi 140 m². Oso ondo.
- Ibargarai 109 m². Oso ondo.
- Bidekurutzeta 96 m². Oso ondo.
- Fraskozuri 104 m². Oso ondo.
- Ortuibar 97 m². Oso ondo.
- Ibargarai 80 m². Prezio oso ona
- Zubiaurre 80 m². Ondo.

Antzuola:

- Elkaren ondoan eraikitako 8 txalet salgai: Hiru solairu, eguzkitsua, sarbide ona, garaiea, txokoa eta terraza. Aukera ona.
- Etxebizitza berria 98m². Garaiea.



Telesforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37
Zarugalde 1 Arrasate
T: 943 77 13 02 F: 943 73 12 40

BERGARA:

- Ibargarai 118 m². Oso ondo.
- Bidekurutzeta, 60 m². Oso ondo.
- Martoko 93 m². Ondo.
- Aranerreka 75 m². Oso ondo.
- Zubiaurre 60 m². Oso ondo.
- Mabiategi 80m². Ondo.
- Madura 51m². Berrituta.
- Zabalotegi 80 m². Oso ondo.
- Zubiaurre 71 m². Erdi berrituta.
- Artelake 74 m². Ondo.
- Angiozar bi solairuko etxea. Berrituko.
- Masterreka 87 m². Oso ondo.
- Ibargarai 80 m². Ondo.
- Fraskozuri 102. Ondo.
- Arizuri 97 m². Oso ondo.

ELGETA:

- Salbador 80 m². Berrituko.

SORALUZE:

- Gipuzkoa etorb. 80 m². Oso ondo.

ANTZUOLA:

- Duplex berria erdialdean.

IRAGARKI SAILKATUAK

Eguazten eguerdia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

943 25 05 01

sailkatuak@goiena.com

PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 16 EURO (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO.
GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizuniki.



Garbi S.L.

**PIPIEN, TERMITEN,
ETA ABARREN
AURKAKO TRATAMENDU
ANTIXILOFAGOAK EGURREAN,
ALTZARIETAN, ETA ABARRETAN.**

**649 84 67 09 (BERGARA)
943 33 18 37 (HERNANI)**



INMOBILIARIA
T: 943 698404

BERGARA:

- 109 m², 3 logela.
- 65 m², 3 logela, 217.675 euro
- Duplexa, 105 m², 3 logela, garaiea
- 82 m², 3 logela, berrituta. 210.995 €
- 104 m², 4 logela, egongela haundia, 366.617 euro
- Martoko. Bi urte dela berrituta.
- S. Anton Abad. Bi urte dela berrituta.
- Ibargarai 80 m². Bi balkoi.

ARETXABALETA

- 85 m², 3 logela, jantzitza

ANTZUOLA

- 8 txalet berri
- 51 m², berrituta, 167.000 euro
- 90 m², 3 logela, terraza
- 77 m², berrituta, 217.674 euro

ANGIOZAR

Baserria

BERGARA

Baserria. 600 m², lur saila 300 m². 370.000 euro.

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Antzuola. Duplexa salgai. Eraikin berria. Garaie handia. 666 72 47 12.

Antzuola. Etxebizitza ia berria. 90m². Hiru gela, egongela-jangela, sukaldia, bi bainugela, halla, despentsa eta bi balkoi. Trastelekua. Erdi jantzitza. Eguzkitsua. 655 70 97 14.

Aretxabaleta. 100 m²-ko duplexa. 3 logela, sukaldia, egongela, garaiea, trastelekua, ganbara. 10 m²-ko terraza. 620 17 05 32.

Arrasate. Doneztebe Portuko kalean. 69m². Bi logela, egongela, sukaldia eta bainugela. Bi soto. Arratsaldezu deitu. 652 77 87 71.

Arrasate. San Andres auzoan dago etxea. Bi logela, sukaldia, egongela, komuna, balkoia eta sotoa ditu. Eguzkitsua. 667 85 19 52.

Arrasate. San Josepen. Hiru logela, egongela, sukaldia, bainugela, gas naturala, berogailua, igogailua eta trastelekua. Erdi jantzitza. Oso eguzkitsua. 686 61 58 79.

Bergara. 50 m², bi logela, egongela, sukaldia, 14 m²-ko sotoa. Berrituta. 635 72 67 11.

Bergara. Etxebizitza salgai San Migel kalean. Erabat berrituta. Bikotearendako aproposa. 943 76 11 56.

Bergara. Etxebizitza salgai. Sukia eraikuntza. 678 32 91 62.

Bergara. Guztiz berrituta. 3 logela. Balkoia, ganbara eta berogailua ditu. Zubiaurren. 943 28 76 36.

Bergara. Koldo Eleizalde kalean. 609 39 27 58.

Bergara. San Pedro kalean etxebizitza salgai. Bi logela. Ganbara. 195.500 euro. 605 73 37 39.

Bergara. Zubiaurren etxea saltzen da. Guztiz berrituta dago. Gasa dauka. Eguzkitsua da eta erdi jantzitza dago. 620 62 83 41.

Ezkarai. Bi logeladun etxebizitza errentan. Egongela, sukaldia, bi komun eta garaiea. Estreinatuko. 943 03 87 70.

Iruñea. Etxebizitza salgai Alde Zaharreko Carmen kalean. 44

metro koadro. Igogailua eta trastelekua. 660 84 51 78.

Legazpi. Etxebizitza salgai. 105 m². Ganbara. Igogailua, Berogailua. Gela guztiak kanpora ematen dute. 680 44 91 60.

Leintz Gatzaga. Etxebizitza salgai. Hiru logela, egongela eta sukaldia. 78 m². Txokoa, 20 m². 656 79 27 24.

Otxandio. Etxea salgai. Berria. Hiru solairu, 117 m². 200.000 euro. 637 78 13 88.

Oñati. Baserria salgai. 50.000 m². Bi etxebizitza egiteko aukera. Landa turismorako gertatzeko ere egokia. 659 04 20 99.

Oñati. Bidebarrieta auzoan. 63 metro koadro. Bi logela, sukaldia, egongela, komuna, garaiea eta trastelekua. 655 71 09 63.

Oñati. Zubillagan etxea salgai. 78 m². Hiru logela. Berritua eta jantzitza. 223.000 euro. 656 75 38 26.

Soraluze. Etxebizitza salgai herri erdian. Lehenengo solairua. Hiru logela, egongela, sukaldia eta bainugela (57 metro koadro). Ganbara eta 33 metro koadroko baxu komertziala. Atari eta eskailera pribatua. 144.000 euro. 943 76 32 25.

103. ERRENTAN EMAN

Aramaio. Etxebizitza errentan ematen da. 943 79 30 05.

Aretxabaleta. Etxebizitza errentan ematen da. Hiru logela eta egongela bat. 943 79 03 83.

Benidorm. Etxebizitza errentan. garaiearekin eta igerilekua-rekin. 666 67 06 94.

Cambrils. Apartamentua alokagai daukat hondartzan parean. Igerilekua eta lorategia ere baditu. 610 79 47 29 edo 619 72 34 33.

Cambrils. Etxebizitza ematen dut errentan udarako. Berria. Hondartzatik eta hirigunetik oso gertu. 619 37 51 18.

Chiclana (Cadiz). Sancti Petri kostaldia. Apartamentua errentan ematen da abuztuaren bigarren hamabostaldian. Hondartzatik gertu. Igerilekua. 616 14 65 54 edo 678 78 39 10.

Donostia. Etxebizitza errentan ematen da Groseko hondartzatik gertu. Uztaillaren 15etik irail bukaerara. Lau lagunendako aproposa. 943 32 26 25 edo 689 21 72 08.

Eskoriatza. Etxebizitza errentan ematen da, erdialdean dago. Berria. 696 16 83 06.

Haro (Errioxa) Etxebizitza emango nuke errentan ekainarako edo irailarako. Igerilekua eta kirol gunea ditu. 618 16 23 69.

Iruñea. San Ferminetan estudioa errentan alde zaharrean. 697 91 54 32.

Laredo. Apartamentua errentan. San Juanetan, uztailean eta irailean. Bi logela. Hondartzatik 100 metrora. 628 29 80 51 edo 636 52 32 57.

Laredo. Apartamentua alokagai daukat uztailean eta abuztuan. Bi logela ditu eta hondar-

ANTZUOLA

Zerbitzaria behar da.

943 78 62 45

tzatik 500 metrora dago. 679 35 29 70 edo 943 79 81 38.

Noja. Duplex polita hondartzan. Itsasora begira. Hamabostaldia edo hilaite osoak. 944 61 43 78 edo 696 90 94 43.

Peñiscola. Etxebizitza errentan uztailean eta irailean. Hondartzatik 100 metrora. Garaiea eta igerilekua. Errentan ematen da hilaite, hamabost egunez eta asteka. 605 75 61 69 edo 943 79 48 82.

Salobreña hondartzan. Atxikitako etxebizitza bat errentan ematen da, uztaile, abuztu eta irailean. E-posta: invesa@telefonica.net. 958 82 82 00.

Salou. Apartamentua alokairuan uztailetik irailera bitartean. 943 32 26 25 edo 689 21 72 08.

Torreveja. Etxebizitza errentan ematen da. Ekaina, uztaile, abuztua eta iraila. 687 22 75 41 edo 943 79 78 23.

Vera (Almeria). Apartamentua errentan ematen da. Hondartzatik eta urbanizazio naturistan. Jantzitza. Igerilekua. Telefonoa: 657 73 94 25.

104. ERRENTAN HARTU

Aretxabaleta edo Arrasate. Etxea hartuko nuke errentan. 653 70 50 68.

Aretxabaleta edo Arrasate. Bikoteak etxea hartuko luke errentan. 635 75 38 07.

Arrasate. Hiru ikaslek etxebizitza hartuko genuke errentan. Ahal dela unibertsitatetik gertu. 610 31 91 24.

Bergara. Etxebizitza errentan hartuko nuke. 645 49 91 05.

Bergara. Etxebizitza hartuko nuke errentan. Telefonoa: 943 76 11 90.

105. ETXEA OSATU

Arrasate. Lagun bat behar da etxebizitza osatzeko. 605 77 51 66.

Arrasate. Pertsona bat behar da etxe bat osatzeko. Etxebizitza zeharo jantzitza dago. 210 euro gehi gastuak. 685 73 67 54.

Bergara. Bolun etxea osatzeko lagun bat behar da. Andoni. 605 76 98 79.

Iruñea. Mutil bat behar da etxea osatzeko. 945 44 53 60.

2/ GARAJEAK

201. SALDU

Aretxabaleta. Garaie itxia saltzen dut erdialdean. 685 72 16 52 edo 665 73 40 09.

ANGIOZAR

Ortzi erretegia alokatzen da.

943 78 22 80 665 72 24 46

Bergara. Garaie itxia. San Lorentzo auzoa (Zapalaitz taberna azpian). Telefonoa: 943 76 40 05.

203. ERRENTAN EMAN

Bergara. Garaiea ematen da errentan da Boni Laskurainen. 943 76 57 04.

Oñati. 17 m². Plazatik gertu. 656 72 10 35.

3/ LOKALAK

304. ERRENTAN HARTU

Aretxabaleta. Lokal komertziala edo garaiea errentan hartzeko behar da. 675 71 34 19.

4/ LANA

401. ESKAINTZAK

Bergara. Pertsona euskalduna behar da ume bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. 616 26 18 84.

402. ESKAERAK

Aretxabaleta. Emakumea gertu etxeak garbitzeko edo umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 690 28 91 89.

Argiketari eta soldatzaileak bere burua eskaintzen du lanerako. 686 79 97 79.

Arrasate. Emakume euskalduna umeak eta adinekoak zaintzeko gertu. Telefonoa: 659 82 75 18.

Arrasate. Emakumea gertu etxetako atariak garbitzeko. 943 79 60 34 edo 685 75 43 80.

Arrasate. Esperientzia duen emakumea gertu adinekoak zaintzeko egun edo gauzez. 943 79 60 34 edo 685 75 43 80.

Arrasate. Gizon gaztea gertu hainbat lan egiteko: zerbitzari, sukalde laguntzaile eta garbitzaile lanetan aritzeko eta baita ere pertsona nagusiei paseoa laguntzeko. Carlos. 650 28 13 14.

Bergara edo Arrasate. Mutila lanerako prest: lorategietan, garbiketara eta nagusiak zaintzen. 690 84 72 92.

Bergara edo Arrasate. Neska iluntzetan lan egiteko prest: tabernan, garbiketara eta umeak edo nagusiak zaintzen. 690 84 72 92.

Bergara. Emakumea nagusiak zaintzeko prest orduka edo etxean bizitzen. Telefonoa: 666 67 84 21.

Bineska euskaldun umeak zaintzeko prest. 628 45 07 68 edo

ARRASATE

Pertsona bat behar da arratsaldez Ganesha Tatroo denda lan egiteko.

943 71 18 24

675 00 59 50.

Debagoiena. Emakumea etxetan nagusiak zaintzeko prest. Bertan biziko litzateke. 690 68 59 14.

Debagoiena. Emakumea gertu orduka edo kanpoko langile moduan jarduteko, garbiketarako egiteko... Erresidentzia baimeana daukat. 645 49 91 05.

Debagoiena. Mutila gertu lanerako. Esperientzia lortzaintzan, eraikuntzan. Edadetuak ere zainduko litzateke. 618 91 33 30.

Oñati. Neska euskalduna umeak zaintzeko prest uztaileko lehen hamabostaldian eta abuztuko bigarrenean. Irakasle ikasketak egiten nabil. 651 70 85 13.

5/ IRAKASKUNTZA

502. EMAN

Aretxabaleta. Ingeles eskolak ematen ditut. 943 79 03 83.

Arrasate. Behar bereziak dituzten umei laguntza eskolak emango nitzkieke. 645 73 04 69.

Bergara. DBHko eskola partikularrak ematen dira. Telefonoa: 675 70 17 63.

Irakasle batek laguntza eskolak ematen ditu. 645 73 04 69.

6/ MOTORRA

601. SALDU

Autokarabana. Turbo Diesel 2500 Cm3, 6 toki egunez eta 4 gaez, avancé, TB antena, ondo zainduta, dutxa, berogailua. 656 79 32 45.

Citroën Xsara autoa salgai. ABS, lau aire-zaku, 71.000 km. Egoera onean. 647 29 93 44.

Ford Focus Wagon. TDI. Aire girotua. Oso egoera onean. 6.000 euro. 627 42 63 12.

Ford Scort. 16 v. Familiarra. 127.000 km. 2.200 euro. 649 69 33 02.

Gas-Gas Tx 270 motoa salgai. 1998 urtekoa. Kaskoa eta botak opari. 1.500 euro. 650 79 52 11.

Golf GTI autoa salgai. Prezio interesgarria. 652 77 71 08.

Harley-Davidson Sportsters Custom 53c modelo. Estrak. More kolorekoa. 677 83 47 29.

Honda Civic autoa salgai. ABS, aire-zakuak, aire girotua. 1997koa. 170.000 km. 3.000 euro. 695 75 59 57.

Iveco 120 E-18 kamioia salgai. Diesela. Isoterma. 2001eko. 615 78 13 13.

Kimco Vitality markako motorra salgai, 2 t. 50 zentimetro kubiko. Estreinatuta barik. Prezio interesgarria. Telefonoa: 667 66 12 40.

Mercedes Vito furgoneta salgai. 122 ZP. 2.200 Tdi. Sei plaza. 68.000 km. 15.000 euro negoziagarriak. 620 17 80 47.

Opel Corsa 1.4 16 v Sport autoa salgai. 1999koa. 143.000 km. 3.700 euro. 699 49 14 51.

Peugeot 205. Diesela. 7 urte, 92.000 km. 658 70 58 55.

Peugeot 306 Sport autoa salgai. 1.8i. 16 v. 115 ZP. 4.000 euro. 636 89 07 74.

Renault Kangoo Combi salgai. Aire girotua. lo egiteko gertatuta. 80.000 km. 6.000 euro. 695 75 59 57.

Renault Express. Diesela. Oso ondo dago. Beti garaiean. 606 68 79 84.

Yamaha XJ Diversion markako motorra, 600 zentimetro kubiko, 34.000 kilometro. Egoera oso ona. 667 66 12 40.

7/ ANIMALIAK

701. SALDU

Dogo argentino arrazako txakurkumea salgai, arra. 10 hilabete dauka. Telefonoa: 646 09 47 85.

hildakoak

- **Felix Agirre Lupiola.** Arrasaten, maiatzaren 28an. 73 urte.
- **Juana Ugarte Berasategi.** Oñatin, maiatzaren 29an. 84 urte.
- **Migel Altube Zabarte.** Bergaran, maiatzaren 30ean. 81 urte.
- **Maria Pagaldai Etxeberria.** Bergaran, maiatzaren 30ean. 90 urte.
- **Josefina Mansilla Plada.** Bergaran, maiatzaren 30ean. 81 urte.
- **Mari Carmen Rodriguez Burgoa.** Arrasaten, maiatzaren 30ean. 53 urte.
- **Gabriel de Gustin Gonzalez.** Arrasaten, maiatzaren 31n. 83 urte.
- **Asuncion Antxia Galdos.** Arrasaten, maiatzaren 31n. 84 urte.



Ainhoa Arantzabal eta **Txema Kortabarria** arrasatearrak bihar, ekainaren 3an, ezkonduko dira Angiozarren. Eztei bidaian Kana-dara joango dira. Koadrilakoen partetik, zorionak, bikote, eta ongi pasa bidaian.



Alaitz Elortza eta **Gorka Etxabe** aretxabaletarrak ekainaren 3an ezkonduko dira Azatzako San Juan Bataiatzailearen elizan. Eztei bidaian *tour* kubatarra egingo dute bizikleta gainean, EPO barik. Animo, bikote, eta zorionak! Lagunen partetik.

ESKER ONA

**Jose Luis
Fernandez Fernandez**

Bergaran hil zen 2006ko maiatzaren 22an, 74 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerririk asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2006ko ekainaren 2an.



Amaia Hernandez eta **Carlos Beitia** arrasatearrak ezkondu zirenetik 25 urte bete ziren maiatzaren 23an. Ospatzeko Eskoriatzako Txalaparta jatetxean bazkaldu zuten maiatzaren 28an familiakoe-kin. Zorionak eta urte askotarako, familiakoen partetik.



Amaia eta **Igor** zapatuan, ekainaren 3an, ezkonduko dira Urkuluko Goroeta elizan. Eztei bidaian Australia aldera joango dira. Koadrilakoen partetik, zorionak, eta oso ondo pasa. "Apustua, baietz bueltan hiru etorri!"

URTEURRENA

**Angela
Elortza Urtzelai**

Txomin Galdosen alarguna

Lehen urteurreneko meza zapatuan, ekainaren 3an, 19:30ean, Aretxabaletako Andra Mari elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerririk asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Alicia Gonzalez Bueno

2005eko ekainaren 4an hil zen.

Aimar Berrio Gonzalez

2005eko ekainaren 4an hil zen.



Urteurreneko meza domekan, ekainaren 4an, 12:30ean, Arrasateko Santa Teresa elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerririk asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

**Maria
Pagaldai Etxeberria**

Gasteizcn hil zen 2006ko maiatzaren 30ean, 90 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerririk asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2006ko ekainaren 2an.

ESKER ONA

**Juana
Ugarte Berasategui**

Jose Aramendiren alarguna

Oñatin hil zen 2006ko Maiatzaren 29an 84 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerririk asko sendikoen izenean.



Oñatin, 2006ko ekainaren 2an.

ESKELA

**Mari Carmen Rodriguez
Burgoa**

Arrasaten hil zen 2006ko maiatzaren 30ean.

*Erein dituzun haziak
lore izango dira eta,
eskerririk asko M^aCarmen*



Arizmendi Ikastolako ikasle, guraso eta langileak.
Arrasaten, 2006ko ekainaren 2an.

ESKELA

**Mari Carmen Rodriguez
Burgoa**

Arrasaten hil zen 2006ko maiatzaren 30ean.

*Irakasletza maite zenuen
ez dago duda izpirik
ikasgai ona eman diguzu
aurpegi alaia jarririk
agur lankide, agur laguna
oroitzapenak bildurik
elkarlanean egindakoak
jarraituko du bizirik*




Zure lagunak.
Arrasaten, 2006ko ekainaren 2an.

**Eskela, urteurren meza edo eskertzarik jarri nahi baduzu,
etor zaitez GOIENKARIAren ordezkarietzako batera.**



GOIENKARIA

Astero
18.500 etxetan.

Eskelen prezioa:
82 €.



bila-bila 7



hitz gezidunak

	Gaztainondo-ikatz	Edari alkoholiko	Lapurdiko udalerrria
	Sotil, polit	Sindikatu abertzalea	Nitrogenoa
	Gehiegi, sobera		Sufrea
	IRUDIAN		Irristakor
Koitadu, errukarri	Hedatsua		
Gipuzkoako udalerrria	Kontsonante ez dena		
		Etxeko erre-gai	
		Oihal fin eta garden	
Ordaintzeko betebeharrak		Debeku, gaitzespen	
Kakagale		Su, lama	
			Bokal errepi-katuta
Festa, ekitaldia			
Moneta amerikarra			
		Egokia	

GOIENKARIA



umore giroan

Kike Amonarriz

TELEFONOZ

Astelehen goiza da eta asteko lanei ekin baino lehen, Joseba Egibarrek Xabier Arzalluzi hots egin dio:

- Kaixo, Xabier. Ezer berririk ba al da?

- Lasai, alderdia sekula baino indartsuago eta batuago dago. Gureak ez diren medioetako inkestek ere gero eta emaitza hobekak eskaintzen dizkigute eta, batzuei gehiegi-keria irudituko baldin bazaie ere, esan genezake gu garela berriro ere euskal politikagintzaren gunea eta erreferentzia zentrala.

- Tira, Xabier, ezagun da kazetariekin zaudela. Geroxea goituko dizut.

sudokua

3	9		5	2		7	4
		2	7	1	6		
	6					2	
1				3			8
		5			2		
2			7				5
	1						3
		3	4	9	7		
8	4		3	6		5	9

hieroglifoa

Musean


Jao
Jeo
Jio
Jo
Juo

hizki salda

Bruesa GBC-ko bost jokalaria.

S	K	R	T	O	S	L	B	F
F	M	H	D	A	J	T	D	Z
A	G	A	L	I	L	E	A	B
R	N	B	R	M	U	B	A	W
B	O	N	X	T	L	P	D	R
D	U	T	E	N	I	M	S	T
T	F	N	H	J	K	N	L	O
S	W	Y	A	T	T	E	E	M
B	N	R	Y	I	U	R	I	Z

soluzioak



V	N	O		R	V	L	O	D
V	I	D	L	V	I	V	I	
	V	R	P	G	V	K	V	K
U	B	V	T		R	O	Z	
S	V	G		R	V	B	I	E
V	L	V	B	V	Z		G	
S		R	V	L				
T	N	V	L	V	G			
I		G		G				

bono fotoa



Arrasaten futbito txapelketa jokatzen da zapatu eta domeka goizetan. Non jokatzen da txapelketa hori?

Argazkia eta galdera > Jose Felix Diaz de Tuesta

Super BM

Super BM emandako
50 euroko erosketa-txartela
zozketatuko du GOIENKARIAK asmatzaileen artean!

ERANTZUNA
IZEN-DEITURAK
TELEFONOA.....

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO
Goienako edozein egoitzara

Kas laranja edo limoia
2 litroko botila

0,99 € 165 pta.
Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA
Iñaki Abasolorendako izan da erosketa-txartela. Zorionak!
Galderaren erantzun zuzena: Kantonoste.

3	9	1	5	6	2	8	7	4
4	5	2	7	8	1	6	9	3
7	6	8	9	4	3	5	2	1
1	7	4	2	3	5	9	6	8
6	3	5	1	9	8	2	4	7
2	8	9	6	7	4	3	1	5
9	1	6	8	5	7	4	3	2
5	2	3	4	1	9	7	8	6
8	4	7	3	2	6	1	5	9

Jok orrik ez
Jeroglifikoa: Jokorik ez.

S	K	R	T	O	S	L	B	F
F	M	H	D	A	J	T	D	Z
A	G	A	L	I	L	E	A	B
R	N	B	R	M	U	B	A	W
B	O	N	X	T	L	P	D	R
D	U	T	E	N	I	M	S	T
T	F	N	H	J	K	N	L	O
S	W	Y	A	T	T	E	E	M
B	N	R	Y	I	U	R	I	Z

Mundial

honetan jokatu gurekin

informatika, irudia eta soinua



Eskaintza honek 2006ko maiatzaren 18tik ekainaren 24ra balio du



Saber comprar • Erosten jakin

Eneida Iturbe > Ikaslea

"Umetan antzerkia egiten genuen eta ikuskizunak iragartzen genituen"

Eneida Iturbek txikitatik dauka kanpora jotzeko harra barruan. Hego Amerikako herrialdeen gaineko ardurak eta mundua ezagutzeak atzerrira eraman du bizipahiru alditan. Aspaldian antzerkia egiteak lotsarazi egiten duela esan digu. Horren ordez, Bartzelonan dihardu nazioarteko kulturen gaineko ikasketak egiten. Gobernuz kanpoko elkarte baten lan egingo luke.

IKER BARANDIARAN > ANTZUOLA

Eneida Iturbek txikitatik izan du Hego Amerikaren gaineko ardura. Gobernuz kanpoko erakunde batzuekin lan egin izan du eta aspaldian Bartzelonan dabil Kultura Arteko Nazioarteko Ikasketak egiten. Lan bila hasi da egunotan.

Zer izan gura zenuen nagusitan?

Ez neukan argi, nahiz eta noizbehinka esaten nuen aktore izan gura nuela.

Antzerkiaren gaineko zaletasuna txikitatik datorkizu, ezta?

Bai. Amonaren baserrian lagunok arropa zaharrekin moztu eta antzezan egiten genituen. Bizikleta gainera igo eta herriari hainbat buelta emanda, antzezlana egin behar genuela iragartzen genuen aldi bakoitzean. Sasoi hartan, herrian bana-bana batzuek bakarrik hartzen zuten *Berrigara* aldizkaria, eta lagun batek eta biok bizikletan banatzen genuen.

Horren ostean Bergarako antzerki talde baten ibili zinen.

Bai. Antzuolako lagun batzuk Bergarara joan ginen eta Virago taldean esku hartu genuen. Urtebete ibili ginen ikuskizun batekin, baina azkenean utzi egin genuen. Ordurako, antzerkia egiteak lotsa apur bat ematen zidan.

Kazetaritzaren gaineko ikasketak egitea erabaki zenuen?

Zalantzan nengoen Kazetaritza, Publizitatea, Ikus-entzunezkoak edo Interpretazioa eta Itzulpen-gintza ikastea. Azkenean Giza Zientzien Komunikazioa aukeratu nuen, oso zabala zelako. Dene-tatik ikusi eta ostean erabakitze-ko asmoa neukan.

Zer moduz ibili zinen Donostian ikasten?

Ondo. Lehen ikasturtean Antzuolako talde bat joan ginen elkarrekin bizi izatera. Horren ostean, jende gehiago ezagutu genuen. Askok ikasten da etxetik kanpo bizi izaten. Merezki du.

Ordurako erabakita zenuen zer lan egin gura zenuen?

Ez, baina Erasmus programaren bitartez Danimarkan egon nintzenean konturatu nintzen kanpoan ibili gura nuela, nahiz eta Antzuolan gelditu.

Sasoi hartan hainbat komunikabidetan kazetari lanak egin



IKER BARANDIARAN

PERTSONALA

Herria: Antzuola. **Adina:** 24 urte. **Ikasketak:** Giza Zientzien Komunikazioa eta Kultura Arteko Nazioarteko Ikasketak. **Zaletasunak:** Irakurtzea, zinema, bidaiatzea eta sabel-dantza. **Gizateriaren aurrerapen handiena?** Giza eskubideak. **Zenbat seme-**

alaba izango zenituzke? Bi. Nahiz eta orain arte ez nuen horretan pentsatzen. **Inoiz diskriminatu sentitu zara emakumezkoa izateagatik?** Ez, baina jarrera zatarrak ikusi ditut. **Zure bizitzako leloa da:** Aurrera egitea eta baikorra izatea.

zenituen. Zer moduzko esperientzia izan zen?

Berria-n eta GOIENKARIA-n ordezkapen batzuk egin nituen. Horren ostean, *Asteleheneko Goienkaria*-ren sorreran ibili nintzen. Jende gutxi genbiltzan, proiektu berria zen... Askok ikasi nuen eta lana gustukoa iruditu zitzaidan, baina bizkorregia dela iruditzen zait.

Eta Bartzelonara jauzia egin zenuen han gehiago ikasteko...

Bai. Askotan pentsatzen dut izen bereziko ikasketak aukeratu ditudala, ezohikoak. Kanpora joateko gogoz nengoen eta konturatu nintzen Bartzelonan ikasteko aukera asko nituela. Kultura Arteko Nazioarteko Ikasketak egiten hasi nintzen, eta horretan dihardut.

Zer moduz Bartzelonan? Katalana ikasi duzu?

Oso gustura nago. Hiri handia da, oso kosmopolita, eta dene-tatik dauka. Ikasketak bukatzen nabil. Katalanari dagokionez, ikasten dihardut eta ulertzen dut, baina oraindik ez naiz berba egiten hasi. Laster hasiko naiz.

Honezkero beste hizkuntza batzuk ere ikasiko zenituen?

Zertxobait. Ingelesa bai, frantsesa aspaldi eta orain portugesa ikasten nabil. Ikasketa horiekin derrigortuta gaude hainbat hizkuntza ikastera, eta neuk gustuko dut.

Sarritan ibili zara atzerrian. Nondik datorkizu zaletasuna?

Erasmusen bidez Danimarkan izan nintzen. Horren ostean, Guatemalan eta Mexikon ibili nintzen. Ama Anelkar gobernuz kanpoko erakundekoa da, eta agian hortik etorriko zait.

Antzuola txiki gelditu zaizu?

Ez [barreak]. Buelatzea erabakitzen dudanean pozik etorriko naiz, nire txokoa delako. Baina orain gurago dut kanpoan ibili eta gauzak ikasi.

Non ikusten duzu zure burua lanean?

Orain hasi behar dut lana non egin aztertzen eta bilatzen. Bestela, gobernuz kanpoko erakunderen baten lan egingo nuke, adibidez. Hala ere, egia da gobernuz kanpoko erakunde batzuk ez ditudala gustuko. Aproposena litzateke komunikazioa eta nazioarteko laguntza uztartu ahal izateko lanpostu bat aurkitzea.

berriak

> GOITB
'Bihurkorak'
marrazki bizidunekin
gozatzeko aukera

Hainbat astetan gure artean izan ondoren, Popeyek agur esan digu eta haren ordeztu *Bihurkorak* marrazki bizidunak iritsi dira Goiena Telebistara.

Gaztetxoek marrazki bizidun berriekin gozatzeko aukera izango dute. Aste barruan 13:15ean eta 20:15 eskainiko dute Bihurkorak. Era berean, zapatu eta domekan ere errepikatuko dira marrazki bizidunok.

> SAIO BEREZIA
Euskal Eskola
Publikoaren festa
Oñatin eta GOITBn

Oraingo astean saio berezi ugari eskainiko ditu ibarreko telebistak. Domekan GOITBko kamerak eta kazetariak Oñatiko kaleetan izango dira, Euskal Eskola Publikoaren festa handian.

Egun osoan ekitaldi asko izango dira Oñatiko kaleetan eta horien guztien berri eskainiko dute telebistakoek. Saio berezia ikusteko aukera izango da martitzenetik aurrera GOITBn.

> ARRASATE IRRATIA
Eneko Oregi eta
Pruden Gartzia
euskaltzain urgazleak

Egubakoitzean izendatu zituen Euskaltzaindiak 35 euskaltzain urgazle; horietako bi debagoiendarrak: Pruden Gartzia oñatiarra eta Eneko Oregi bergarra.

Astean izan ditugu biak 107.7an. Gustura jardun genuen hartutako karguaren gainean, baina baita *Wazemank* saioan egiten duten Euskaltzaindiaren parodiaren gainean ere. Asteburuan berriz ere entzungai.

> ARRASATE IRRATIA
Astelehenean, buruz
buruko finalaren
kronika

Astelehenetan, asteburuari gainbegiratu egiten diogula eta, datorrenean, besteak beste, pilota kontuak batuko ditugu, domekan Olaizolak eta Martinez de Irujok jokatu duten eskuz banakako finala aitzakia hartuta.

Bada, kirolen geltokian egin dugu hitzordua, aspaldiko partez, Juanito Arriaran pilotazalearekin. Baina nola ez, zuk ere, entzule, baduzu jarleku bat gurean: Olaizola ala Martinez de Irujo irabazle?

'DEBAGOIENKO TRIATLOIA' > ASTELEHENA, 21:15

Debagoieneko V. triatloiaren gaineke erreportaje berezia

'Harmailatik' saioan
Debagoieneko
triatloiaren gaineke
erreportaje berezia
egingo dute

GOIENKARIA > BERGARA
Zapatuan jokatu da Debagoieneko V. triatloia Aretxabaleta eta Arrasate artean, 16:00etan hasita. Astelehenean, berriz, triatloia Goiena Telebistan ikusteko aukera izango dute ikusentzuleek.

Urkuluko igeriketa proba, Aretxabaleta, Aramaio eta Arrasate arteko txirringularitza saioa eta Arrasateko lasterketaren gaineke zehaztasun guztiak ikusteko aukera eskainiko du GOITBk. Debagoieneko gazteen mailako bigarren triatloiaren gaineke erreportaje txikia ere eskainiko du telebistak.



DEBAGOIENKO TRIATLOIA Hector Llanos izan zen iazko irabazlea. GOIENKARIA

SAIO BEREZIA, 'BERGARAKO JAIK' > EGUAZTENA, 21:15

Bergarako Mendekoste jaiekin gozatzeko aukera etxeko saloitik

GOIENKARIA > BERGARA
Gaur hasi eta martitzenera bitartean Bergarako Mendekoste jaiek ospatuko dira. Askotariko ekitaldiak egiteko aukera izango dute bergarrek datozen bost egunetan eta horren guztiaren berri emango dizuete Goiena

Telebistan. Albistegietan jaien gaineke berriak eskainiko ditu telebistak, eta eguaztenean saio berezia izango da ikusgai. 30 minutu iraungo du programa bereziak. Saio horretan, besteak beste, dantzaldien, kale antzerkien, kontzertuen eta

sokamuturraren irudi zein elkarriketak eskainiko ditu GOITBk.

Jaiak 2006 saioaren lantaldeak egingo ditu Bergarako festen gaineke erreportaje bereziak. Asteburuko giroa, koadri- len eguna eta umeen eguna jorratuko dituzte, hain justu ere. Saio berezia eguazten iluntzean eta eguen eguerdian eskainiko da telebistan, 21:15ean eta 13:47an, hurrenez hurren. Egubakoitzean ere izango da ikusteko aukera, 15:00etan.

telebegi

Edorta Arana > www.goiena.net/blogak/hamaika

Berriketan

Irratian eta telebistan horrenbeste ugaritu diren tertulia-saio zalea naiz, oro har. Gustura ikus-entzuten ditut eguneroko gertakariak hobeto ulertzeko eta bere testuinguruan kokatzeko lagungarri izaten zaizkidan programak. Eta gainera, argudioak, hitz egiteko moduak, diskurtsoak antolatzeke tankerak eta keinukeretan ohartuz gozatu egiten dut. GOITBko *Berbaire* saio arrakastatsuen jarraitzaile fidela naiz. Gainera, gure tertulia horretan inoiz muturra sartu dudaren, gurago izaten dut ikusle modura aritzea.

Baina, ez dut ezkutatu, irrati-telebistetako tertulien inguruko kezka badudala. Izan ere, berriketaldi horiek gero eta gehiago ikusten ditut hedabideetako musikaren inguruan dantzan aritzen diren automata hutsen bilgune modura. Beste batzuek erabakitako gai-ordenari jarraitzea. Presio-talde (mediatiko, politiko, ekonomiko...) erraldoien gai-jartzaileei erantzuten ibiltzea batzuetan, eta gehienetan, beste nonbaiten entzundako argudioen eta ideien errepikatzaile lana egitea. Eta hain da zaila joko-eremu horretatik irtetea!

arrasate irrata

FM 107.7

Zapatua

10:00 Asteko gainbegiratu.
Eneko Oregi eta Pruden Gartzia, euskaltzain-urgazleak; Nerea Lazpiur, Agenda 21eko teknikariarekin, Aste Berdearen gainean; musikaren geltokian, Juan Mari Beltran eta Markos Untzeta musikariaren diskoen gainean, Gaizka Vitoriarekin; lorategiaren geltokian, lore haragijaleak berbagai...

Domeka

10:00 Asteko gainbegiratu.

Astelehenetik egubakoitzera

10:00-12:00 Igo autobusera!
Albistegia.
Eguraldiaren iragarpena (Ioxe Landa).
Elkarrizketak.
Lorategiaren geltokia.
Ibili Munduan geltokia.
Sariak.
Zorion agurrak.
(parte hartzeko: 943 71 17 31).
12:05 Arrasate Irratiko albistegi laburra.
12:20 Izarren ordua: abesti ezagunak.
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Igo autobusera! (errepikapena)
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 Arrasate Irratiko albistegi laburra.
17:15 Zorion agurren tartea (errepikapena).

GOITBko
programazioa

Egubakoitza, 2

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Berbaire. 14:15 Musika saioa. 14:30 MI: Eguraldia eta zerbitzuak. 14:35 Gezi-bideak. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:00 Iparrorratza. 15:30 MI. 15:35 Sendabelarrak. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Didjeridu. 16:15 Klipak. 16:30 MI. 16:35 Gezi-bideak. 16:45 Albistek. 17:00 Berbaire. 17:30 Eltze beroa. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Ilunpean. 18:15 Teknopolis. 18:45 Albistek. 19:00 Klipak. 19:15 Jazz mintegia. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak. 20:45 Albistek. 21:15 Behazulo: Euskal Eskola Publikoaren festa. 21:45 Berriak. 22:15 Ilunpean: Anje Duhalde. 22:45 Albistek. 23:15 Debarri. 00:15 Berriak. 00:45 Amaiera.

Zapatua, 3

08:00 Emisio hasiera. 08:05 Marrazki bizidunak bilduma. 10:50 Asteokoak. Informazio saioa. 11:00 Jazz. 11:30 Klip. 12:00 Didjeridu: Mikel Aranburu. 12:30 Eltze Beroa: gratinatua. 13:00 Mundumira 2006. 13:30 Bergarako jaiak 2005. 14:00 Aste-koak. 14:15 Ilunpean: Anje Duhalde. 14:45 Aizkorriko maratoia. 15:15 Marrazki bizidunak. 16:00 Popeye. 17:00 Debarri: Leintz Gatzago alkatea, Joserra Perez. 18:00 Teknopolis. 18:30 Berbaire. 19:00 Sustrai. 19:30 Aloña Mendiren gaineke saio berezia. 20:00 Asteokoak. 20:15 MKT. 20:30 Behazulo. 21:00 Mundumira 2006. 21:30 Ilunpean. 22:00 Aizkorriko maratoia. 22:30 Didjeridu. 23:00 Klipa. 23:30 Debarri: Leintz-Gatzago. 00:30 Emisio Amaiera.

Domeka, 4

08:00 Emisio hasiera. 08:05 Marrazki bizidunak bilduma. 11:00 Behazulo: Euskal Eskola Publikoaren festa. 11:30 Ilunpean. 12:00 Berbaire. 12:30 Aloña Mendi berezia. 13:00 Debarri: Leintz-Gatzago. 14:00 Mundumira 2006. 14:30 Klipa. 14:45 Bergarako Jaiak 2005. 15:15 Aloña Mendi berezia. 15:45 Marrazki bizidunak. 17:15 Didjeridu. 17:45 Asteokoak. 18:00 Aizkorriko maratoia. 18:30 Sustrai. 19:00 Elkartasun bideak. 19:30 Mundumira 2006. 20:00 Debarri: Leintz-Gatzago alkatea. 21:00 Berbaire. 21:30 Ilunpean: Anje Duhalde. 22:00 Aloña Mendi berezia. 22:30 Behazulo. 23:00 Eltze beroa: gratinatua. 23:30 Didjeridu: Mikel Aranburu. 00:00 Asteokoak.

Astelehena, 5

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Behazulo. 14:15 Eltze beroa: Mihi arraina. 14:30 MI. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:00 Munduari bueltak. 15:30 MI. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Ilunpean. 16:15 Klipak. 16:30 MI. 16:45 Albiste aurrerapena. 17:00 Didjeridu. 17:30 Zera dio. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Erreportajea. 18:15 Sustrai. 18:45 Albiste aurrerapena. 19:00 Klipak. 19:15 Behazulo. 19:45 Albistek. 20:15 Marrazki bizidunak eta zorion agurrak. 20:45 Berriak. 21:15 Harmailatik: Debagoieneko triatloia. 21:45 Albistek. 22:15 Harmailatik: Debagoieneko Triatloia. 22:45 Berriak. 23:15 Jazz zikloa. 23:45 Albistek. 00:15 Amaiera.

Martitzena, 6

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Jazz zikloa. 14:15 Zera dio. 14:30 MI. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:00 Elkartasun bideak. 15:30 MI. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Harmailatik. 16:15 Klipak. 16:30 MI. 16:45 Albiste aurrerapena. 17:00 Jazz zikloa. 17:30 Danbaka saioa. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Erreportajea: burdigintza. 18:15 Munduari bueltak. 18:45 Albiste aurrerapena. 19:00 Klipak. 19:15 Harmailatik. 19:45 Albistek. 20:15 Marrazki bizidunak eta zorion agurrak. 20:45 Berriak. 21:15 Eskola Publikoaren festa. 21:45 Albistek. 22:15 Berbaire. 22:45 Berriak. 23:15 triatloia. 23:45 Albistek. 00:15 Amaiera.

Eguaztena, 7

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Berbaire. 14:15 Danbaka. 14:30 MI. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:00 Euskal Eskola Publikoaren festa. 15:30 MI. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Behazulo. 16:15 Klipak. 16:30 MI. 16:45 Albiste aurrerapena. 17:00 Berbaire. 17:30 Zera dio. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Sustrai. 18:15 Teknopolis. 18:45 Albiste aurrerapena. 19:00 Klipak. 19:15 Didjeridu. 19:45 Albistek. 20:15 Marrazki bizidunak eta Zorion Agurrak. 20:45 Berriak. 21:15 Bergarako Jaiak 2006. 21:45 Berriak. 22:15 Teknopolis. 22:45 Berriak. 23:15 Euskal Eskola Publikoaren festa. 23:45 Albistek. 00:15 Amaiera.

Eguena, 8

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Erreportajea. 14:15 Zera dio. 14:30 MI. 14:35 Gezi-bideak. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:00 Sustrai. 15:30 MI. 15:35 Sendabelarrak. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Teknopolis. 16:15 Klipak. 16:30 MI. 16:45 Albiste aurrerapena. 17:00 Jazz mintegia. 17:30 MKT musika. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Elkartasun bideak. 18:15 Iparrorratza. 18:45 Albiste aurrerapena. 19:00 Klipak. 19:15 Erreportajea. 19:45 Albistek. 20:15 Marrazki bizidunak. 20:45 Berriak. 21:15 Triatloia. 21:45 Albistek. 22:15 Didjeridu. 22:45 Berriak. 23:15 Berbaire. 23:45 Albistek. 00:15 Amaiera.

EDU MENDIBIL > BERGARA

Telebista ikusle askoren inbidia da Mainer Egües kazetari arrasatearra. Mundu zabalean ibili da, *Chiloé* bidaiaren saiorako erreportajeak egiten. Hirugarren denboraldiari ekin berri diote ETB-1en, martitzen gauean. Oraingoan hainbat irla-eko paisaiak eta bestelako kontuak ekarriko dizkigute.

Zergatik egiten zaizkigu irlak hain erakargarriak?

Irla hitzarekin beti lotzen da paradisia, urruntasuna, abentura... Kutsu hori daukate. Normalean irla txikiak hasten gara pentsatzen. Baina hain txikiak ez diren irlak ere badaude. Esate baterako, Irlandaren gaineko erreportajea ere egin dugu hirugarren denboraldi honetan. Bisitatu ditugun besteak txikiagoak dira: Malta, Zipre, Aruba (Karibean) eta Madeira.

Zenbat lagunek osatzen duzue taldea?

Hiru lagun joan izan gara aipatutako tokietara: Alberto Arizkorreta zuzendaria eta errealizadorea; Jeremie Delaveau kamera eta muntatzailea eta ni neu, aurkezle eta gidogile lanetan. HDV filmatze formatu berriari esker, irudi eta soinu kalitatea hobetu eta ekipo askoz ere arinagoa erabili ahal izan dugu. Joan den urteko iraila eta martxoa bitartean egin genituen bidaiak eta orain, emitituko diren azken saioekin, lokuzio eta bestelako lanak egiten gabiltza.

Dokumentazio lanak berebiziko garrantzia izango du, ala?

Bai, toki batera joan aurretik bertako ezaugarriekin dokumentatzen saiatzen gara, behin heldutakoan ia dena ondo lotuta izateko. Izan ere, ez dugu denbora luzerik izaten agertuko diren tokiak aukeratzeko eta beste hainbat lanetarako. Erlojuz kontra ibiltzen gara askotan. Eta ondo dokumentatzea ezinbestekoa da horrelakoetan. Aurretik zer grabatu behar dugun argi izaten dugu eta bertan zaudela ere informazioa biltzen jarraitzen

Mainer Egües > Kazetaria, 'Chiloé' saioko aurkezlea

"Irlak paradisuarekin edo abenturarekin lotzen ditugu askotan"



Chiloé saioko hirugarren denboraldian hainbat irla erakutsiko dizkigu Mainer Egüesek.

EITB

dugu, gida baten laguntzarekin. Harekin gertuko informazioa, pertsonalagoa... jasotzen saiatzen gara. Eta gero, bueltan, dokumentatzen jarraitzen dugu, jasotakoa osatzeko.

Tokian tokiko biztanleek ere izaten dute zer esana...

Saiatzen gara aurkezten ditugun tokiak bertako biztanleen ikuspegitik erakusten, uharteri eta jendeari hitz egiten uzten. Horrek asko transmititzen dio ikusleari, jendearen izaera pixka bat ezagutzeko. Baina askotan denboraz itota ibiltzen gara eta ez dugu hori nahi bestetan egiten. Niri izugarri gustatzen zait jendeararekin berbetan hastea, euren kezkek ezagutzeko.

Ez da lan txarra, ala?

Guztiak hori esaten didate. Ez naiz kezkatzen. Dena dela, beti esaten dut ez dela dirudien bezain polita, gogorra dela batzuetan. Oso nekatuta amaitzen dugu eta askotan sentsazio gazi-gozoarekin, ez gabela dena *harrapatze*ra heltzen, hobeto egin zitekeela pentsatuz. Baina tira, gauza genetikoa da hori. Oso lan polita da, gauza ederra da bidaiatzea. Txarrena zera da: telebistan audientzien mende bizi zarela.

Bisitatuak tokietatik zein nabarmenduko zenuke?

Uhartereen gaineko erreportaje sorta honetan Madeira gustatu zait gehien. Berde-berdea, bailara handiekin, itsaslabar ikusgarriekin (akantilatua)... Abenduan izan ginen eta Gabonetarako dotore dekoratuta zeukaten. Siria ere izugarri gustatu zitzaidan. Ekialde Hurbilera egiten nuen lehen biziko bidaiak izan zen, eta hango janari, paisaia eta basamortuarekin liluratuta etorri nintzen. Jordania ere ikustekoa da. Petra zoragarria da.

Zein bidaiak duzu egiteko oraindik?

Thailandiara bueltatuko nintzateke. Eta Etiopiak ere asko erakartzen nau. Oso polita omen da. Cabo Verde... Afrika da gutxien ezagutzen dudana kontinentea. Badut joateko gogoia.

Zer ez da faltan sekula zure motxilan?

Bainujantzia eta argazki kamera. Eguzkitarako krema eta telefonoaren bateria ere ez... Poltsikokoa eramaten dut beti. Eta libururen bat ondo dator beti.

"Saiatzen gara aurkezten ditugun tokiak bertako biztanleen ikuspegitik erakusten, jendeari hitz egiten uzten"

Aste berdea: MAHAI INGURUAK IBARRAUNDIN, ARRATSALDEKO 19:00ETAN

- 06-06-05, astelehena ANTONIO LUCENA, Ecologistas en acción (Madril):
"Energia nuklearra erregaien alternatiba garbi eta baliagarria da?"
- 06-06-06, asteartea ROBERTO BERMEJO, EHU (Bilbo):
"Erregai fosilak eta klima-aldaketa."
- 06-06-08, osteguna PEDRO LASAGABASTER, Onbide elkarteko partaidea (Eskoriatza) eta AHT-AREN AURKAKO ASANBLADAKO KIDE BAT.
"Mugikortasunarekiko alternatibak"



Intxaurtxueta kalea
z/g, 20540 Eskoriatza.
Telf. 943715453

Pazkoak Bergaran

Egubakoitza, 2

> **20:00** Jaien hasiera, etxafuegoen jaurtiketa eta Bitoriana-txoren jaitsiera San Martin plazan.

> **Ondoren** Udal Musika Bandaren kalejira.

Musika



GAUERO

> Djen emanaldiak

Disko jartzaileen emanaldiak izango dira gauero Ziripot tabernan; hilaren 2an eta 3an, Jam eta GoJam aretoetan; eta hilaren 5ean, Bideberriko txosna-gunean.

> **20:30** McKensy's Clan Bandeko eskoziarren kalejira. Musika, ikuskizuna eta umorea barra-barra.

> **Iluntzean** Matxiategin barraren irekitzea, eta Bideberrin txosnen irekitzea. Segidan, Txosna batzordeak deitutako poteo errebendikatiboa.

> **22:30** Doubling Boys, Trapatoni, Ezinean eta Biok musika taldeen kontzertua Bideberrin.

Zapatua 3

> **09:00** 25. Haur eta gazteen plastika sariketa, Beart Bergarako arte elkarteak antolatuta, San Martin plazan.

> **10:00** Diana soinu-jotzaileekin, txistulariekin eta dultzaineroekin.

> **Ondoren** Herriko plazan elkartuko dira guztiak, eta Mizpirualdera joango dira.

> **11:00** Herriko elkarten arteko bakailao lehiaketa San Martin plazan.

> **11:00** Atletismoko proba konbinatuak Agorrosingo kirol-gunean.

> **11:45** Bergara Hiria moto-kros lehiaketako entrenamenduak Candy lantegi ondoko zelaian.

> **12:30** Preso eta iheslarien aldeko herri poteoa, Txosna batzordeak antolatuta.

> **13:00** Haur eta gazteen plastika lehiaketako sari banaketa, San Martin plazan.

> **13:30** Moto-kros txapelketako goizeko lasterketa.

> **14:00** Txosna batzordeak antolatutako bazkaria.

> **16:00** Moto-kros txapelketako arratsaldeko lasterketa.

> **17:45** Haurrentzako bonba japoniarrak San Martin plazan.

> **18:30** Bergarako erraldoi, kiliki eta buruhandien kalejira, plazatik abiatuta.

> **19:00** Preso eta iheslarien aldeko kale agerraldia.

> **19:00** King Diamond black-metal musikariaren kontzertua Jam aretoan. Sarrera, 25 euro.

> **19:30** Moto-kros txapelketako sari banaketa.

> **20:00** McKensy's Clan Band taldearen kalejira.

> **22:30** Lord Witch, Beforce, Cool Panic eta New Christs taldeen kontzertua Bideberrin.

> **23:00** II. Dantza Latindarren Mendekosteetako Lehiaketa jokatu dute San Martin plazan.

Domeka, 4

> **08:00** Alborada txistulari bandarekin.

> **08:30** Sokamuturra San Martin plazan.

> **10:00** Euskadiko banakako xake txapelketa Ipintza II institutuan.

> **11:00** Meza nagusia San Pedro parrokiaren udalbatzarekin.

> **12:00** Euskal dantzen erakustaldia San Martin plazan.

> **12:30** Udal musika bandaren kontzertua Espoioan.

> **16:00** Xake azkarreko taldekako txapelketa Ipintza II institutuan.

> **17:00** Pilota partidu profesionalak Udal Pilotalekuan.

Kale antzerkia

HILAK 2, 3, 4 ETA 6

> Adin guztietako ikusleendako antzezlanak

Hainbat kale antzerki emanaldi izango dira. Egubakoitzean, hilak 2, Markeliñe taldeak *Carbon Club* izeneko antzezlan egingo du herriko plazan; zapatuan, hilak 3, umeendako *Berpiztuak* antzezlan beldurgarri-umoretsua izango da; domekan, ekainak 4, Txaribari taldeak *Panta Rhei* antzezlan egingo du Munibe plazan; eta ekainaren 6an, martitzena, Hortzmuga taldeak *Zirko Iluna* fantasiako ikuskizuna (argazkian) egingo du Munibe plazan.



> **17:30** 29. Euskadiko Dantza Askatuko Txapelketa San Martin plazan.

> **20:00** Urko Menaiaren kontzertua Munibe plazan.

> **20:30** Kloratita, Esan, Pikutara eta Genozidio taldeen kontzertua Bideberrin.

> **21:00** Organik taldearen ES3IN kale-dantza. Estresa kaleratzeko modu bikaina!

> **23:00** Dantzaldia San Martin plazan Esmeralda taldearekin.

Astelehena, 5

> **08:30** Sokamuturra San Martin plaza eta Barrenkalean.

> **10:30** Plater tiroketa Gorkako Irubide zelaian.

> **11:00** Koadrilak batuko dira herriko plazan, eta txorizo hamaiketako izango dute.

> **11:30** Koadrilen arteko jolasak San Martin plazan.

> **12:30** Tarantella taldearen kontzertua Espoioan.

> **14:30** Herri bazkaria San Martin plazan. Segidan, jokoak.

> **18:30** II. Miss eta Mister Jator lehiaketa.

> **19:00** Bergara Hiria pilota txapelketako finalak.

> **19:30** Musika kalejira.

> **22:30** Hound Dogs, Belceblues eta Saddle Tramps taldeen kontzertua Bideberrin. Segidan, DJ Bull.

> **23:00** Imuntzo eta Belokik girotutako erromeria, plazan.

> **23:00** Camp dantzaldia Espoioan.

Martitzena, 6

> **08:30** Sokamuturra San Martin plaza eta Barrenkalean.

> **11:00-13:00** Jaietako kartel lehiaketako lanen erakusketa udaletxe arkupeetan.

> **11:30-13:30** Herri tren Fraiskozuri plazatik abiatuta.

> **11:30-13:30** Umeendako jolasparkea Ipintza IIn.

> **12:30** Herri kirolen erakustaldia San Martin plazan.

> **17:00** Pilota partidu profesionalak frontoian.

> **17:00-20:00** Herri tren abiatuko da Fraiskozuritik.

> **17:00-20:00** Umeendako jolasparkea Ipintza IIn.

> **19:30** Toka eta txapel jaurtiketa txapelketa Bideberrin.

> **20:15** *Kanpanolue* dantzaldia Munibe plazan.

> **20:30** Txotx! egingo dute txosna-gunean.

> **22:00-00:00** Tximeleta taldearekin dantzaldia plazan.

> **00:00** Bitorianatxo jasoko dute eta agurra egingo diote. Jai bukaera ekitaldia eta musika Incansables txaranga-rekin.

> **00:30-02:00** Tximeleta taldearekin dantzaldia plazan.

Kirola



DOMEKA, 4, 10:00ETAN HASITA

> 71. Mendekoste saria txirrindularitza lasterketa

Lokatzak antolatuta, 23 urtetik beherako txirrindulariendako eta elite mailakoendako lasterketa, Lehendakari Txapelketarako puntuagarria. San Lorentzotik aterako da lasterketa 09:30etan eta 12:25ak aldera bukatu, Matxiategin.

Ekainak 2-9

LEIRE KORTABARRIA

Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: kultura@goiena.com
Tel.: 943 25 05 01 • Faxa: 943 25 05 13

Bioaniztasuna, jolasen bidez



ARRASATE

> Bioaniztasunaren gaineko Aste Berdea egingo dute aurten

Aste Berdea egingo dute hilaren 5ean, astelehenean, hasita. Egun horretan, bioaniztasuna lantzeko jolasak eta eskulan txokoa egingo dituzte Seber Altube plazan, 17:30etik 19:30era. Hainbat panel ere ipiniko dituzte.

Black-metal kontzertua



BERGARA

> King Diamond eta bere taldeak Jam aretoan joko dute

Bihar, zapatua, King Diamonden black-metal doinuak eta estetika satanikoa izango ditugu Jam aretoan, 19:00etan. Sarrerak 25 eurotan daude salgai. Kim Bendix Petersen musikari danimarkarren izen artistikoa da King Diamond.

Pub Ibiltaria Aramaion



ARAMAIO

> Oskorraren The Pub Ibiltariaren emanaldia izango da gaur, egubakoitza

The Pub Ibiltaria ikuskizuna egingo du Oskorri taldeak kultura etxean, 22:00etan, Udalak eta Txirritolak antolatuta. Taldearen abestiez gain, abesti herriko oso ezagunak kantatuko dituzte Oskorriko kideek.

Ikuskizunak

ELGETA

> Euskal eskola publikoaren aldeko moda desfilea

Euskal eskola publikoaren aldeko jaia egingo dute etzi, domeka, Oñatin, eta horren aldeko moda desfilea antolatuta du EHIGE gurasoen elkarteak.

Bihar, zapatua, Espaloia antzokian, 19:30ean.

ESKORITAZA

> Lazkao Txikiren bertsoak kantatuko ditu Xabier Amurizak

Lazkao Txiki, bat-bateko sorgina izeneko ikuskizuna egingo du Xabier Amurizak. Lazkao Txikiren 100 bertso kantatuko ditu, mikrofonoa lagun bakarria duela agertokian.

Gaur, egubakoitza, Inkernu tabernan, 22:00etan.

Musika

ARRASATE

> Musika emanaldia izango da gaur, egubakoitza, Gure-Lekun

The Brontës taldeak kontzertua egingo du Zarugalde kaleko Gure-Leku tabernan. 23:00etan hasiko da kontzertua.

ARRASATE

> Los Cretinos, Show Business eta Sexy Sexers taldeak

Los Cretinos (Arrasate), Show Business (Oñati) eta Sexy Sexers (Bera) taldeek kontzertua egingo dute. Sarrera 3 euro da.

Bihar, zapatua, gaztetxean, 22:30ean.

ARRASATE

> Bi kontzertu antolatu dituzte astebururako 3.60 aretoan

Honako emanaldiak izango dira: Moe & Magu gaur, egubakoitza, gauerdian; eta Black Music: soula, funka, latindarra, diskoa eta elektroa. Gero, Luis Beltza arituko da, 03:00etan.

Egubakoitza eta zapatu gauean.

OÑATI

> Ganbarako hiru taldeek kontzertua egingo dute

Ganbara Txiki, Ganbara Txikitxoak eta Tailerrak kontzertua egingo dute. Donostiako Mariaren Bihotza Eskolaniak ere egingo du emanaldia.

Bihar, zapatua, Santa Ana antzokian, 19:00etan.

OÑATI

> Olakua auzoko jaietan, hiru musika emanaldi izango dira

Olakua auzoko jaiak ospatuko dituzte egunotan, eta honako kontzertuak antolatu dituzte: Lagash eta Segabathor taldeen rock kontzertua (gaur, egubakoitza, 22:30ean); Arantxa eta Pantxorekin rantxerak

(bihar, zapatua, 20:00etan) eta Tximeleta taldearekin dantzaldia (etzi, domeka, 22:30ean).

Kontzertu guztiak auzoko plazatxoan.

Erakusketak

ESKORITAZA

> 'Eskoitza' erakusketa bisitatzeko aukera dago

Iraia Artzamendi arrasatearrak Eskoriatzako hainbat parajeren marrazkiak aurkeztu ditu erakusketan, eta liburuxka baten batu ditu. Ibarraundi museoan dago erakusketa ikusteko aukera.

Zabalik dago hilaren 18ra arte.

ARRASATE

> 'Mirada poética' delako erakusketa Harresi aretoan

Mirada poética izenburupean, Maite del Reyren poesiak eta Maider Zubillagaren

marrazkiak daude erakusketan hilaren 18ra arte.

Orduetgia: astegunetan, 18:00-20:00; zapatu eta jaiegunetan: 12:00-14:00 eta 18:00-20:00.

ESKORITAZA

> 'Herri janzkerak' izeneko erakusketa antolatu dute

Herri janzkerak izenburuarrekin, baseritarren jantzi tipikoen erakusketa dago Inkernu tabernan.

Uztailaren 1era arte zabalik.

ARRASATE

> 'Hazia erein zenutenoi' erakusketa Monterronen

Hazia erein zenutenoi izeneko erakusketa antolatu du Debagoieneko fusilatuen senitarteko eta lagun batzordeak, eta Monterronen dago ikusteko aukera ekainaren 15era arte.

Orduetgia: 18:00-20:00, egunero.

Jaiak

ARRASATE

> Elkartasun Eguna egingo dute Debagoieneko GKEek

Egunean zehar, Gobernu Kanpoko Erakundeek euren proiektuak aurkeztuko dituzte, eta bidezko merkataritza, tonbola, henna tailerra eta perkusio taldeak izango dira.

Bihar, zapatua, Seber Altube plazan.

ESKORITAZA

> X. Ferixie egingo dute bihar, zapatua, egun osoan

Baserriko produktu eta elikagaiak, artisautza eta abere erakusketak, txorimalo lehiaketa, herri kirolak, umeendako puzgarriak... egongo dira goizean. Eguerdian, herri bazkaria pilotalekuan; eta arratsaldean, txahal erreira Herriko plazan.

Bihar, zapatua.

Lehiaketak

ESKORITAZA

> Jaietako kartela eta esaldia aukeratzeko lehiaketak

San Pedro jaietako egitarauaren azala aukeratzeko lehiaketan, 21x10 cm-ko kartelak behar dituzte, honako testuarekin: *2006 San Pedro jaiak Eskoriatza. Ekainak 28, 29 eta 30, uztailek 1*. Lanak udaletxera edo kultur etxera eraman behar dira. 300 euroko saria emango dute. Ekainaren 6a da mugaeguna.

Bestetik, jaietako esaldi lehiaketan ekainaren 4ra bitartean parte har daiteke, udaletxean eta kultura etxean dauden kutxetan.

Udalak antolatzen ditu sariketok.

Bestelakoak

OÑATI

> Erretiratuen Astea ospatuko dute Pake-Lekuko kideek

Honako ekintzak antolatu dituzte: bingoa (hilak 5, 18:00), iruzurren gaineko hitzaldia (hilak 6, 17:00), ibilaldia eta hamaiketako San Martinen (hilak 7, 10:30), txokolatada (hilak 8, 18:00) eta afari-merienda eta dantzaldia (hilak 9, 18:30).

Ekainaren 11n, ekitaldi gehiago.

ARRASATE

> Mendekosteko jaia dela-eta, otoiizaldia egingo dute

Mendekoste jaia dela eta, Arrasateko Pastoral Barrutiak otoiizaldia antolatu du. Orain arte, elizkizun hori Kontzezino-komentuan egin dute beti, baina aurten, San Juan Bataiatzailearen parrokiaren egingo dute, jendeak erraztasunak izan ditzan otoiizaldian parte hartzeko.

Bihar, zapatua, 21:00etan.

PROPOSAMENA

ARRASATE

> VIII. Garagardo Festa egingo dute gaur, egubakoitza

Arrasate Rugby Taldeak Garagardo Festa antolatu du zortzigarren urtez. Karpa erraldoia ipiniko dute gaur, egubakoitza, arratsaldean, inguratzen den edozeinendako jateko eta edatekoekin: alemaniar garagardoa, oilaskoak, saltxitxak, ukondoak...

Musika emanaldiak egongo dira egubakoitza eta zapatu gauean. Gainera, zapatu gauean, laguntzaile-bazkide guztien artean afaria zozketatuko dute.

Gaur, egubakoitza, hasiko da jai Herriko Plazan, 19:00etan.



nire aukera



Mikel Arantzabal
Txirritola euskara elkarte
Aramaio

"Oso txarra egin behar du etxean gera nadin"

Zapatuan, normalean baserrira joaten naiz; ni, izatez, Angiozarkoa naiz, eta haraxe joaten naiz. Domekan, berriz, irteeraren bat egitea gustatzen zait, ahal bada, behintzat. Hala, joan den domekan Ibilaldian egon nintzen. Primeran pasatu nuen, oso giro ona zegoen eta. Ibilaldiak egiteko, gida baten oinarritzen naiz, edo egunkarietan irakurtzen dudanean.

Herritik kanpo joan ezin dudanean, Aramaioko auzo-etan paseatzen gustura ibiltzen naiz.

Eguraldi txarra egiten duenean ere beti irteten zara?

Oso-oso txarra egin behar du etxean geratzeko.

Ikuskizunen edo ekitaldiren batera joaten zara?

Bai. Domeketako irteera horretarako egiten dut batzuetan. Zerbait erakargarria antolatzen dutenean, hara joaten naiz.

Zein da joan zaren azken ekitaldia?

Usurbilgo Sagardo Eguna. Eta Araba Euskarazera ere joan gurako nuke.

Udako oporrak antolatzen hasi zara?

Ez dut antolatzeko beharrik, azken urteetan beti Nojara joaten naiz-eta. Konplikazio txikia dut: koadrilarekin batu, txakolina hartu, bainatu...

Zer antolatuko zenuke gustura Aramaion?

Gutxienez hilean behin zerbait antolatzen dugu. Hori baina, jendeak euskaraz gehiago egitea gurako nuke.

Zinema

ARAMAIO KULTURA ETXEA

Brokeback mountain
Egubakoitza: 22:00.

ARRASATE AMAIA ANTZOKIA

Plan oculto
Zapatua: 19:30, 22:30.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

Salvaje
Domeka: 17:00.

20 centímetros
Eguena: 20:30

ELGETA ESPALOA ANTZOKIA

Pulp fiction
Eguaztena: 21:30.

OÑATI KULTURA ETXEA

Volver
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.

Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

EIBAR UNZAGA

El código Da Vinci
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:30, 19:45, 22:30.
Astelehena, martitzena eta eguaztena: 19:30, 22:15.

RIALTO

El caso Slevin
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena eta martitzena: 19:30, 22:15.

GASTEIZ GURIDI

X-Men: la decisión final
17:30, 20:00, 22:30.

Paparazzi
17:30, 20:00, 22:30.

El código Da Vinci
16:45, 19:40, 22:35.

Hard candy
20:00.

Cuando llama un extraño
17:30, 20:00, 22:30.

La buena voz
20:00.

Un lugar maravilloso
17:00, 19:45, 22:30.

¡Y tú qué sabes?
17:30, 22:30.

¡Viva Cuba!
17:30, 22:30.

FLORIDA-GURIDI

Camino a Guantánamo
18:00, 20:15, 22:30.

Saraband
20:15.

La joven de las especias
18:00, 20:15, 22:30.

Rosario Tijeras
18:00, 20:15, 22:30.

Tiempo de valientes
18:00, 20:15, 22:30.

Un franco, 14 pesetas
18:00, 22:30.

Galatasaray-Depor
18:00, 20:15, 22:30.

Factótum
18:00, 20:15, 22:30.

ÁBACO-LAKUA ZINEMAK

La niñera mágica
16:00, 18:00.

La huella del silencio
22:00, 00:30.

El caso Slevin
20:00, 22:15, 00:30.

Ice age 2
16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:30.

Misión imposible 3
16:45, 19:15, 22:00, 00:30.

Cuando llama un extraño
16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:30.

X-Men: la decisión final
16:00, 18:00, 20:00, 22:15, 00:30.

Bienvenido a casa
22:00, 00:20.

Salvaje
16:00, 18:00, 20:00.

Míos, tuyos y nuestros
16:00, 18:00, 20:00.

El código Da Vinci
17:00, 20:00, 23:00.

16 calles
16:00, 18:00, 20:00, 22:15, 00:40.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan. Eguaztena, ikuslearen eguna.

YELMO CINEPLEX-GORBEIA

La huella del silencio
20:15, 22:20, 00:25.

Bajo cero
19:20, 21:45, 00:10.

Misión imposible 3
12:15, 16:30, 19:00, 21:40, 00:15.

X-Men: la decisión final
12:15, 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

Ice age 2
12:15, 16:35, 18:35.

Caos
12:15, 15:40, 17:50, 20:00, 22:10, 00:20.

El código Da Vinci

12:15, 16:15, 17:45, 19:15, 20:45, 22:15, 23:45.

Un franco, 14 pesetas
12:15, 16:20, 18:25, 20:30, 22:35, 00:40.

Salvaje
12:15, 15:45, 17:35.

Plan oculto
19:45, 22:15, 00:45.

Zathura
12:15, 15:45, 17:45.

Slither: la plaga
20:50, 22:45, 00:40.

El caso Slevin
20:35, 22:40, 00:50.

Burt Munro, un sueño, una leyenda
12:15, 16:00, 18:25.

La niñera mágica
12:15, 16:20, 18:20.

Crash
20:20, 22:25, 00:30.

Novia por contrato
12:15, 16:05, 18:05.

Volver
12:15, 15:55, 18:10, 20:25, 22:40, 00:55.

Cuando llama un extraño
12:15, 16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan. Eguerdiko saioak, domekan. Astelehena, ikuslearen eguna (jaiegunak izan ezik).

ÁBACO BOULEVARD

X-Men: la decisión final
12:00, 16:00, 18:10, 20:20, 22:30, 00:45.

16 calles
22:00, 00:30.

Misión imposible 3
12:00, 17:00, 19:45, 22:15, 01:00.

Bajo cero
12:00, 17:00, 19:30.

Volver
19:45, 22:10, 00:45.

Déjate llevar
12:10, 17:00, 19:30.

Ice age 2
12:15, 16:15, 18:10.

El código Da Vinci
12:00, 16:30, 17:00, 19:30, 20:00, 22:20, 23:30, 01:00.

Bodas por encargo
20:30, 22:30, 00:30.

Caos
12:00, 17:00, 20:00, 22:10, 00:45.

Novia por contrato
22:00, 00:30.

Salvaje
12:00, 16:10, 18:00.

Rosario Tijeras
12:15, 17:00, 20:05, 22:30, 01:00.

Sin miedo
12:10, 16:00, 18:10, 20:20, 22:30, 00:45.

Plan oculto
12:00, 17:00, 19:45, 22:25, 01:00.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan. Eguerdiko saioak, domekan. Eguaztena, ikuslearen eguna.



Misión imposible 3 **

Zuzendaria: J.J. Abrams.

Aktoreak: Tom Cruise, Philip Seymour Hoffman.

AEB, 2006.
128 min. Akziozkoa.

Misión Imposible duela urte dezente eginiko telesail famatua izan zen, eta orain, J.J. Abrams-ek, *Perdidose*ta *Alias* telesailen egi-leak, zinemarako eginiko saga-ko hirugarren filmean, telebistari lotutako keinu dibertigarri bat egiten dio. Sarritan, telesailak hasi baino lehenago, horietan gertatu behar diren eszena batzuen irudi deigarriak eskaintzen dira. Bada, gauza bera egiten du J.J. Abrams-ek *Misión Imposible 3*-n: filmari hasiera emateko, askoz geroago agertuko den eszena aipagarri baten zati bat erakusten digu, horren momentu gorenean mozteko eta, gero, ezer gertatu izango ez balitz bezala, istorioa benetan hasteko. Honela, nahiko modu xebearean, zuzendariak telebista eta zinemaren munduak nahastu egiten ditu.

Misión Imposible 3-ren hasiera dibertigarria da eta, orokorrean, film guztia nahiko dibertigarria da. Hori bai, oso argumentu mugatua du. Zehaztasun osoz kontatutako eszena luze eta oso ikusgarriak ditu, eta horiek lotzeko erabiltzen den argumentuaren haria oso garrantzi txiki-koa da. Korrikaldi, eztanda, kolpe, zarata eta efektu ugari daude, eta egoera arriskutsu guztiak sinesgarritasunaren mugaraino eramaten dira. Eszena batzuetan, irudiak, planoen aldaketa hain azkarra-rengatik, ez dira oso ondo bereizten, baina orokorrean ondo eginiko eszenak dira. Eta osagai horiei gaizkile erakar-garri bat gehitzen badiegu (Philip Seymour Hoffman), nahiko film entretenigarria lortzen da.

Antonio Zabala

Eskasa:* Balekoa:** Ona:*** Oso ona:**** Bikaina:*****

Bienvenido a casa **

Espainia, 2006. Zuzendaria: David Trueba. Aktoreak: Pilar López de Ayala, Alejo Sauras, Ariadna Gil. 93 min. Komedia dramatiko.

Eva eta *Samuel* batera bizi izaten hasi berri diren bikotekide gazteak dira. *Eva*-k *Samuel*-i esaten dihonean haurdun dagoela, euren harremana aldatzen joango da.

Plan oculto

AEB, 2006. Zuzendaria: Spike Lee. Aktoreak: Denzel Washington, Clive Owen, Jodie Foster. 129 min. Drama, thrillerra.

Lau gaizkilek Manhattan-eko banketxe bat lapurtzen dute eta 50 pertsona bahitzen dituzte. Poliziak, gaizkileen buruak, banketxezko zuzendaria... gero eta gehiago nahastuko den egoera bateko partaide bihurtzen dira.

Pulp fiction

AEB, 1994. Zuzendaria: Quentin Tarantino. Aktoreak: John Travolta, Uma Thurman, Tim Roth. 154 min. Akziozkoa, drama.

Kafetegei baten lapurtzen duten gaizkile, gangster boteretsu batendako lan

egiten duten bi gizon, gangsterrarekin arazoak dituen boxealari bat... pertsonaia horien bizitzak elkarrekin gurutzatuko dira, eta istorio bakoitzak dago-kion bukaera izango du.

Cuando llama un extraño

AEB, 2006. Zuzendaria: Simon West. Aktoreak: Camilla Belle, Tommy Flanagan, Brian Geraghty. 94 min. Komedia.

Jill gaztea umezain dabil isolatutako etxe baten. Halako baten, dei anonimo bat jasotzen du: ezezagun batek esaten dio begiratzeko ea umeak ondo dauden. Neska konturatuko da deia etxe barrutik egin diotela, eta bakarrik aurre egin beharko dio mehatxu horri.

Volver ****

Espainia, 2006. Zuzendaria: Pedro Almodóvar. Aktoreak: Penélope Cruz, Carmen Maura, Lola Dueñas. 110 min. Komedia dramatiko.

Raimunda (Cruz) eta *Sole* (Dueñas) ahizpek aspaldi hildako ama (Maura) fantasma moduan heriotzatik itzuli dela entzungo dute. Herritik Madrilerara bueltatzen direnean, amaren gorpua autoan daramatela konturatuko dira...

Rosario Tijeras

Kolonia-Espainia-Mexiko, 2005. Zuzendaria: Emilio Maillé. Aktoreak: Flora Martínez, Unax Ugalde. 126 min. Drama.

80ko hamarkadan, Medellín narko-terrorismoak zigortutako hiria da, eta han bizi da *Rosario Tijeras*, mendekuak bultzatutako emakumea.

Hard candy *

AEB, 2005. Zuzendaria: David Slade. Aktoreak: Patrick Wilson, Ellen Page. 193 min. Thriller psikologikoa.

Hayley 14 urteko neskatokak Jeffekin, 30 urte betetako argazkilaria batekin, harremana egiten du Internetez. Elkar ezagutzeara adosten dute.

Brokeback mountain

AEB, 2005. Zuzendaria: Ang Lee. Aktoreak: Jake Gyllenhaal, Heath Ledger. 134 min. Drama.

AEBetako mendebaldeko bi abeltzain gazteren arteko amodiozko istorioa kontatzen du, homosexualitatea isilpean bizi behar izaten duten garai eta gizarte baten.

Salvaje

AEB, 2006. Zuzendaria: Steve Spaz Williams. 94 min. Animaziozkoa, abentureta-koa, komedia.

Zoologikotik irtenda, animalia batzuk konturatuko dira New York ere jungla arriskutsua izan daitekeela.

Camino a Guantánamo

Erresuma Batua, 2006. Zuzendariak: Michael Winterbottom, Mat Whitecross. Aktoreak: Ruhel Ahmed, Asif Iqbal, Shafiq Rasul. 100 min. Drama.

Lau lagun britainiar Ingalaterratik abiatzen dira 2001. urtean eurentariko baten ezteietara joateko eta, bide batez, Pakistanen oporrak pasatzeko.

Un franco, 14 pesetas

Espainia, 2005. Zuzendaria: Carlos Iglesias. Aktoreak: Carlos Iglesias, Javier Gutiérrez, Nieve de Medina. 105 min. Komedia.

Espainia, 1960. Bi lagun, *Martin* eta *Marcos*, Suitzara joaten dira lan bila. Espainian familiak utzita, Europa gartura bidaia hasten dute.

ZINEMA MERKEAGO

Txartel hau moztu eta sarrera merkeago izango duzu

www.cinesabaco.com



Promozio baliagarria 2006/06/30, astelehenetik ostiralera, jai egunetan eta bezperetan izan ezik. Ez da bateragarria beste promozioekin.



ZINEMA MAILA GORENEAN

Tropela, Leintz Gatzagara

EUSKAL BIZIKLETA Hirugarren etapa amaituko da gaur eta tropela Leintz Gatzagatik aterako da bihar

DORLETAKO AMA Ehunka txirrindulari joaten dira urtero txirrindularien patroari lore eskaintza egitera

MUSEOA Etorkizunean Bizikleta Museoa Leintz Gatagan zabaltzeko asmoa dute Dorletako Ama Txirrindulari Elkarteak

EDU MENDIBIL > LEINTZ GATZAGA

Txirrindularien tropela iritsiko da gaur Leintz Gatzagara. Euskal Bizikletako 3. etapa amaituko da bertan eta zapatuan handik irtengo da 4. etapako lehen sektorea, Leintz Gatzaga eta Agurain artekoa. Hala, Leintz Gatzagak, herri txikia izanik, kirol albisteetan protagonismoa izango du egunotan bizikletei esker. Txirrinduzale anonimoek ondo ezagutzen dute Leintz Gatzagara bidea: ehunka txirrindulari joaten dira urtero txirrindularien patroari Dorletako Amari lore eskaintza egitera.

Euskal Bizikleta Leintz Gatzagara ekartzeak 30.000 euro inguruko aurrekontua izan du. Dorletako Ama Txirrindulari Elkarteak aritu dira antolaketa lanetan, Leintz Gatzagako Udalaren laguntzarekin. Alberto Altube Dorletako Ama Elkarteko presidentea zera dio: "Orain dela bi urte hasi ginen lasterketa ekartzeko ahaleginetan. Aldabe anaiek eta Manolo Zubillagak harreman handia dauka-



ANTOLAKETA Lasterketa antolatzen ibiliko direnak hainbat maillot historikorekin, martitzenean Gatzagan.

XABI URTZELAI

te Julian Erasorekin eta antolazaleekin, eta hortik sortu zen aukera. Herri txikia baina txirrindularitzarekin harreman estua duena da gurea. Gipuzkoako azken herria izan arren, bizi-rik dagoela erakutsi nahiko genuke. Eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu babesleei eta Venta Friako jabe Angel Aranburuzabalari. Venta Frian kokatu dugu kazetariendako eta epaileendako gunea; primeran etorri zaigu".

BIZIKLETA MUSEOA

Bestalde, dopina dela-eta txirrindularitza sortutako nahasmeneren aurrean zera diosku Altubek: "Gizartearen errua ere bada, kirolarietengabe hobetzeko eskatzen diegu eta. Eta hipokrisia ere badago: eliteko kirolean bizi guztiko kontua da dopinarena". Leintz Gatzagako helmugan euskaldun bat irabazte izatea nahiko luke. "Belokik irabaztea ondo legoke...". Tropela igaro ondoren, hurrengo helburua zera izango da: Bizikleta Museoa zabaltzea Gatzagan.

ahobero

"Dopina beti egon da eta beti egongo da. Lehenbiziko Olinpiadetatik dator, eta ez da orain txirrindularitza sortutako kontua"

Javier Minguez > Vitalicio Seguros taldeko zuzendari ohia

Azken egunotan irakurritakoaren arabera, badirudi ziklistak bakarrik dopatzen direla. Baina beste kirol batzuk horren zorrotz aztertea ez legoke gaizki.

iturri onetik

Zabalotegiko auzotarrak ez dira hauteskundeetara aurkezteko

Bergarako Zabalotegiko auzotarrek ez daukate pentsatuta udal hauteskundeetara aurkezteko. Auzotar batzuk aspaldian haserre dabilta Udalarekin, Bolu eta Zabalotegi lotuko lituzkeen errepidearen proiektuarengatik. Antza denez, auzotarrek eginiko batzar baten, udal hauteskundeetara aurkezteko ideia aztergai izan zuten, presioa egite aldera. Baina ez aurkezte erabaki dute.

piperrautsa

Mikel Irizar > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

Ia dena ondo

Elorri berran zenez, Ibilaldira hurbildu nintzen domekan, aspaldiko partez. Eta harrirituta gelditu nintzen ikustean nola garatu diren azpiegiturak, nolako teknologia erabiltzen den txosna, puzgarri edo arrisku-kirolen antolaketan. Garabi itzelak gizasmea oso goi igo, eta han goitik salto egiten ikusi nuenean, kizkuratu egin zitzaidan bihotza.

Horrez gain, eguraldia eder, Elorrio zoragarri eta jendea erruz. Ia dena ondo. Zer falta izan zen? Detalle hutsala: euskara. Pare bat ordu eman nituen zirkuituan zehar eta gaztelania barra-barra entzun nuen Bizkaiko ikastolen egunean. Ez antolakuntzaren aldetik, noski, horretan ere ez zen egon akatsik.

Baina gutxienez egun horietan ez bada euskara nagusitzen, zer bait ari gara gaizki egiten.

ai, ene!






Makinak gizakien zerbitzura lanean?

Nork ez du pentsatu sekula makinaren barruan norbait lanean egon zitekeenik, dirua zenbatzen edo edariak zerbitzatzeko?

<http://tinyurl.com/m5rs4>



-  Merkatuko lehen markak
-  Mota askotako estiloak
-  Gremioen koordinazioa

Jai zoriotsuak guztioi!



Telleria 23, D5 pabilioia

Labegarieta Industrialdea BERGARA

Tel.: 943 76 98 30 Faxa: 943 76 52 44 • www.iparproject.com

